Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak

a r a b a
bilduma

Azala eta bildumaren diseinua:
Esteban Montorio

Argitaratzailea:
Arabera
Lehenengo edizioa
Gasteiz, 2009ko azaroa

Copyright
© Arabera, Juan Martin Elexpuru

Diseinu grafikoa
monti
Inprimaketa
RGM

ISBN
978-84-95774-22-4
Lege gordailua
BI- -09

Juan Martin Elexpuru

Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak

arabera

Eliseo Gil eta Idoia Filloyri
Inkisizio berriaren biktimei

Aitzin-solasa

2008ko azaroan Arabako Foru Aldundiak, oso kalitate eta intentzio eztabaidagarriko txostenetan oinarrituta, aztarnategia itxi eta auzibidean jarri zituen Eliseo Gil eta Idoia Filloy, hutsetik hasi eta hamabost urteko lan zehatzaren ondoren hiri erromatarra oso goian ipini zuten arkeologoak.

2009ko urtarrilean ikusi ahal izan genituen azkenik ostraken argazkiak. Eta bat ikusi eta bestea ikusi, "hau ezin da faltsua izan" ziostan barruak. Harrezkero ezinegon kontrolaezin batek eraman nau gaian sakontzera, arkeologoekin eta jende jantziarekin biltzera eta artikuluak eta txostenak idaztera. Ezinegon horren azken emaitza da liburu hau.

Bidean harri eta zur geratu naiz gure politikari abertzale zein ez abertzale gehienen ezjakintasun eta arduragabekeriarekin, eta euskaltzain, filologo, historialari, idazle, kazetari, irakasle... askoren isiltasun ulertezinarekin.

Oraindik garaiz gaude okerrak zuzentzeko. Ea gizarte zibilak kola egokia aurkitzen duen politikariek eta katedradunek hautsitako piezak itsasteko.

Eta ezer baino lehen, nire eskerrik beroenak lan hau egiten lagundu didaten guztiei, eta bereziki testua zuzendu duten Esti Breñas eta Kike Fz de Pinedori.

1

Iruña-Veleiaren historia eta historiak



Koldo eta Xabier Larrañaga

1.1.- Erromatarren konkistaz

K.a. 200 urte inguruan hasi ziren erromatarrak Iberiar penintsula konkistatzen. Ia 200 urte beharko zuten dena kontrolatzeko, kantabriarren aurkako gerrak K.a. 15. urtean amaitu baitziren. Gure esparruari erreparatzen badiogu, Katalunia aldea eta Ebro harana hartu zituzten lehendabizi. 178.

urtean birsortu zuten Gracurris (Alfaro), lehenago Ilurcis deitzen zenaren gainean. Hiri baskoitzat agertzen da Gracurris agirietan, baina zeltiberiarren esku zegoen Graco jeneralak hiria hartu zuenean.

Honek galdera asko uzten ditu aidean: lehendabizi baskoia izango zen, gero zeltiberiarrek eskuratuko zuten, eta erromatarrek baskoien laguntzaz hiria bereganatu zutenean, baskoien esku utzi zuten? Historialariek diote baskoiek eta erromatarrek elkar hartu zutela zeltiberiarren aurka, biei ondo zetorkielako ziurrenik, lehenei galdutako lurrak berreskuratzeko eta bigarrenei beren inperioa handitzeko aliatuak behar zituztelako. Baskoiak eta erromatarrak ondo konpondu zirela dirudi. Kalagorri[1] (Calahorra) izango da baskoien hiri nagusia garai horretatik aurrera.

Nolanahi ere, ehun urte baino gehiagoz geratuta egongo da konkista Nafarroaren eta Errioxaren ekialdean, ematen duenez Iruña-Pompaelo, Nafarroa gehienarekin batera, eta Errioxa Garaia ez baitzituzten K.a. 80. urte ingurura arte bereganatu.

Akitania ere nahiko berandu konkistatu zuten. Mapan ikus dezakegun bezala, Tolosa eta Lugdunum Convenarum (Saint Bertrand de Comminges) aldea 110. urterako eurenak ziren, baina Craso generalak 56. urtean amaitu zuen Akitaniaren konkista, borroka latzen ondoren, haren nagusi Julio Zesarrek *De Bello Galico* liburuan luze eta zabal kontatzen duen bezala.

Uste da barduliar, karistiar eta autrigoien lurraldeak (gaur egungo Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, gutxi gorabehera), 40-30. urte inguruan kontrolatu zituztela, nahiz eta horren

1.- Javier Velaza. “Calagorri: cuestiones en torno al nombre antiguo de Calagorri”. Kalakorikos,1998. Gaia sakon aztertu ondoren, bere jatorrizko izena Kalagorri izango zela dio.

xehetasunik ez dakigun, ez baitago ia ebidentzia dokumentalik. Testuetan ez da aurkitzen borroken berririk. Arkeologiak, berriz, Andagoste-n (Kuartango, Araba) bataila gogor bat izan zela diosku erromatarren eta, ustez, bertakoen artean 30. urte aldera.

Lehen esan bezala, kantabriarrak izan ziren konkistatzen azkenak, 15. urtean azpiratu baitzituzten, Augusto enperadorearen garaian, gerra luzeen ondoren. Uste da Arabako eta Bizkaiko mendebaldea erretagoardia gisa erabili zuela armada erromatarrak.



Koldo eta Xabier Larrañaga

1.2. Tribu edo etniak

Mapan ikus daitezke erromatarrak heldu zirenean eskualde honetan zeuden etnia edo tribuak. Iturriak ez dira garbiegiak eta zalantza asko dago etnia askoren hizkuntzaz, lurralde-mugaz, elkarren arteko senitasunaz, eta baita izenaz ere.

Aditu gehientsuen ustez, euskaraz egiten zuten akitaniarrek (dozena bat etniatan banatuak), baskoiek, bardultiarrek, karistiarrek eta autrigoiek (azken hauek mistoak ote ziren pentsatzen duenik ere bada, euskaldun eta indoeuropar). Pirinio mendien hego-isuriko Jacetaniak, Ilergeteak eta abar ere euskal etniakoak edo hurbilekoak dira batzuentzat eta iberiarrak beste batzuentzat.

Dena dela, bada lerro bat historialarien artean, batez ere espainiarretan, dioena baskoiak bakarrik zirela euskaldun, eta asko jota akitaniarrak, baina beste guztiak indoeuroparrak edo zeltak. Gero itzuliko gara gai honetara "beranduko baskonizazioaz" jarduterakoan.

Ebro ibaiaren azpitik geratzen ziren Errioxa, Aragoi eta Gaztelako lurraldeetako herri gehienak zeltiberiarrak ziren nonbait (etnia eta hizkuntza zeltikokoak, baina iberiar kultura bereganatutakoak, neurri batean bederen, eta alfabeto iberikoa erabiltzen zutenak). Beroiak ere bai gehienen iritziz, nahiz eta hau ere eztabaidatua den eta zenbaitek euskaldunak edo mistoak ote ziren iradoki. Kantabriarren hizkuntzaz ez dakigu gauza handirik, baina badirudi ez zirela euskaldunak erromatarrak heldu zirenean. Katalunia eta Valentzia aldea, berriz, iberiarra zen.

1.3. *Iruña-Veleia* izenaz

Iruña-Veleia esaten zaio gaur Veleia izeneko hiri erromatarra egondako lekuari. Orain ikusiko dugunez, Velia, Oueleia, Velegia edo Belegia ere izendatu izan da antzinako zenbait aipamenetan. Hona hemen testu zaharretan aurkitu ditugunak:

Velia? (I. K.o.): Plinio Zaharra. *In eundem conventum (Cluniensem) Carietes et Vennenses V civitatibus*

Italiako Veleiako foroa

vadunt, quarum sunt Velienses. Pliniok dio Clunia-ko (gaur egun Coruña del Conde, Burgosko probintziaren hego-ekialdean) esparru administratibokoak direla karieteak (karistioak) eta vennenseak (?), eta bost hiri dituztela denera, horien artean vel(e)iatarrak.

Oueleia: (II. K.o.) Claudio Ptolomeo. Grezieraz idatzita (Ούελεια): *Souestasiôn, Toullika, Oueleia...* Asturica-Burdigala bidean dauden herriak izendatzen ditu.

Beleia (III. K.o.): Antoninoren Itinerarioa. *Deobriga, Beleia, Suessatio, Tullonio...* Honek ere galtzadako herriak izendatzen ditu.

Veleia (IV. m.): *Notitia Dignitatum*. (Guda-talde erromatarren kokapenaz ari den agiria). *Tribunus cohortis Primae Gallicae, Veleia.* Agiri honetan esaten da

Euskal usaineko toponimo ligureak Veleia inguruan

Prima Gallica guda-taldea Veleian kokatuta zegoela.

Belegia (IV. m.): Tabula Peuntegeriana. IV. mendeko mapa baten erdi aroko kopia.

Belegia (VII. m.?): Ravenako Anonimoa, *Ravennate* ere deitua.

Velegia (732): Asturiasko Alfonso III.aren kronika. Alfonso I.ak egindako konkistak aipatzean: *Amaiam, Septemancam, Aucam, Velegiam Alabensem*, *Mirandam*...

Velegia (881): Albeldako (Errioxa) Kartularioa. Apezpikuen zerrenda batean aipatzen dira *Alvarus Velegiae, Felmirus Uxomae, Maurus Legione, Arnulfus Astoricae...* Alvarus hau Gasteiztik kilometro gutxira dagoen Bolibarren hilobiratutakoa dela uste da, herri honetan hilarri bat baitago epigrafe honekin: *Obiit Albaro episcopus XIII kls nbris...* ("Alvaro hil da, apezpikua, 888ko azaroko Kalendetan").

Hiria ia guztiz abandonatu zen K.o. VI. mendearen inguruan, eta IX. mende bukaeraz geroztiko iturri guztiek, ahozko zein idatzizko, Iruña deitzen diote lekuari.

Nire ustez, Iruña izango zen leku horretan zegoen Brontze Amaiera/Burdin Aro garaiko herri indigena zaharraren izena. Lekua erromatarren menpe geratu eta hiri berria eraiki zenean, Veleia izenaz birbataiatuko zuten, Italia iparraldean, Piacenzatik gertu, dagoen jatorri ligureko *oppidum* baten izena emanez. Hiria utzi eta desegin zenean, ahoz aho igaroko zen jatorrizko izenak baino ez zuen iraun. Gauza berdintsua gertatu da Irun-Oiasso eta Iruña-Pompaelo (Pamplona) bikoteekin, nahiz eta azkeneko honetan izen biek iraun gaur arte.

Adituek zalantzak zituzten gaur egungo Iruña eta erromatarren garaiko Veleia leku bera zen ala ez erabakitzeko orduan, baina joan den mendean argitu zen arazoa, antzinako testu eta mapak sakon aztertu zirenean.

Iruña-Veleia da gaur egungo izen ofiziala, nahiz eta badiren Iruña soilik edo Veleia soilik esaten diotenak.

1.4. Lekua

Gasteiztik 10 km ingurura dago Iruña-Veleia, hego-mendebaldera, leku ikusgarrian, Zadorra ibaiaren meandro batean. Aldapa luze eta leunean eraikia, bere punturik garaienak, Arkizeko Espoloiak, 70 metroko altuera hartzen du ibaiaren bihurgunearen gainean.

Arabako lautadaren hegoaldeko sarreran kokatua, oso leku estrategikoan, Ebro haranetik Kantauri isurialderako igarobidean. Handik pasatzen zen erromatarren garaian Asturica Augusta (Astorga) - Burdigala (Burdeos) galtzada erromatarra.

Hiriaren kokalekua Zadorraren meandro batean



Euskal Herritik igarotzen ziren galtzadak

1.5. Hiria

Esan dugun bezala, bazen leku horretan hiri indigena bat Brontze Erdi/Amaieraz gero (800 bat urte K.a.). Gutxi iduskatu den arren, haren aztarnak aurkitu dira bai goialdean, Arkizeko Espoloiaren gunean, bai harresi barruko geruza sakonenetan, eta baita hegoaldera jotzen duten beheko lurretan ere.

Badakigu erromatarrek K.a. 40-30ez geroztik kontrolatzen zutela lurraldea eta K.o. I. mendearen lehen partean hasi zirela hiri berria eraikitzen. Hiriaren loraldia lehen mendearen bukaeratik hirugarren mendearen hasiera arte gertatu zen. Hiriak 80 bat hektarea hartzen zituen sasoi hartan eta 6-8 mila biztanle izan zitzakeen.

Lurmen SL

Iruña-Veleiako hegoaldeko atearen irudikapena

III. mendean erromatar inperioak krisi sakona jasan zuen (ekonomikoa, politikoa, militarra), hiriei gogor eragin ziena. Bat baino gehiago desagertu zen. Iruña-Veleia berregituratu egin zen, inguruan 1.200 m-ko harresi handi bat eraikiz. Oraindik 9 m-ko altuera eta 4 edo 5 m-ko lodiera duten hormak kontserbatzen dira zenbait lekutan. Gune populatua 80tik 10 hektareara murriztu zen, harresi barruan biziko baitzen handik aurrera jendea.

Hiriak bizirik jarraitu zuen IV. eta V. mendeetan, eta husten hasi zen VI.ean. Harrezkeroko aztarna dokumental eta arkeologiko gutxi aurkitu da. Uste da, zenbait aipamen sinestera[2], gotzaindegi bat egon zela Iruñan IX. mende aldera, baina ez dago froga zehatzik. Iruña ez dator San Millango Erre-

2.- Aurreko puntuan aipatu den Albeldako Kronikan agertzen da Vele(g)ia azkenekoz, guk dakigunez.

jako herri-zerrendan. Badakigu XIV. mendean bazela San Juanen Ordenako Priorato bat Iruñan, eta eraikin horren hondakinek XIX. mendera arte iraun zutela. Zenbait abizenetan gorde da toponimoa, Martinez de Iruña, esate baterako.

Hiri zaharraren orubea ia batere eraikuntzarik gabe heldu da gaur arte, soroz, zelaiz eta sastrakadiz estalita.

1.6. Aztarnategia

Zorte handia izan dugu ez delako hiri zaharraren orubearen gainean ia batere eraiki. Ia ukitu gabeko aztarnategi baten aurrean gaude. 1.400 bat urtez bizi izan zen jendea: Brontze Erdi/Amaieran (800 bat urte K.a.) hiria sortu, Burdin Aroan jarraitu, erromatar garaian loraldia izan eta VI. mendean ia guztiz desagertu.

Esan daiteke "betidanik" jakin dela Iruñan bazela hiri erromatar bat. Hala eta guztiz ere, nahiz eta XVI. mendeko agirietan jada aipamenak agertu, aztarnategian egin diren lanak oso gutxi eta noizbehinkakoak izan dira duela gutxira arte.

Orain arte induskatutako azalera oso txikia da proportzioan (%5era ez da heltzen). Teknika aurreratuak erabiliz zerutik ateratako argazkiek erakusten dute eraikitako gune handiak egon daitezkeela lurpean, eraikuntza pribatuak zein publikoak, termak, adibidez, edo eta teatro bat.

Aztarnategiaren posibilitateak izugarriak dira. Hau oso garbi geratu zen harresien kanpoan egindako zundaketa kanpainetan. Ia 300 zundaketa egin ziren, eta oso ongi kontserbatutako sekuentzia estratigrafikoak agertu ziren, bi metro lodi edo gehiagokoak ere bai zenbait lekutan.

Indusketen historiari dagokionez, 1866an, Florencio Janer-ek, Arabako Monumentuen Batzordekoak, idatziz



Aire-argazkiaren goialdean lurpeko eraikuntzen aztarnak suma daitezke

jasota geratu diren lehenengo “exploraciones” delakoak burutu zituen. 1900 inguruan, Jaime de Verastegui apaiz eruditoak zenbait indusketa egin zuen harresi barruaren iparraldean, jatorriz tenplua izan eta gero harresia egiteko aprobetxatutako eraikin bat aztertu zuen, adibidez. 1949-1954 bitartean Gratiniano Nieto Gallok hainbat gune induskatu

zituen harresi barruan zein kanpoan. 1974-75 artean, Juan Carlos Elorza Guineak kanpaina bat burutu zuen harresiko ate nagusiaren ondoan.

1994an Eliseo Gilek eta Idoia Filloyk hartu zuten aztarnategia induskatzeko ardura. 2001era arte udako kanpainak burutu zituzten. 2001ean, Lurmen SL Enpresako kide gisa, "Iruña-Veleia III. Milaurtekoa Proiektua" delakoaren barruan, 10 urteko hitzarmena izenpetu zuten Euskotren enpresa publikoarekin, zeina bitan banatu zen 2004an, Eusko Trenbide Sarea sortu zenean, eta biak izango ziren harrezkero babesleak. 2002tik aurrera, eta 2008an aztarnategia itxi zen arte, hamar bat laguneko talde batek egin zuen lan dedikazio osoz proiektuan, udako kanpainetan dozenaka lagun biltzen zitzaiolarik taldeari.

1.7. «Ezohiko grafitoen» aurkikuntza

2005 eta 2006ko ekitaldietan gertatu ziren bereziki "ezohiko grafito" deituen aurkikuntzak. Harresi barruko 5. eta 6. sektoreetan bereziki, baina baita aztarnategiko beste 10 lekutan ere, harresien barruan zein kanpoan. Ehunka grafito agertu ziren (*ostraka* ere deituak). Asko ezohikotzat jo ziren, beren gaia, ikonografia, hizkuntza eta abar zela medio.*

2006ko ekainaren 8an lehen multzoaren berri eman zen prentsaurreko bidez. Aurkezpenean ziren, besteak beste, Juan Santosek Yanguas (EHU-UPVko katedratikoa, Epigrafian aditua eta indusketa-taldearen aholkularia) eta Eliseo Gil, aztarnategiko zuzendaria. Handik astebetera, ekainaren 15ean, beste grafito multzo baten berri eman zen. Oraingoan euskarazkoak zeuden tartean. Egun horretan Henrike Knörr eta Joaquin Gorrochategui euskal hizkuntzalariek

Lurmen SL

Indusketa lanean

lagundu zioten Eliseo Gili. Berriak oihartzun handia izan zuen hedabideetan eta pozez jaso zen.

Une horretara arte, piezak ezagutzen zituen inork ez zuen zalantzan jarri piezak benetakoak zirela.

1.8. Materialak

400 bat[3] grafito dira, zeramika gainean eginak gehienak, nahiz eta ez diren gutxi hezurrean (40 bat), adreiluan eta beiran grabatuak. Arkeologoek II.-V. mendeen artean datatu dituzte, nahiz eta gehienak III.-IV.ekoak izan.

- Grafito batzuek marrazkia dute soilik, beste batzuek marrazkia eta testua, eta beste batzuek testua soilik.
- Askok latinezko testua dute eta mundu greko-erromatarra islatzen dute: pertsonen, jainkoen, enperadoreen eta intelektualen izenak, latinezko esaerak eta abar.

3.- Beste 600 bat dira letra, zeinu, marrazkitxo edo marraren bat dutenak. Denak batuta 1.000ra heltzen dira.

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Proiektua

● Kristau gaikoak ugari dira eta RIP jartzen omen duen kalbarioa da eztabaidatuenetakoa; hurbiletik begiratuta hiru marra direla ikusten da.



AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

- Hieroglifiko egiptoar apaingarri banaka batzuk daude, eta Egipto zaharreko pertsonaia, jainko eta hirien izen zenbait, alfabeto latinoan idatzita.
- Alfabeto greziarrean idatzitako hitz banaka batzuk.
- Euskarazko hitzak eta esaldiak dituzten ostraka ugari (50etik gora), gai kristaukoak zein bestelakoak.
- Marrazkidunen artean eguneroko bizitza islatzen dute batzuek: erretratuak, pertsonen eta abereen irudiak, paisaiak, etab. Erlijio gaiak beste batzuek, gurutzeak eta abar.

1.9. Adituen batzordea

Aurkezpen publikoak egin eta denbora gutxira sortu ziren aurreneko zalantzak. Joaquin Gorrochategui, hizkuntza indoeuroparretako EHUko katedratikoa eta euskarazko grafitoak iragarri ziren prentsaurrekoan parte hartu zuena, ortografia eta gramatika akatsak eta era guztietako anakronismoak ikusten hasi zen latinezko zein euskarazko ostraketan.

Esku beltzak ibili ziren grafito eztabaidagarrienen argazkiak egunkarietara eta Interneteko foroetara filtratzen, eta zaletu eta aditu mordo batek iritzia ematen jardun zuen haien gainean. Badakigu Batzordeko zenbait kidek etengabe parte hartu duela foro horietan joan den hiru urtean, eta ezizenak erabiliz beren txostenak goraipatzen eta Eliseoa Gilen taldea kakazten jardun dutela. Forozaleen multzo handiena faltsutasunaren aldera lerratu zen azkar samar eskaintzen zitzaion informazioa ikusita, eta artean hamar edo hamabost ostrakaren argazkiak baino ezagutzen ez zirenean, eztabaida guneetako iritzia oso makurtuta zegoen alde batera.

2007ko udan Eusko Alkartasuneko Lorena Lopez de Lacallek hartu zuen Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailaren ardura. 2008ko hasieran, Diputazioak adituen "Batzorde Zientifiko Laguntzailea" izendatu zuen; indusketa-taldeari laguntzea zen teorian bere eginkizuna, baina aurkikuntzen benetakotasunaren edo faltsutasunaren gaineko erabakia hartzeko erabili zen praktikan. 13 kidek osatzen zuten, horietako 9 EHUko irakasleak (filologoak, arkeologoak, epigrafistak...), 3 Foru Aldundiko funtzionarioak, eta Eliseo Gil.

Gogora ekarri beharra dago grafito guztiak faltsutzat jo zituen 444/2008 Foru-aginduko erabakia hartu zenean, txosten bakarra zegoela entregatuta Diputazioan. Sarrera-agirietan ikusten denez, besteak poliki-poliki heldu ziren. Nuñez eta Volpe irakasleena, esate baterako, 2008ko abenduaren 4an sartu zen.

Hona hemen txostenen sarrera-datak: Gorrochategui: 2008-VI-25; Ciprés-Santos: 2008-XI-20; Trebollé: 2008-XI-24; Azkarate: 2008-XII-3; Lakarra: 2008-XII-3; Nuñez: 2008-XII-4; Galán: 2008-XII-10; Velazquez: zigilurik gabe; Madariaga: zigilurik gabe; Legarda: zigilurik gabe.

Inoiz ez dira existitu Foru-aginduan aipatzen diren Batzordearen Ondorioak. Ondorioak foru-teknikari batek atera zituen, Felix Lopez de Ullibarri jaunak, oraindik txostenak (bat kenduta) entregatu gabe zeudenean. Eta foru-agindu horrek erabaki zuen grafitoak faltsuak direla eta aztarnategia itxi behar zela.

1.10. Arabako Foru Aldundiak faltsutzat jotzen ditu aurkikuntzak eta itxi egiten du aztarnategia

Horrela, 2008ko azaroaren 19ko goizeko hamarretan hasi zen bosgarrena eta azkena izango zen Adituen Batzordeko bilera. Bertan, batzordeko arkeologo, filologo eta epigrafistek grafitoen faltsutasunaren aldeko beren iritzia adierazi zuten modu batean edo bestean. 14:30ean amaitu zen bilera, eta berehala eman zitzaion eskura Eliseo Gili 444/2008 Foru-agindua, aurrez idatzita zegoena, bistan denez. Haren bidez, oraindik bukatu gabe dauden txosten batzuen ustezko unanimitatean eta sekula idatzi ez diren Batzordearen Ondorioetan oinarrituta, ofizialki faltsutzat jo ziren aurkikuntzak, Iruña-Veleia induskatzeko baimena kendu zitzaion Lurmen SL enpresari, eta itxi egin zen aztarnategia.

Arratsaldeko 16:30ean deituta zeuden Arabako Batzar Nagusiak eta bertara joan ziren Kultura Diputatua eta batzordeko zenbait kide. Agerraldi horretatik berariaz baztertu zituzten Eliseo Gil, indusketen zuzendaria, eta Amelia Baldeon, artean Arabako Arkeologia Museoko Zuzendaria zena.



AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

Batzordekideek beren ondorioak azaldu zituzten batzarkideen aurrean.

Ondoren, prentsaurrekoa eman zuten batzordekide batzuek eta erabakiaren arrazoiak plazaratu. Emandako faltsutasun frogen artean, harridura sortu zuten batzordeko kimikari Madariaga irakaslearen eta Santos Yanguas epigrafistaren azalpenek. Madariagak, nahiz eta bere txostena irakurrita garbi ikusten den ez zuela faltsutasun froga bakar bat ere aurkitu, esan zuen pieza batean manipulazioa antzeman zuela bi zati kolaz itsatsita zeudelako!! Santos Yanguasek, berriz, DESCARTES ipintzen zuela ostraka batean, XVII. mendeko filosofo frantziar baten izena. Esan beharrik ez dago arkeologian kolaz itsasten direla beti hautsitako zatiak eta pieza horretan ez duela Descartes jartzen, MISCAR(-?) baizik, irakurtzen dakien edonork froga dezakeenez.

Notiziak oihartzun itzela izan zuen komunikabideetan eta atsekabe handia sortu zuen iritzi publikoan. Handik bi egunera, Eliseo Gilek piezen benetakotasuna defendatu zuen prentsaurreko baten bidez. Baina iritzi publikoak "faltsutasun froga argi eta eztabaidaezinen" eraginpean, ontzat eman zuen bertsio ofiziala. Kasua betiko itxita geratu zela zirudien. Handik egun gutxira, Kultura Diputatuak iragarri zuen fiskalaren esku utziko zuela dokumentazio guztia, hain nabarmena zen delitua iker dezan.

1.11. Txostenak eta argazkiak argitaratzen dira

2009ko urtarrilaren 14an, Arabako Foru Aldundiak bere www.alava.net gunean argitaratu zituen ordura arte gaiari buruz egindako txostenak, ostraken argazkiekin eta Batzor-

dearen bileretako aktekin batera. Esan beharra dago egun horretara arte, nahiz eta erabaki ikaragarriak hartuta eta milaka orrialde idatzita egon, ez zela ezagutzen Batzordearen txosten oso bakar bat ere, eta hedabideek argitaratutako ostraken argazkiak ez zirela hogeitik pasatzen.

Txostenak: Foru Aldundiak bere 444/2008 Foru-aginduan esaten du "unanimitate zientifikoa" dagoela faltsutasunaren inguruan, eta hedabideek askotan errepikatu dute "adituen 26 txostenek" diotela grafitoak faltsuak direla. Ez da egia inondik ere. Goian aipaturiko gunea begiratzen badugu, hogeita hamar bat txosten aurkituko ditugu, batzuk Foru Aldundiak eskatutakoak eta indusketa-taldeak beste batzuk. Batzordeak idatziriko txostenak 10 izan ziren, ez bat gehiago eta ez bat gutxiago, eta arretaz irakurtzen dituena jabetuko da 8 direla faltsutasunaren aldekoak edo esandako garaikoak ezin direla izan diotenak: Arkeologia metodoaz ari den Azkarate eta beste hiru kiderena, Ikonografiaz ari den Nuñez-Volperena, Filologiaz ari diren Gorrochateguirena eta Lakarrarena, Paleografiaz eta Epigrafiaz ari den Santos-Cipresena, eta latinaz ari den Isabel Velazquezena. Eta, neurri handi batean, hebreeraz ari den Trebolle-rena eta gai egiptoarrez ari den Galan-ena. Legardarenak ez du ganorazko ezer esaten eta Madariagarenak, berriz, ez du ondorio garbirik ateratzen, oraintxe ikusiko dugun bezala.

Zentzu honetan esan beharra dago grafitoen edukiari buruzko txostenek grafitoak erromatarren garaian eginak izateko posibilitateaz edo posibilitate ezaz mintza zitezkeela bakarrik, baina ezin zutela frogatu faltsifikaziorik egon den ala ez, eta gutxiago faltsifikazio hori gaur egungoa denik. Gaur egungo faltsifikazioa dela frogatu zezakeen gauza bakarra azterketa analitikoa zen. Baina Madariaga, batzordeko kimikaria, 9 pieza bakarrik aztertuta gero, ondorio honetara heltzen

da: "Ematen du aztertutako piezak edo lurperatuta egon direla, edo azkar zahartzeko prozesu bat jasan dutela". Hemendik ateratzen den ondorioa garbia da: Madariagak ez zuela aurkitu faltsuak direla esateko ebidentzia kimikorik, ez baitu inolako frogarik eskaintzen "azkar zahartzeko prozesu bat" jasan dutela esateko. Nolanahi ere, ondorio honetara heltzen da azkenean: "Kimikaren ikuspuntutik ezin da baieztatu ez piezak benetakoak direnik eta ezta faltsuak direnik ere".

Argazkiak: 800etik gora, nahasi samar ipiniak aipaturiko webgunean. Garbi dago zenbait falta dela, txostenetan aipaturiko batzuk ez baitira agertzen.

1.12. Eztabaida berpizten da

Nahiz eta bazirudien prentsak bukatutzat eman zuela gaia, eztabaida berpiztu egin zen Interneten txostenak eta argazkiak argitaratu zirenean. Koenraad Van den Driessche geologo belgikarrak zalantzan jarri zuen Madariagaren txosten kimikoa *Terraeantiquae* foroan, eta *ostraka.mundua.com* blogak jarraipen zehatza egin zion gaiari, benetakotasunaren aldeko jarrera hartuz. Esku arteko liburu honen egileak artikulu bat idatzi zuen Berria egunkarian 2009ko otsailaren hasieran, *Iruña-Veleia, seguru zaudete?* izenburuarekin, Interneten esekitako testu-azterketa labur batez lagunduta, non eztabaidatzen ziren Lakarra eta Gorrochategui irakasleek erabilitako argudioak. Aipatuko bi filologoek elkarrizketa baten bidez erantzun zuten Berrian (martxoak 6), elkarrizketatuen esaldi bat zuena izenburu: *Gu seguru gaude.* Hona hemen auzian pertsonaia klabeak diren bi filologoek elkarrizketan esandako zenbait gauza, gure ustez primeran laburbiltzen dutenak arazoaren muina: *Oraindik batzuk ari dira*

ea piezak benetakoak izan daitezkeen galdezka. Froga gehiago egin behar direla laborategian, patina zehazteko. Baina hori hasieratik bide txarra hartzea da. Zer da auzitan dagoena? Testuak. Testuen gainean zeinek esan behar du esan beharrekoa? Filologoek. Eta filologoek diotena onartu behar da. -Aukera dago batzuk benetakoak izateko? -*Euskarazkoak ez, eta latinezkoak ere ez.*

Martxoan, Gasteizko Geu aldizkariaren 193. alean, Eliseo Gil eta Idoia Filloyk sinatutako *Euskal Ostraka* lana argitaratu zen, euskal ostraken argazki eta transkripzioekin, www.veleia.com orrian ere eskegiko zena, euskaraz eta erdaraz.

Euskararen Jatorriak lehen hitzaldi bat antolatu zuen Donostian Van den Driessche eta Elexpururekin otsailaren 23an, eta bigarren bat Langraizen maiatzaren 23an, aipaturiko biekin eta Gil eta Filloyrekin. Bartzelonako Euskal Etxean Gorrochategui, Van den Driessche eta Velaza epigrafista mintzatu ziren martxoaren 19an. Hitzaldi gehiago ere egin zen, eta Gasteizko Goiuri/Villa Suso jauregikoa izan zen jendetsuena: 300 bat lagunen aurrean, Idoia Filloy eta Eliseo Gil arkeologoek, Koenraad Van den Driessche geologoak eta Juan Martin Elexpuru filologoak grafitoen benetakotasunaren aldeko argudioak plazaratu zituzten uztailaren 7an.

Aldi berean, benetakotasunaren aldeko bi txosten argitaratu ziren Interneten: maiatzean, *Comentarios y objeciones a los informes de los profesores Gorrochategui y Lakarra sobre los grafitos en euskera de Iruña-Veleia* titulua duena, Euskal Filologian doktorea den Juan Martin Elexpururena, neurea, alegia; eta ekainean, *El problema de la falsedad/autenticidad de los ostracones de Veleia: Evidencias físicas* izenekoa, Geologian doktore den Koenraad Van den Driesscherena. Hilabete berean, Xabi Otsoa de Alda Geografia eta

Historian lizentziatuak iritzi-artikulua argitaratu zuen Diario de Noticias de Alava egunkarian auziaren analisi eta laburpen zehatza eginez eta benetakotasunaren aldeko jarrera hartuz.

Urriaren erdi aldera, Hector Iglesiasek, filologian doktore eta Baiona-Bordele Unibertsitateko eta CNRSko kide denak, benetako lurrikara sortuko zuen txostena plazaratu zuen Interneten: *Les inscriptions de Veleia-Iruña*.[4]

1.13. Auziaren egoera 2009ko udazkenaren hasieran

Irailaren hasieran jakin zen 1. epaitegiko epaileak Idoia Filloy eta Eliseo Gilen aurka ETSk jarritako kereila artxibatzea erabaki zuela. Gauzak normal joatera, Euskotrenenak ere bide berbera jarraitu beharko luke, bata bestearen kopiak baitira. Baina gaur gaurkoz, urriaren hasieran, ez dago honi buruzko berririk, eta ezta bestearenik ere, Foru Aldundiak jarritakoarenik, hain zuzen.

Irailaren erdi aldera agertu zen egunkarietan, euskaraz eta erdaraz, Maritxu Goikoetxea Gasteizko zinegotzi ohiaren iritzi-artikulua, *Iruña-Veleia: historias para no dormir / Iruña-Veleia: amesgaizto baten historia*. Bertan, diputazioaren erabakiak arkeologoei eragindako kalte profesional, ekonomiko eta humanoez ari da.

Bestalde, Idoia Filloyk bere txosten berritua argitaratu zuen lau ataletan banatuta: Ikonografia, Latina, Onomastika eta Paleografia.

4.- Hector Iglesias: *Les inscriptions de Veleia-Iruña*. Artxiker aldizkaria. http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00423946/eu/

Urriaren 7an herritarren plataforma batek manifestu bat kaleratuko du Gasteizen, erakunde publikoei auzia argitzeko behar diren neurriak hartzeko eskatuz.

Urriaren 15ean Ruben Cerdán inputatutako fisikari nuklearrak deklaratu zuen epailearen aurrean. 2006an, grafitoei buruzko susmoak agertu zirenean, Arabako Foru Aldundiak aurkeztu zion fisikari hau Lurmen enpresari. Ordurako zenbait lan egina zen AFArentzat, Urizaharrako anbarraren gaian, adibidez. Patinaren jarraikortasunean oinarritutako datazio-metodo bat proposatu zuen, eta 60 bat pieza eraman zituen Frantziako CNRS laborategi batean analisiak egiteko. Handik denbora batera piezak itzuli eta txostena egin zuen. Txostenean zeramiken azalerako eta ildoetako patinaren artean jarraipena zegoela baieztatzen zuen, eta ondorioz zeramikak eta epigrafeak garai berekoak zirela. Benetakotasunaren aldeko aztarna sendotzat hartu zen. Baina 2009ko urriko deklarazioan analisien agiriak eskatu zitzaizkionean, ez zituen erakutsi. Eginak daudela esan zuen berriz ere, baina ez zuen horren frogarik aurkeztu. Epaileak argitu beharko du auzia. Urriaren 26ko prentsaurrekoan, Eliseo Gil eta Idoia Filloyk zera esan zuten: baldin eta frogatuko balitz analisiak ez zirela egin, eurak izango liratekeela lehen kaltetuak eta neurriak hartuko lituzketela.

Urriko egun honetan agertu ziren Eliseo Gil eta Idoia Filloy prentsa aurrera lehenengoz ia urtebetean. Benetakotasunaren eta arkeologoen metodo arkeologikoaren egokitasunaren aldeko 13 txosten mardul aurkeztu zituzten.

1.14. Foru Aldundiak EHUri ematen dio aztarnategia

2009ko azaroaren 3an, Arabako Foru Aldundiak eta EHUk sinatutako hitzarmenaren berri jakin zen. Unibertsitateko Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Sailari eman zitzaion aztarnategiko lanen koordinazio-ardura hurrengo hamar urterako. Hasteko, 100.000 euro entregatu zitzaion plana idatz zezan urte bukaerarako. Idatzi besterik ez. Erdia sinatzeko momentuan eta beste erdia bukatutakoan. Hitzarmenaren hirugarren puntuak sekretua agintzen du: "Konfidentzialtasuna: alde biek hitz ematen dute komenio hau egin bitartean eta beronen kariaz lorturiko informazioak isilpean mantentzeko."

Julio Nuñez Marcen jauna, EHUko Arkeologia saileko irakaslea, izendatu zen planaren arduradun, eta itxura guztien arabera bera izango da Iruña-Veleiako hurrengo zuzendaria. Esan beharra dago Nuñezen txostena izan zela Eliseoren taldearen aurka egindakoen artean eskasena. Nuñezek esaten du, besteak beste, "inposibleak" direla lau hankako mahaiak, marra erdian duten emakume-orrazkerak, arrain-isatseko emakume-irudiak edo eta Iruña-Veleian agertzen diren gisako eszena erotikoak. Idoia Filloyk Ikonografiari buruzko txostenean puntuz puntu erantzun eta ezeztatu zuen.

Egun berean ezagutu ziren Nuñezen talde berriko kideen izenak. Hemezortzi adituen artean Joaquin Gorrochategui irakaslea, hizkuntza indoeuroparretako katedraduna, da euskaldun bakarra. Izenen artean ez da ageri ez epigrafistarik, ez latin bulgarrean aditurik eta ezta euskal filologo edo arkeologorik.

Baina, mundu guztiaren harridurarako, mezu hau jaso zen hurrengo egunean hainbat hedabidetan: *"En relación con las noticias que han aparecido en el día de hoy en las que se*

informa del encargo de un nuevo Plan Director para el yacimiento de Iruña durante los próximos 10 años que será elaborado por la UPV a través del Departamento de Geografía, Prehistoria y Arqueología, querría señalar que se trata de una iniciativa individual del Prof. Julio Nuñez, y que los restantes miembros del Área de conocimiento hemos conocido los detalles de este convenio a través delos medios de comunicación. Fdo. Juan Antonio Quirós Castillo, Coordinador del Área de Arqueología."

Idoia Filloyk iritzi-artikulu hunkigarri bat argitaratu zuen azaroaren 11ko Noticias de Alavan hitzarmena hizpide hartuta. Besteak beste dio akordioan aurreikusten diren lanak eginak daudela jada, eta ulertezina dela hutsetik hasten diren itxurak egiten ibiltzea.

1.15. Lurmen kanporatu eta aztarnategia itxi zeneko urteurrena (2009-XI-19)

Azaroaren 19an, lotsagarrikeriaren egunaren urteurrenean, Eliseo Gilek eta Idoia Filloyk idatzi bat kaleratu zuten zera zioena, besteak beste : 1) Inolako frogarik gabe kanporatu eta auziperatu zituztela, gezurrezko "unanimitate zientifikoa" aitzakia harturik, artean txosten bakarra zegoenean entregatuta. Urtebete igaro dela eta ez dela euren aurkako frogarik aurkeztu, baina euren ibilbide profesionala zapuztuta eta izen ona kakaztuta geratu dela. 2) Diputazioak uko egiten diola auzia argitzeko hain beharrezkoak diren froga fisikoak egiteari. 3) Zientifikoa dela eztabaida funtsean eta biltzar bat antolatzeko asmoa dutela horretan sakontzeko.

Abenduan Koen Van Den Driesschek eta Idoia Filloyk www.sos-irunaveleia.org webgune berria aurkeztu zuten.

Aztarnategiari eta auziari buruzko informazio zabala eta eguneratua eskaintzen du euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez. Eztabaida-foro ere bada.

1.16. Eliseo Gil omen da faltsutzailea!

Liburu hau ia inprentan zela jakin genuen berria. Azaroaren 21eko Correok titular hau zekarren lehen orrian. "Grafólogos apuntan a Eliseo Gil como el autor de los falsos grafitos de Veleia". Diputazioak enkargatutako lehen grafologia txostena martxokoa da, eta zera dio ondorioetan: "Debido a ello y para extremar la prudencia esta perito entiende que no puede concluir asegurando que la mano que ha realizado los grafitos de las"letrinas" haya realizado también parte o gran parte de la de los yacimientos, si bien insiste que muchas coincidencias tan peculiares así lo sugieren, pero lo que realmente puede afirmar es que es significativo y sorprendente el paralelismo, entendiendo que es excesivo para ser simplemente fruto del azar".

Baina Diputazioak ez zuen etsi beraren aldeko txosten argiak lortu arte, diru publikoz galanki ordainduak, jakina. Badirudi beste bi txosten aurkeztu berri dituela, Correoren informaziotik ondoriozta daitekeenez. Oso ongi arrazoituak omen daude, ikusi bestela pasarte hau: "las concordancias se establecen por la utilización de herramientas gráficas procedentes de una misma red neuronal y trasladadas al soporte a partir de una integración neuromuscular y de coordinación visomotora única, que no puede significar sino que ha intervenido un único motor". Harrapa zak/n. Eliseo Gilek berehala erantzun zuen idatzi baten bidez. Zatitxo hau ekartzen dugu:

"Así me caigan 500 años y un día seguiré afirmando categóricamente que creo firmemente que los hallazgos son buenos, que son posibles en la cronología propuesta por nosotros y, desde luego, que yo no he realizado ninguno de ellos. Y ya no es sólo una cuestión de presunción de inocencia lo que se debate, es una cuestión de abuso de poder y juicio público en paralelo."



Grafitoak agertutako tokiak kolorez, grafitorik gabeko zundaketak beltzez

2

Euskarazko ostrakak

2.1.- Zenbat eta non

Berrogeita hamar bat ostraka eta hirurogeita hamabost bat alde zenbatu ditugu euskarazko hitzekin. Ez dira zenbaki zehatzak, zenbaitetan ez dakigulako ikusten den hitza edo hitz zatia euskarazkoa den ala ez. Alde bietatik idatzita daude asko, eta bada ertz edo ezpainetan hitzak dituen bat edo beste ere. Hona hemen zenbaki nagusiak

Zenbat euskal ostraka eta hitz

Euskal grafitoak denera	Idatzitako aldeak	Euskal hitz arrunt ezberdinak	Errepikatuak barne	Euskal grafitoetako euskal + bestelako hitzak
52	75	70	170	245

Piezak agertutako lekuak

Harresi barruan

3. sektorea	5. sektorea	6. sektorea	12. sektorea
Pieza 1	2 pieza	23 pieza, 35 alde	4 pieza, 5 alde
Sarrera nagusian	*Pompeia Valentinaren Domusa*. Ia 300 ostraka agertu ziren, latinezkoak, hieroglifikoak, marrazkiak eta abar. Euskarazkoak pare bat bakarrik	*Mosaikoen* edo *Errosetoien Etxea*, aurrekoaren ondoan dagoena, kale batek bereizita. Euskarazko mordoa. Gaiak: eguneroko bizitza estratu zaharrenetan (8. eta 13. barrutietan eta 6180 UE-an. K.o. II. mendearen bukaera?). Ebangelizazio giro judu-kristaua berrienetan (6076 UE. III-IV K.o.). Hemen agertzen dira *geure ata zutan* ia guztiak eta *Aitagurea*ren zati gehienak	Erdialdean

Harresi kanpoan

28. zund.	32. zund.	47. z.	60. z.	105. z.	120. z.	Testuinguru gabe
3, 5 alde	14, 18 alde	1	1	1	1	3
Tartean NIIVR CORDV MAI polemikoa	Balio handiko piezak. Gaiak: eguneroko bizitza, gurutz-iltzatzeak, *Veleia Nova* eta *Veleia Gori*, eta abar. Ez dago arrasto kristau garbirik eta ez da 6. sektorean hain ugaria den *geure ata*-rik agertzen.			hilobiratua Eta platera. Harresitik 200 bat metrora, hegoaldera.		Mugitutako lurretan agertutakoak, tartean ISAR X VRDIN

Harresiaren kanpoan 2x2 m-ko ia 300 zundaketa egin ziren 2005 eta 2006 urteetan eta euskarazko ostrakak aurkitu ziren horietako 6tan. 32.a oso emankorra izan zen.

2.2.- Argazkiak eta transkripzioak

Hona hemen euskarazko ostraken argazkiak eta transkripzioak. Pieza bakoitza agertu den sektorea, barrutia (batzuetan) eta unitate estratigrafikoa seinalatu nahi izan dira. Garrantzitsua iruditzen zaigu pieza bakoitza bere testuinguruan kokatzeko. Euskarazkoekin batera agertu diren beste piezen berri ematea ere oso inportantea litzateke, baina beste baterako utziko dugu hori. Eliseo Gilen txosten arkeologikoa irakurtzeko gomendatzen diogu gaian murgildu nahi duenari. Hona hemen hiztegitxo bat geruza eta sektoreen labirintoan gehiegi ez galtzeko:

Sektorea: harresi barruko eremua zatitu den 12 zatietako bakoitza.

Barrutia: Sektore barruko azpizatia.

Unitate Estratigrafikoa (UE): pieza agertu den estratoa edo geruza. Zenbat eta zenbaki handiagoa, orduan eta sakonago unitate horretan.

Zundaketa: Harresiaren kanpoaldean egindako 2x2 m-ko kata.

3. Sektorea

Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

21658) NAHI / SIIT / SVMO / λIBERATE; 3. sektorea, 3001-B UE
Nahi, *Set*, pertsona izena edo pertsonaia biblikoa?; *sumo*, "*summus*"en ablatiboa agian, "azkenean"; *liberate*, *liberatus,-a, -um*, liberatuak, askatuak, edo *liberare* aditzaren inperatiboa. Ausardia handiz, bi interpretazio posible proposatzen ditut. "Nahi (pertsona izena) eta Set azkenean askatuak", edo "Set askatua izan dadila nahi dut"[5]. *Naia*-k falta duen hatxea aurkitzen zaio *nahi*-ri. Idazki hau buztinezko *pondus* batean (ehundegiaren kontrapisua) dago, eta 2008ko jardunaldian aurkitu zen, Arabako Foru Aldundiak aztarnategia itxi aurretxoan.

5.- Iglesiasek (159. o.) *Nahis et Simo* (bi pertsona-izen) *liberate* ("aska itzazue") ulertzen du. Argazkia ikusita, ezetz esango nuke.

5. Sektorea

Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

10599) VRSO // VRSI // VR; 5. sektorea
Uso, "paloma"? ala latinezeko *ursus*, hartza? // aurreko gauza bera, baina latinezko genitboan? // ura. Pitxar baten pusketetan idatzita. Hitz-jokoa dirudi.

Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

11037) VR; 5. sektorea, 59. barrutia, 51144 UE
Ura.

6. Sektorea

Quintas Arg., J/V III. Milurtea Proiektua

13335) BIIR / NA / BICI ?; 6. sektorea, UE 6182
? / naiz / bizi.

Quintas Arg., J/V III. Milurtea Proiektua

13349) GIV / SALII; 6. sektorea, 6181 UE
Gev-ren errata?, *saldu* aditzetik?

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Projektua

13361a) NIIRII / ```ATA´´´ , ZII / YAVH / TA; 6. sektorea, 8. barrutia, 6076 UE
Nere ata / ? / Yavhe da.

13361b) II / II ```AT.
? / ? *at[a],* aita (zerukoa, ziurrenik, jainkotasun-markak (```) dituelako.

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Projektua

13362a) SAMVIIL, ```YAVHII´´´ FILI; 6. sektorea, 8. barrutia, 6076 UE
Samuel Yavheren semea (latina). Jainkotasun-markak hemen ere.

13362b) IN NOMINE PAT./ ATARE IZAN
In nomine pather: aitaren izenean (latina)/ *aitaren izen[ean](*euskara).

Quintas Arg., J/V III. Milurtea Proiektua

13363) YAVHII / GIIVRII ATA; 6. sektorea, 8. barrutia, 6076 UE
Yavhe geure aita. Adreilu gogorrean egina. Labean egosi aurretik egindako ebakidura edo inzisioak, itxura guztien arabera.



Quintas Arg., J/V III. Milurtea Proiektua

13364) GIIVRII ```ATA´´´ ZVTAN/ RIIINV ```IIISVS´´´ TA / IIGIN BADI ZVR; 6. sektorea, 8. barrutia, 6076 UE
Geure aita zutan; *zeruetan?* (Aitagurea-ren hasiera, ziur asko) / reinu (erreinua), Jesus da / egin bedi zure (*borondatea* izan ohi da hurrengo hitza ohiko Aitagurean).

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Proiektua

13366) NA; 6. sektorea, 8. barrutia, UE 6076.
Naiz?

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Proiektua

13367) IAN / TA / IIDAN / DII-NO[S] ; 6. sektorea, 8. barrutia, 6076 UE
Jan eta edan Denos (pertsona izena, ziurrenik nahiz eta *denok* zentzua ere ezin den baztertu).

13368a) IIISVS, IOSHE ATA / TAMIRIAN AMA; 6. sektorea, 8. barrutia, 6076 UE
Jose Jesusen aita eta Mirian ama.

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Proiektua

13368b) DENOS / ZVRII / NAIA
Denos (pertsona izena?) zuen anaia. (Ala, denok zure nahia, "borondatea"?).

13369) SAMVIIL, MARIO / VIILIIIAN IAVN; 6. sektorea, 8. barrutia, 6076 UE
Samuel, Mario Veleian jaun.

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Proiektua

13371a) GIIVRII ATA ZVTAN
GIIVRII; 6. sektorea, 8. barrutia, 6076 UE
Geure aita zeruetan/ geure

13371b) ```YAVHII´´´ / ZVTAN / IZANA
Yavhe zeruetan zaudena? Aitagurearen hasieraren bi aldaera, gure ustez. Jainkotasun-markak hemen ere.

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Proiektua

13374a) IIISVS /YAFII / MIRIA[N] / IIXVII; 6. sektorea, 8. barrutia, 6076 UE
Jesus, Yavhe, Mirian / ?

13374b) SAMV[IIL] / VII-LIII[AN] / [P]ATHII[R] / DAN[A]
S a m u [e l] / V e l e i [a n] / [P]athe[r]/ dan[a],
Samuel Veleian Pater dana (buruzagi espirituala, ziurrenik).

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Proiektua

Quintas Arg., J/V III. Milurtea Proiektua

13380) SAMVIIL IIISVS NIITO / VIILIIIAN / PATHIIR PONTIFICII; 6. sektorea, 8. barrutia, 6076 UE
Samuel / Iesus Neto / Veleian Pather Pontifice. Argazkian ez dira letra batzuk ikusten atzealdean daudelako.

Quintas Arg., J/V III. Milurtea Proiektua

13381) ```IIISHV / MI; 6. sektorea, 8. barrutia, 6076 UE
Jesus / Mirian?

Quintas Arg., J/V III. Milurtea Proiektua

13393) ATA-AMA / NIIBA-RIIBA / SIIBA-SABA / MONA; 6. sektorea,, 8. barrutia, 6180 UE
aita-ama / neba-(a)rreba / (i)seba-(o)saba / (a)mona[6]

Quintas Arg., J/V III. Milurtea Proiekt.

13394a) III NIIV NAIA, NIIVRII; 6. sektorea, 8. barrutia, 6180 UE
3 neu (a)naia, neure; (hiru anaia ditut??).
13394b) MARCVVS LAGVN / IAII
Marcus lagun / ?

Quintas Arg., / V Ill. Milurtea Proiektua

13395a) LVRA / SVA; 6. sektorea, 8. barrutia, 6180 UE
Lurra/ sua
13395b) ILAR / O
Ilargia? / O (biribil hau ilargiaren marrazkia izan daiteke). Hasieran *ilar* = "guisante" iritzi nion, baina *lura* eta *sua*-rekin batera dagoenez, ilargia izan liteke.

6.- Iglesiasek (84. o.) pertsona-izen zelta dela dio.

13396a) AI II , I / I , LIIIO, GI, MAI / IIDA, IAN / SVTI; 6. sektorea, 8. barrutia, 6180 UE
?, ?/ ? leiho?, *egin* edo *ogi*?, mahai?, edan, jan, zuti(k)?
13396b) EDA / IAN / LO
Edan / jan / lo.

13397a) BIITA, ZVRI, AROS / VRDIN, GORY, / ANA, BIIR?; 6. sektorea, 8. barrutia, 6180 UE
Be[l]t[z]a, zuri, ar(r)os(a) / urdin, gor(r)i / ?, ber[de]?

13397b) NIIVRII / ZIIVRII/ IIV
Neure/ zeure/ ?

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Proiektua

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Proiektua

13398a) BIITI; 6. sektorea, 8. barrutia, UE 6180 Beti

13398b) IINTV/ [N]IIVRII/ CODRII edo CORDII / RII entzun / neure/ bihotza?; "entzun neure bihotzari?" (*cor, cordis,* latina,). Amodio-aitorpena?

Quintas Arg., I/V III. Milurtea Proiektua

13401) NIIVR[II] / AMIIT; 6. sektorea, 8. barrutia, 6202 UE Neure amet[s]. Amodio-aitorpena?

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

13411a) ATA/ AMA/ NIIVRE GI /V; 6. sektorea, 8. barrutia, 6188 UE
Aita/ ama/ neure (o)gi??, edo, egin??)/ 5?

13411b) EL NEV / VIIRG
EL (jainkotasunaren siglak?) neu / birgina? Beiraren gainean idatzita, oso gaizki irakurtzen da.

13412a?) ZVIINII; 6. sektorea, 8. barrutia, 6188 UE
Zuena? edo *zu ene*? Ez dago argazkirik.
13412b?) EL, NIIV / GIATV LA/ ESQVERO
EL (jainkotasunaren siglak?), neu / giatu la???/ *-ez gero,* baldintzako posposizioa? Lakarrak aipatzen du (19. o.).

13413) NII; 6. sektorea, 8. barrutia, 6188 UE
Neu?

12. Sektorea

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

10775) IIRIA/ AVDIA; 12. sektorea, 12030 UE
Herria?, haundia?, edo *audire*-tik?, "entzun" (latina).

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

10817) OGIA I / PYRA; 12. sektorea, 12031 UE
Ogiari?, sua? (*pyros* grezieraz, *pyra* latinez). "ogiari sua", agian?

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

13234a) VIILIIIA NOVA, 12. sektorea, 12077 UE Veleia Berria. Ik. Veleia(n) Gori, 16364, 16365b, 16366

13234b) IN VII-LII[IA] VICI Veleian bizi. Deigarria latinezko preposizioa.

28. Sektorea

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

13709a) NIIVRII AT / ZIIT BI / NII // VNI; 28. zundaketa, 28099 UE
Neure aita/ ?/ ?/ ? // ?

13709b) IIAII
Haie(k)??

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

13711) IIRII TA SV; 28. zundaketa, 28099 UE
Er(r)e eta su?

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

13858) NIIVR CORDV MAI; 28. zundaketa, 28099 UE
Neure zordunai, gehienen interpretazioari kasu egitera. Aitagurea-ko hitzak. Dena dela, ezin alde batera utzi beste hipotesi bat ere: *meo corde*, *codre* edo *cuore,* behin baino gehiagotan agertzen da, amodio-aitorpen itxurarekin. Euskarazkoetan [N]IIVRII/ CODRII edo CORDII (13398b) ere bai. Ez ote amodio-aitorpen bat: "neure bihotz mai-tea"?? Kontu izan zundaketa honetan ez dela Aitagurearen edo kristautasunaren beste arrastorik azaldu, eta *neure* jartzen duela, Aitagure klasikoek *"geure" zordunei* dioten bitartean.

32. Sektorea

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15910) NIIVrII / AMA, RO / MAN / ILTA, CIS / TIANA; 32. zundaketa, 32005 UE
Neure ama (E)rroman hil da (edo hilda), Cristiana?

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15912) NIIVRII ATA / GAV[R] ILTA / NIIVRII AM[A]; 32. zundaketa, 32005 UE
Neure aita gaur hil da (edo hilda), / neure ama

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15916) NIIVRII /ATA; 32. zundaketa, UE 32005
Neure aita.



AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15917) NIIV MI / TA RIIBA / II LABA; 32. zundaketa, 32005 UE
Neu Mi (Mirian, pertsona izena?) / eta (ar)reba/ bi (a)laba.

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15920) NIIV XII / VRT[E] TV, III / RIIBA TV, NIIV / CII; 32. zundaketa, 32005 UE
12 urte ditut, 3 (ar)reba ditut / neu / ce (ziurrenik letrak egongo dira idatzita kostraren azpian).



AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15921) VIILII / IAN OSO / LAGVN , MARCVS / N; 32. zundaketa, 32005 UE
Veleia osoan lagun Marcus; edo, Veleian oso laguna (da) Marcus (??).

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15922) NIIV / CORNII / ESKON; 32. zundaketa, 32005 UE
Neu Corne(lio/lia)rekin ezkontzen naiz; edo, neu Corne(lio/lia) ezkontzen naiz (??)

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15923a) MARIA / AMA / IITXII; 32. zundaketa, 32005-5 UE
Maria/ ama/ etxe; edo, Maria/ ama/ eta 12?; (“apostoluak”, agian?)

15923b) Etxe baten marrazkia?

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15924) HAIII[?] / ZVTI(K/R?) / VOLA; 32. zundaketa, 32005-C UE
Haie(k?) / zutik? (zentzuagatik *zutik* dirudi, baina irakurri *zutir* egiten dela esan daiteke) / vola: *volo: "*nahi dut": latinezko berbatik agian??

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15925) NIIV XII VR[TE] / NIIVRII AM[A]; 32. zundaketa, 32005-E UE
Neu(k) 12 urte (ditut) / neure ama.

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

16362a)) TV, ? RE/ BA I (edo TV LAIKE/ BA I); 32. zundaketa, 32005-A UE du?, neure? *(ar)rebai?;* lehen partean ez da ia ezer irakurtzen. TV LAIKII BA I, proposatu izan da, baina atzealdekoa *neu elosi* (erosi) *nebai* ulertu daitekeenez, litekeenagoa iruditzen zaigu goian proposaturikoa. (Ik 16362b, 16363a eta 16365a).

16362b) NIIV IILOSI / (ρως? /NIIBA I

Neu(k) (emakumea) (zerbait) erosi diot nebai. *Elosi* pertsona-izentzat hartu izan da, baina norbaitek *elosi* eta *erosi*-ren arteko kidetasuna antzeman zuen, grezieraz hizkiekin idatzitako berbetan erreparatuta: 16362b (ρως?), 16363a (ρως i), eta 16365a (ηλος). *Erosi,* izan liteke.

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

16363a) NII ELOSI ρως i? / TA NIITRII? / AMA; 32. zundaketa, 32005-E UE
Neu? erosi? *(e)rosi* (greziar alfabetoz, azken *i*-a ezik) ta neure?

16363b) MIRTO/ OVSTA/ TA II, TARO / MA
Mirto/ ??/ eta 2? , eta? Roma. Ez dago argazkirik

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

16364) NIIV VIILIIIAN / GORI BISI NA; 32. zundaketa, 32005-E UE
Neu Veleia Goian (Goikoan) bizi naiz (?)





AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

16365a) NIIV LAIKI / (ηλιος?)[7] NA , / XI VRTII TV / VIILIIIAN / GORI / BISI TA / ES TA; 32. zundaketa, 32005-E UE
Neu Laiki (pertsona izena?) *eros*, grezierazko letrekin? *Laiki,* edo *Laike, egin*-en baldintza ondorioa, *legike,* ere izan liteke: "nik zerbait eros nezake"??/ 11 urte du/ Veleia Goikoan? bizi da/ ez da? (Ik. 16362a y 16363b).

16365b) VIILIIIA NO/ VVA BANA / OSO V POLI / TA, NIIV / RII ATA / ARAINA / ARRAPA
Veleia Nova (Berria) baina? oso v? polita / neure aita(k) ar(r)aina arrapa.

7.- Zenbaitek ηλιος (*elios*, eguzkia) interpretatzen du.

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

16366) ??? TA / VIIL[IIIA]N GORI; 32. zundaketa, 32005-E UE
??? da / Veleia Goian (?)

47. Sektorea

Iruña/Veleia III. Milurtea Proiektua

14469) VIILIII[A] NOVA VELIII[A] GORI; 47. zundaketa, 47002 UE
Veleia Nova, Veleia Berria izan liteke eta Veleia Gori, berriz, Veleia *Goi* edo *Goiri-Goiuri*, Veleia Goikoa, beharbada, goiko, herri zaharra. Bide-mapa antzeko baten marrazkian idatzia; oso gaizki irakurtzen da. Ik. *gori* hiztegian.

60. Sektorea

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

14624) ISON / MARIT; 60. zundaketa, 60001 UE, laborantza-lanek nahastutako lurrean agertua.
[g]ison / *marit[us]*; senarra, alegia. Itzulpena dirudi. Hori irakurtzen bide du Gorrochateguik (13. o.), baina niri ezinezkoa zait ezer bereiztea argitaratu den argazkian.

88. Sektorea

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15542) A B C D E F G H I K λ M N O P Q R [.] T V X Y Z; 88. zundaketa, 88006 UE
Abezedarioa. (I-II. mendekoa, ustez)

105. Sektorea

Iruña/Veleia III. Miluritea Proiektua

15656) IAN/ VAN (edo JAN) / ZVTA; 105. zundaketa, 105003 UE
"Jan Ivan (edo jan) zeruetan?" (*zuta(n*; edo *zu(re)tzat* ??).
Hildako baten gainean kokatuta zegoen buztinezko plater baten barruko idazkia. Platera jakiz beteta egongo zen ziurrenik, hildakoari egindako eskaintza dirudi eta. (V. m. K.o?).

120. Sektorea

Iruña/Veleia III. Miluritea Proiektua

17050) [G]EVRE ATA / SVTAN / SIIRA/ ANA / SANTV; 120. zundaketa, 120003 UE; kontestu garbirik gabeko pieza.
Geure ata sutan serana santu. Aitagurearen hasiera. Horregatik, *sutan* "zeruetan" litzateke. Piezaren atzealdearen marrazkia ikusi dugu eta zera irakur daiteke: ISAN BII / TI SIIVRII / ISIINA /IITOR: izan beti zeure izena / etor. Aitagurearen jarraipena dirudi.

Testuingururik gabeko piezak

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15129) IRI; harresien kanpoaldean, lur gainean agertutako pieza.
Hiri? Ez, ziurrenik; zeramika zati txiki batean idatzia dago eta hitz luzeago baten parte izan liteke.

Quintas Arq., I/V III. Milurtea Proiektua

15147) VRDIN / X / ISAR; lurzoru gainean aurkitua, testuingururik gabe.
Urdin / x / izar; artizarra? Venus, izan daitekeela iradoki du norbaitek.

AFAko Zaharberrikuntza Zerbitzua

15204) NEV; lurzoru gainean aurkitua, testuingururik gabe.
Neu.

2.3.- Edukiak

Izen arruntak: ama, amet(s), araina, ata, etxe?, (g)ison?, ilar (ilargi), iri?, isar, (a)laba, lagun, leio, lura, mai, (a)mona, (a)naia, neba, ogia, (ar)reba, reinu, santu, (o)saba, (i)seba, su/sua, ur, urte, urso, c/zordun?

Adjektiboak: aros, be(l)t(z)a, gori, polita, urdin, zuri

Aditz nagusiak: arrapa, bisi/vici/bici, eda/edan, egin, elosi? (erosi), ent(z)u(n), er(r)e, eskon, ian, il, izan, lo, nahi?

Aditz jokatuak: badi/beti (bedi), na, ta, tu, serana, laike? **Partizipioak**: izana, hilta?

Posesiboak eta erakusleak: geure, haie(?), nere, neu, neure, zeure, zuene, zure, zutan

Adberbioak: beti, gau(r), zuti(k?)

Deklinabide atzizkiak: -I: nebai, rebai, Leiki? zordunai?; -RE: atare, nere, neure, geure, zeure, zure; -N: Roman, Veleian; -TAN: sutan/zutan

Hitz edo atzizki sintaktikoak: esquero?, -la?

Pertsona-izenak: Corne, Elosi?, Laike?, Marcus, Mario, Mirto, Samuel, Set, (I)van?

Pertsonaia biblikoak: Iesus, Ioshe, Maria, Mirian, Yavhe

Toponimoak: Roma, Veleia, Veleia Gori, Veleia Nova.

Latinezko hitzak: corde, cordu?, in, liberate, Nova, pather, pyra, sumo, vola?

Grezierazko alfabetoz idatzitakoak: ρως, ηλος

2.4.- Testuetako lexikoa

AII: ? 13396a; Ik. *haie[.]*
ama (8): ama, 13368a, 13393, 13411a, 15910, 15912, 15923a, 15925, 16363a
amet: *amets*, 13401
ana (2): ?, *[.]ana*, koloreen zerrendan, 13397a
araina: arraina, 16365b
aro[s]: arrosa (kolorea), 13397a
arrapa: harrapatu, 16365b
ata (13): aita. 10 aldiz "Zeruko Aita" (6. sektorea eta testuingururik gabeko pieza), 13361a, 13361b, 13363, 13364, 13368a, 13371a, 13393, 13411a, 13709c, 17050; bost aldiz *geure ata zutan* esaldian; 3 aldiz "gurasoa" (32. zundaketa), 15912, 15916, 16365b
atare: *aitaren*, genitibo arkaikoa, 13362b
audia: ?? haundia? latineko *audire*-tik, entzun??; 10775
badi: *bedi*; **edin*-en inperatiboa, 13364. *Beti*, 17050.
bana: *baina*, edo *banaiz* (?), 16365b; Ik. *na*
beta: *beltza*,13397a
ber (2): ?, 13335, 13397a; berdea, agian, bigarrena behintzat, koloreen zerrendan dagoelako. 13398a, 13335
1**beti:** beti, adberbioa,13398a
2**beti**: bedi, inperatiboa; 17050b. *Badi* 13364
bisi (2), **vici** (2), **bici**: bizi*; bisi* 16364, 16365a; *bici* 13335*; vici* 12077, 13234b
CII: ?; ondorengo letrak kostra azpian daudela dirudi; pertsona-izen baten hasiera?, 15920
corde edo **codre**: ?, bihotza, agian (*cor-cordis*, latinez) 13398b

cordu: zordun??; *neur[e] cordu mai*, "*neure zordunai"*, agian, Aitagureko esaldi klasikoa. Baina esaldi hori "neure bihotz mai-tea" ote den susmoa dut, "meo corde", "entzun neure corde" eta gisako esaldiak agertzen baitira, 13858

Corne: Cornelio edo Cornelia, ziurrenik, 15922

eda (2), **edan**: edan, 13367, 13396a, 13396b

egin: egin; 13364

elosi (2): *Elosi* pertsona-izentzat hartu izan da, baina norbaitek *elosi* eta *erosi*-ren arteko kidetasuna antzeman zuen, grezieraz idatzitako hitzetan erreparatuta: 16362b (ρως?), 16363a (ρως i), eta 16365a (ηλιος). Eros-i, izan liteke, beraz. Ondorengo hitzak *rebai, nebai* lirateke, hots, "nik (zerbait) erosi arrebari" eta "nebai", 16362b, 16363a.

ηλιος: eros, erosi?, 16365a

entv: *entzun*, 13398b

ere: *erre*, 13711

eria: ? *herria*, 10775

eskon: ezkondu, 15922

esquero: *-ez gero*, baldintza posposizioa, 13412b (ez dago argazkirik)

esta: *ez da*?, 16365a

etxe edo **ET XII**: ?, etxe, edo "eta 12"? Interpretazio bat baino gehiago proposa daiteke: 1) etxe, piezaren atzealdean etxe baten marrazkia ikusten delako, 2) *Maria / ama / IIT XII* ; "Maria ama eta 12 (apostoluak), 15923a

ηλιος: *erosi?,* 16365a. Ik. *elosi*.

gau[r?]: gaur; *gau* irakurtzen da, *neure ata gau ilta*, baina zentzuagatik *gaur* delakoan nago, 15912

geure (5): geure; esan beharra dago *geure* guztiak *geure ata zutan* esaldian agertzen direla; 13363, zalantzekin, pieza hautsita baitago, 13363, 13364, 13371a, 17050

gi (2): ?? *egin*?; *ogi*?; 13396a, 13411a

giatu la: ?? Ez dugu ez argazkirik eta ez erreferentziarik aurkitu. Lakarrak "giatu nazala" gisa ulertzen du, *-la* aditz nagusiari lotuta dagoela iritzita, eta zera esaten du: "*GIATULA es un monstruo imposible pues tales marcas solo se añaden a las marcas verbales conjugadas" (19. or). Ez dugu ostraka ikusi, eta esaldiak zer esan nahi duen ere ez dakigu. Dena dela, pentsatzen dut *tula* "duela" izan litekeela, *tu* baita *du*-ren ordaina ostraketan.

giu sale: ? *gev*-ren errata?; *sale*, *"saldu"* ote?, 13349

[g]ison: gizon?; Gorrochateguik *ison/ marit* irakurtzen du 14624an, baina guk argazkian ezin dugu ezer bereizi.

1**gori** (4): *goi*, edo *goiri* edo *goiuri*, goiko hiria, nire iritziz. *Veleia(n) gori* segidan agertzen da hitza beti; hiri zaharra, ziurrenik, goialdean, Arkizeko tontorrean zegokeena, Veleia Nova behealdean zegoen bitartean. Bi hirigune zeudela pentsa genezake, hiri erromatarra, Veleia Nova, eta jatorrizko hiria, euskalduna, Veleia Gori edo Goiko Veleia. Aztarna arkeologikoek erakusten dute goialdean zela hiri zaharra, harresi barruko eremuan eta beherago ere aztarnak agertu diren arren. *Gori* hitza "soila" edo "biluzia" gisa ere interpretatu izan da, eta baliteke hori izatea ere, hor baitago *Kalagorri*-ren kasua, 14469 16364 16365a, 16366

2**gory**: gorria, koloreen piezan, 13397

haie[.]: *haiek*?, 15924

ian (4): jan, 13367, 13396a, 13396b, 15656

Iesvs (2), **Ieshu**: Jesús, 13364, 13368a, 13381

iaun: jaun; **jaun** ere irakur daiteke, baina goranzko marrak arrakala itxura du, 13369, 13369a

IIAII: ?, ez dugu guztiz baztertzen *hai(e)* izatea, ematen duelako ostraketan badirela marra horizontalik gabeko hatxeak; 13709a

III: 3 zenbaki erromatarretan, 13394a, 15920
ilar: *ilargi*, ziurrenik, 13395b
ilta (2): *hil da*, edo *hilda*, 15910, 15912
Ioshe: Jose, Jesusen aita, 13368a
in: latinezko preposizioa *in veleia vici* esaldian, 13234b
iri: hiri; oso zalantzazkoa, zeramika-pusketa txiki baten idatzia dagoelako eta hitz luzeago baten zati izan daitekeelako; 15129
isar: izar, 15147
isena: izena, 17050
izan: *izan* aditza edo *izen*, 13362b
izana: *izan*-en partizipioa, *zerana* edo *zarena* esanahiz, ziurrenik, *Yaveh zutan izana* esaldian agertzen baita; *geure ata zutan zerana*-ren kidekoa, gure ustez; 13371b; Ik. 17050
la: Ik. *giatu la.*
(a)laba: alaba, 15917
lagun (2): lagun, 13394b, 15921
laike: *Laike* edo *Laiki*, pertsona edo familia-izena. *Legike*, *egin*-en baldintza ondorioa ezin guztiz baztertu, 16365a
leio: leiho, 13396a
liberate: *liberare* aditzaren inperatiboa. Edo *liberatus,-a, -um*-etik, "askatuak"? 21658
lo: lo egin aditza, 13396b
lura: lurra; 13395a
mai (2): mahai*,* beharbada, 13396a; 13858koa, berriz, *neure cordu mai;* Aitagureko *neure zordunai* izan liteke, baina ez dugu baztertzen oso bestelako interpretazio bat ere: "neure cordu (bihotz) mai-tea", amodio-esaldia. Ik. *corde*.
Marcvs (2): pertsona-izena, 13394b, 15921
Maria: Jesusen ama, 15923a

Mario: pertsona-izena, 13369
marit: *maritus*, senarra (latina), *ison/ marit,* 14624 (??)
Mi: Mirian? 15917
Mirian: María, Jesusen ama; 13368a, 13381; ipini ez dugun beste ostrakaren batean Maria Magadalena dela dirudi.
Mirto: pertsona-izena, 16363b
(a)mona: amona, nire iritziz. (Iglesiasek pertsona-izena dela uste du) 13393
na (5): *naiz*, 13335, 13365, 13366, 16364, 16365a
nahi: nahi, pertsona-izena?, aditza?, 21658
(a)naia (2): anaia; dena dela, ezin da baztertu bietako batean *nahia*, borondatea, izatea; 13368b, 13394a
neba (2): neba, 13393, 16362b
nere: nere, 13361a
neu (12): neu, izenordea, 13394a, 13411b, 13412b, 15204, 15917, 15920, 15922, 15925, 16362b, 16364, 16365a, 16365b
neure (10): neure, posesiboa, 13394a, 13397b, 13401, 13411a, 13858, 13398b, 15910, 15912, 15916, 15925
Neto: pertsona-izena?, 13380
Nova (2), **Novva**: Berria; *Veleia Nova* eta *Veleia Gori* agertzen dira, Veleia Goikoa (zaharra) eta Veleia Berria, ziur asko. Ik. *gori*. 12077, 14469, 16365b
ogia: ogia, *ogia i pyra* esaldian, "ogiari sua" agian; Ik. *pyra*, 10817
oso: txit, osoa? 15921
osov: ? *oso*-ren errata?, edo V laburdura da? 16365b
ousta: ? 16363b
Pather: Jainko Aita 13362b-n: *in nomine Pather*; apaiza edo lider espirituala: *Samu[el]/ Velei[an]/ [P]athe[r]/ dan[a],* 13374b, eta *Samuel / Iesus Neto / Veleian / Pather pontifice,* 13380

polita: ederra, txukuna, 16365b
Pontifice: Ik. *Pather*
pyra: ? sua, grezierazko *pyros* edo latinezko *pyra ,-ae*-tik; Ik. *ogia,* 10817
(ar)reba (4): arreba, 13393, 15917, 15920, 16362a
reinu: erreinua. Aitagurearen zatiz osatua dirudien ostraka batean agertzen da. Euskarazko Aitagurea klasikoan: "etor bedi zure erreinua", 13364
Roma, Roman: Erroma, 15910, 16363b
ρως, **ρως**i: *eros*, erosi?; 16362b, 16363a
(o)saba: osaba, 13393
Samuel (4): pertsona-izena, Veleiako *Pather* espiritualarena, testuetatik ondoriozta daitekeenez; *Pather Pontifice* gisa ere agertzen da testu batean, 13362a, 13369, 13374b, 13380
(i)seba: izeba, 13393
sale: Ik. *giu sale*, 13349
santu: santo, 17050
serana:? zerana, zarena; hori irakurtzen dela dirudi; 17050
Set: pertsona-izena edo pertsonaia biblikoa (Seth, Adan eta Evaren 3. semea; ebangelio gnostikoetan ere agertzen da Seth).
su, sua: sua, 13395a, 13711
sumo: *summus*-en ablatiboa, "azkenean"?; 21658
sutan: Ik. *zutan.*
suti, zutik: zutik; 13396a, 15924
1**ta** (5): da*, izan*-en 3. pertson. sing., 13364¸ 15910, 16363b, 16365a, 16365b
2**ta** (6): eta kopulatiboa, 16366, 13367, 13711, 15912, 15917, 16363a
tu (4): du, dut, **edun*-en forma jokatua, 13412b (?), 15920 (2), 16365a

uni: ? 13709b
ur (2): ur, 10599, 11037
urdin (2): urdin, 13397a, 15147
ursi: ?, *urso* eta *ur* hitzekin batera idatzita ageri da. Hitzjokoa? Ik. *urso*. 10599
urso: uso?; oso gertu aurkitutako beste pitxar berdintsu batean uso baten marrazkia ageri da ahoan ereinotz-adar bat duena; sinbolo kristaua, 10599. Edota *ursus*, hartza?
urte (2): urte, 15920, 16365a
Van: Ivan?, *ian van zuta* testuan ageri da, 15656
Veleia (12): *Veleia* soilik (1), 12077; *in Veleia* (1), 13234b; *Veleian* (3), 13369, 13380, 15921; *Veleia Nova* edo *Novva* (3), 12077, 14469, 16365b; *Veleia Gori* (1) 14469; *Veleian Gori* (3) 16364, 16365a, 16366
vici: Ik. *bisi*.
verg : ? 13411
vola: latineko *volo, vis, vult* "nahi izan" aditzetik?, 15924
XI: 11 zenbaki erromatarretan, *XI urte tu* esaldian; neska bat dela pentsa daiteke, ondoko ostraka batean (16362b) *neu elosi (...) neba i* agertzen baita, 16365a
XII (2) : 12 zenbaki erromatarretan; *neu XII urte tu, III reba tu*, dio esaldi batek; mutila dela pentsa daiteke, *reba* hitza erabiltzen baitu eta ez *ahizpa*; Ik. aurrekoa, 15920, 15925
Yavhe (3) **Yave**: Yave, 13361a, 13362a, 13363, 13371b
ze: ? 13361a
zeure: Ik. *zure*.
zordunai: Ik. *cordu.*
zuene: ?, *zuena*, edo agian *zu ene*, 13412a
zure (2), **zeure**: zure, zeure, 13364, 13368b, 13397b
zuri: zuri, kolorea; 13397

zuta: bi aukera sumatzen ditut: *zeruetan* edo *zutzat*, zuretzat; hildakoari egindako eskaintzan ageri da, 15656

zutan (4), **sutan**: *zeruetan*? Aitagurearen hasiera diruditen esaldietan agertzen da, *zeruetan*-i dagokion lekuan. Zenbaitek iradoki du *sutan/zeruetan* elkarketa bat ez ote dagoen, Moisesi Jainkoa *sutan* zegoen sastraka batean agertu baitzitzaion Legearen Taulak ematera;13364, 13371a, 13371b, 15656, 17050

zutik o **zutir** (?), **suti**: zutik; azkeneko letrak R dirudi, baina errata izan daiteke, zuzentzeko ahalegina egon dela ematen baitu. Ik. *suti*, 15924

3

Aitagurearen oihartzunak

Kristautasunaren lehen urratsetan aditua den pertsona batekin hitz egin dugu, eta katekesi-lanek kristau komunitate haietan zuten garrantziaz mintzatu zaigu, Iruña-Veleiako ostraketan islatzen dena. Hitz hauekin laburbildu digu gaia:

"Kristau komunitatearen presentzia adierazten dute ostraketan idatzita agertzen diren CIPRIANO edo PARMENIO (Parmeniano) bezalako izenek, Kartagoko gotzainak izan baitziren biak, Ipar Afrika astindu zuen donatismoaren jarraitzaileak. Horregatik, nire iritziz, donatismoa eta Kartagoren eragina gogoan izan behar dugu 6. sektoreko idazkiak aztertzeko orduan.

Baina begira diezaiogun Pater Nosterrari. Otoitz hau Mateoren ebangelio kanonikoetan agertzen da, Mendiko Sermoiaren barruan (Mt 6,9-13), eta baita Lukasenean ere (Lc11,2-4). Solemnitate eukaristikoaren elementu integratzailea zen hastapeneko eliza hartan.

Beraz, kristau-komunitate horietan emango zen katekesiaren barruan kokatu behar dira ostraka horiek. Ahoz ahoko transmisioa eta errepikapenaren bidezko memorizazioa ziren oinarriak; eta hau guztia, leku askotan, tokian tokiko hizkuntzan, Iruña-Veleian bezala, ahalik eta emaitza onenak lortu ahal izateko proselitismoaren arloan. Jerusalemgo Ziriloren arabera (IV. mendea), katekumenoek buruz ikasten

zuten Pater Nosterra, gero denak batera errepikatzeko jaunartzea egin ondorengo lehen elizkizunean."

Madozek, beste autore batzuek bezala, *De similitudine carnis peccati* izeneko epistola aipatzen du, Eutropio apaizak V. mendean bere jarraitzaile aberats bati, "Cerasia elizkoiari", bidalitakoa, non esaten duen emakume honek bere langileak *hizkuntza barbaroan*[8] doktrinatzen zituela. Mende horretarako penintsulako hizkuntza zahar guztiak ezabatuta zeuden euskara izan ezik.

Gure ustez, *Gure Ata*-ren berbaroa entzuten da ostraka askotan. Otoitzaren pusketa txikiak dira gehienetan, baina bada baten bat bi edo hiru esaldi dituena ere. Ostraka bateko eta besteko zatiak batuz, Aitagurearen parte garrantzitsu bat osa genezake. Harrigarria da txikitan ikasi genuen Aitagure klasikoarekin duen antza.

Latinezko ohiko Pater Nosterra euskarazko zaharrenetariko batzuekin[9] eta Iruña-Veleiako pusketekin konparatzen ahaleginduko gara.

8.- Sebastián Mariner Bigorra-k hurrengo komentarioa egiten du Madoz aipatuz: "Eutropioren 'jarraitzailearen' lurrak eta ondasunak apaiza bizi zen lekutik hurbil kokatzen ditu, "Hispaniako iparraldean edo Galiako hegoaldean, V. mendearen hasieran". http://213.0.4.19/servlet/SirveObras/02589511999194539932268/p0000001.htm

9.- Pater Nosterraren euskal bertsio zaharrenetariko batzuk kopiatu ditugu hemen, Jose Antonio Arana Martijaren "Sobre el Aitagurea de Jerusalem" artikulutik hartuta. Boletín Sancho el Sabio 24, 2006.

Pater Noster
1. Pater noster
2. Qui est in caelis,
3. Santificetur nomen tuum.
4. Adveniat regnum tuum,
5. Fiat voluntas tua
6. Sicut in caelo et in terra.
7. Panem nostrum quotidianum da nobis hodie.
8. Et dimitte nobis debita nostra
9. Sicut et nos dimittimus debitoribus nostris
10. Et ne nos inducas in tentationem
11. Sed libera nos a malo.
12. Amen.

Leizarraga (1571)
1. Gure Aita
2. Ceruëtan aicena,
3. Santifica bedi hire icena,
4. Ethor bedi hire Resumá
5. Eguin bedi hire vorondatea,
6. Ceruän beçala, lurrean ere.
7. Gure eguneco oguia iguc egunecotzat
8. Eta barka ietzaguc gure bekatuac
9. Ecen guc-ere barkatzen dirauëagu guri çor draucute guciey
10. Eta ezgaitzala sar eraci tentacionetan
11. Baina deliura gaitzac gaichtotic.
12. Amén.

Betolaza (1596)
1. Ayta gurea
2. Ceruetan çagoçana
3. Satificadu içandila çure içena
4. Etorvidi gugana çure Ereynua
5. Eguinvidi çure borondatea
6. nolan Ceruan, alan lurrean.
7. Emon eguiguçu egunean eguneango gure oguia
8. da parcatu eguiguçuz gure pecatuac
9. guc gueure çordunay parquetan deusteguna leguez
10. da echiezeyguçu jausten tentacinoan
11. baya libradu guaiguiçuz gach gustiric
12. Amen Iesus.

Kapanaga (1656)
1. Ayta gurea
2. çeruetan dagoala
3. santificadu bidi çure içena
4. vetor çure erreñua gugaña
5. eguinvidi çure vorondatea
6. alan lurrean nola zeruan.
7. egunean eguneango gueure oguia egun iguçu
8. parcatu eguiguçuç gueure zorrac
9. çelan gueuc parcaetan deustagun gueure çcordunay
10. echi çeeguiguzu tentaziñoan iausten
11. libradu gaguiçala gach guztietaric
12. Amen.

Iruña-Veleia (III-V)
1. GIIVRII ATA / YAVEH
Geure ata / Yave
2. SVTAN/ZVTAN SIIRANA/IZANA
zutan/sutan serana/izana
3. SANTV ISAN BIITI SVRII ISIINA
santu isan beti sure isena
4. IITOR ... ... RIIINV
etor ... ... reinu...
5. IIGIN BADI
egin badi
6. ...
7. ...
8. ...
9. NIIVRII CORDU MAI[10] ... ...
neure zordunai ...
10. ...
11. ...
12. ...

10.- Zalantza handiak ditugu ostraka honekin, oso bestelako interpretazio bati aukera handiagoak ikusten baitizkiogu. Ik. transkripzioak eta hiztegia.

Laburpena

1. *Geure ata* (4); *Yavhe geure ata* (1), *Yave* (1)
2. *zutan* (4); *sutan serana* (1); *zutan izana* (1)
3. *santu isan beti sure isena* (1)
4. *etor* (1) *reinu* (1)
5. *egin badi* (1)
9. *neure zordunai* (1)

Iruzkinak

Adituek azterketa sakon bat egin bitartean, deigarriak egin zaizkidan puntu batzuk aipatuko ditut labur-labur:

1. *Gure ata/ Yavhe* bikoiztasuna jainko aitaz jarduterakoan.
2. "In caelis"en *zutan-sutan* itzulpena, *zeruetan* edo antzeko zerbait "espero" zitekeenean. Goian aipatu bezala, *zeruetan-sutan* elkarketaren gakoa honetan egon liteke: Bibliako pasarte ezagunaren arabera, jainkoa "sutan zegoen sastrakan" agertu zitzaion Moisesi Legearen Taulak ematera. *Serana* aditz jokatua eta *izana* partizipioa biak agertzea esanahi berarekin.
3. Dena S-z idatzita egotea eta Aitagurea klasikoarekiko antza.
4. *Etor* eta *reinu*, Aitagure tradizionaletan bezala.
5. *Badi*, hirugarrenean *beti* agertu denean.
9. *Neure zordunai,* Aitagure historiko guztietan *geure* edo *gure* irakurtzen dugunean. Dena dela, hitz hauek beste esanahi bat izan dezakete, goian esan dugun bezala. Ik. transkripzioak (13858) eta *cordu* hiztegian.

4

Beranduko baskonizazioaz

"Vasconización tardía" delakoa da Iruña-Veleiako auziaren gainean hegan dabilen beste gaietariko bat. Aurrera jarraitu aurretik garbi utzi nahi dut honek ez duela zerikusi zuzenik ostraken benetakotasunarekin edo faltsutasunarekin. I/V herri euskalduna izan arren, ostrakak faltsuak izan daitezke, eta alderantziz, eskualde ez-euskalduna izan arren, han bizi zen komunitate baskoi baten emaitza izan daiteke. Esan beharra dago populaketa garai hartan ez zela uniformea izaten askotan, baskoien lurraldeetan komunitate iberiar eta zeltak bizi ziren, dirudienez, eta zelten edo iberiarren lurraldeetan komunitate baskoiak ere bai. Hau garbi utzi ondoren, eman diezaiogun gainbegiratu bat gaiari.

Schulten filologo eta arkeologo alemaniarrak lehenik, eta gero Gomez Moreno eta Sanchez Albornoz historialari espainiarrek esan zutenetik erromatarrek Barduliar, Karistiar eta Autrigoi deitutako tribuak ez zirela euskal etnia eta hizkuntzakoak, indoeuroparrak baizik (zeltak), eta baskoiak inbasio barbaroek eragindako kaosa aprobetxatuz mendebal aldera "korritu" zirela eta lurralde horiek "euskaldundu", hots, gaur egungo Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia, eztabaida sutsuak piztu dira gaiaren inguruan.

Nahiz eta historialari gehientsuak eta Mitxelena edo Tovar bezalako hizkuntzalariak bat ez etorri beranduko baskonizazioaren ideiarekin, gero eta jarraitzaile gehiago ditu

pentsaera horrek unibertsitateetan zein foroetan. Eta ez hemendik kanpora bakarrik: Irungo Oiasso Museo Erromatarra bisitatzen bada, paneletan ikusiko dugu barduliarrak, karistiarrak eta abar zeltatzat hartzen direla. Horregatik, foroetan idazten duen zenbait historialari, arkeologo edo latinista ezagunek (nahiz eta ezizenez sinatu gehienek) apriorismo horrekin jokatzen dute eta piezak ikusi aurretik ezinezkotzat jotzen dituzte, Iruña-Veleian ez omen zelako euskararik egiten.

Honako hauek dira teoria horri eusteko erabiltzen dituzten argudio nagusiak:

1) "Vascongado" hitzak "euskaldundua" esan nahi du.

2) *Varduli*, *caristii* eta *autrigones* izenak ez dira euskaldunak, indoeuroparrak baizik.

3) Testu zaharretan eta epigrafian ez da ia euskarazko izenik eta toponimorik agertzen.

4) Ez dago cromlechik Leizaran ibaiaren mendebaldean[11], baskoien mugatik haratago. Honek kultura ezberdinekok zirela adierazten du.

Esan beharra dago teoria honen aldekoak ez datozela bat datetan; lehen aipaturiko autoreek V-VI mendeetan kokatzen dute gertakaria. Beste batzuek, berriz, III. mendera aurreratzen dute data, erromatarren arora. Nola gauza zitekeen horrelako okupazio bat III. mendean, Inperioa indrtsu zelarik? Zer gertatu zen lurralde horietan bizi zen jendearekin? Ez dute esaten. Zein hizkuntza egiten zuten euskaldundu

11.- Martin Almagro Complutense-ko katedratikoak erabili du azkenaldian argudio bitxi hau. Esan beharra dago 15 cromlech aurkitu direla gutxienez Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban.

aurretik? V. mendean gertatu bazen okupazioa, zelta ezin izan, II-III. menderako galduak baitzeuden hizkuntza zelta eta iberiar guztiak penintsulan. Latina? Hala balitz, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak latinezko toponimoz josita beharko zuten egon, eta ez.

Ez dago dokumentu historikorik ez eta aztarna arkeologikorik baieztapen horri eusteko, baina hala ere eskola sortu dute. "Vascongadas" hitzari dagokionez, "baskonizatuak" edo "euskaldunduak" bezala ulertzen dute. Baina ez da horrela, "vascongado" hitzak euskalduna, euskaraz egiten duena esan nahi baitu, Andres de Mañarikuak azaltzen duen bezala: "En su origen no tuvo contenido étnico o político, sino simplemente lingüístico. *Vascongado* no era el que no siendo vasco fue *vasconizado*, como muchos pensaban apoyados en una etimología que lo deriva del latín *vasconicatus*, y que se ha repetido hasta hoy. Era el hombre de habla vasca; así un navarro vascoparlante era vascongado."[12]

Nire ustez, latina izango zen hizkuntza nagusia Iruña-Veleian hirian, baina hirian bertan zein inguruetan jaiotako biztanleak elebidunak edo euskaldun elebakarrak izango ziren, eta hiriko "jende printzipal" askok ezagutuko zuen neurri batean edo bestean euskara; eta izango ziren beste hizkuntza batzuetan mintzatzen ziren komunitateak ere. I/Vko garai hartako egoera eta duela 500 urte Gasteizen edo Iruñean bizi zena, *mutatis mutandis*, ez zen oso ezberdina izango, edo eta honantzago etorriz, oraindik geure denboran zenbait herri hazi samarretan ezagutu duguna.

Izenei dagokienez, berriz, ez dakigu zeren arabera bataiatu zituzten erromatarrek tribu ezberdinak. Hizkuntza zeltikoak

12.- Andrés de Mañaricúa: *Alava, Vizcaya y Guipúzcoa a la luz de su historia.* 1977.

ezagunagoak zituzten, eta bada Estrabonen (I. m. K.a.) zita bat[13] non kexatzen den penintsula iparraldeko herrien ahoska ezintasunaz. Horregatik, nahiko logikoa dirudi tribu bat izendatzeko orduan izen indoeuroparrak aukeratzea, lurralde horietan bizi ziren komunitateenak, beharbada. Askotan pentsatzen dugu lurralde bat = etnia bat = hizkuntza bat eredua izan dela nagusi, baina oso ohikoa izan da -eta da oraindik, Balkanetan, adibidez- lurralde berean etnia eta hizkuntza diferentetako komunitateak bizitzea. Beraz, ez ginateke harritu behar komunitate zeltak bizi baziren karistiar euskaldunen lurraldean, edo eta baskoiak iberiarren edo beroien artean.

Nolanahi ere, gauza jakina da askotan konkistatzaileek edo auzo-herriek nahierara izendatu dituztela beren konkistatuak edo mugakideak. Honako hau omen da Yucatán penintsularen izenaren jatorria: konkistatzaile espainiar batek galdetu omen zion bertako bati ea nola zuen izena lurralde hark, eta hark "Yucatán" erantzun omen zion, bere hizkuntzan "ez dut ulertzen", hain zuzen. "Eskimal" hitzak "haragi gordin jalea" esan nahi du alboko tribu baten hizkuntzan, bere buruari *Inuita* deitzen dioten bitartean, hots, "herria". *Berebere* deitu ohi zaio Afrika iparraldeko *Tamazig* herriari. Eta gero hor daude kontaezin ahala Hellas/Grezia, Suomi/Finlandia, edo Euskal Herria/Vasconia, Pais Vasco,Vascongadas, Pays Basque, etab.

Antzinatera itzuliz, dozena bat herriz osatua zegoen Akitania, eta gehienen izenek euskal usain gutxi zuten: *conve-*

13.- "Kalaikoak eta Astureak eta Kantabroak, Baskoienganaino eta Pirinioetaraino. Denen bizimodua berdin-berdina delako. Ez dut izen gehiago aipatzeko gogorik oso arraroak direlako, izan ere inori ez zaio gustatzen Pletauroak eta Bardietak bezalako izenak entzutea, edo are eta okerragoak eta ulertezinagoak diren beste batzuk". (Estrabon *Geogr*. III, 3. 7).

ne, consorani, lactorates, elusates, tarusates, sibusates, tarbelli, sotiates... Akitaniako lapidetan agertutako euskal hitzak ezagutu izan ez balira, historialari ustez serio askok zelta edo iberiartzat joko zuten ziurrenik lurralde hori, nahiz eta ez jakin zer esan nahi duten izen horiek hizkuntza horietan.[14]

4.1.- Euskal hitzak inskripzio erromarretan

Euskal izen asko agertzen da lapida akitaniar eta baskoietan baina askoz ere urriagoak dira Mendebaldean, Gipuzkoan[15] eta Bizkaian batez ere. Garai hartako testu zaharretako toponimia eta onomastikan ere errepikatzen da urritasuna. Lehen esandakoarekin batera, datu hau da beranduko baskonizazioa defendatzen dutenen argudio nagusia.

Araban autrigoien lurraldean zegoen herria da Uxama Barca. Gaur egungo Osma de Valdegobian zegoela uste izan da baina orain Karankako La Lastra kastroarekin lotzen dute askok. Alfonso Irigoienek[16] Astorgan eta Quintanilla de

---

14.- Hala ere, Frantziako historialarien artean badira Akitaniaren "beranduko baskonizazioa" defendatzen dutenak Tours-eko Gregorioren testu batean (587) oinarrituta, honek esaten duelako baskoiak mendietatik jaitsi, haziendak eta soroak arpilatu, etxeak erre, ahal zuten guztia harrapatu eta mendietara itzuli zirela.

15.- Dakigunez, Bizkaian ez da bat bera ere aurkitu; Gipuzkoan, berriz, *Beltesonis* dugu Andrearriagako estelan (Oiartzun), *beltz* erroa izan lezakeena.

16.- Alfonso Irigoyen: *Las lenguas de los vizcaínos: antroponimia y toponimia medievales.* Bilbao 1985. (11-12 o.). Honako iruzkin hau egiten du: "El nombre de lugar no contraído debió ser *Uxama Ibarca*, con segundo elemento vasco, es decir, *ibar*, 'valle, vega' + suf. *-ka*, 'Valle de Uxama'. (...). Esto está en favor de la antigüedad de la lengua vasca en el área referida, pues nos encontraríamos ante una forma toponímica vasca antigua, ya que si bien *Uxama* es claramente céltico, el segundo elemento nos sitúa con toda probabilidad en un contexto de resistencia a la celtificación plena".

UMMESAHARI irakur daiteke Lergako hilarrian

Viñas-en (Burgos) aurkitutako hilarrietan irakurtzen diren *Uxamaibarcensis* eta *Uxamaibarcem* hitzak aipatzen ditu, non bigarren elementua i*bar*-en bidez interpretatzen duen. Uxama Ibarca, izango zen, alegia, herriaren izena. Gorrochategui, esandakoez gain, ondorengoak aipatzen ditu Araban:

Helasse (Miñao Goienen) "es un teónimo que ofrece cierto aspecto aquitanovasco", eta *Lutbelscottio* eta *Luntbelsar* antroponimoak San Roman de San Millanen (Durruma Donemiliaga). *Iluna* (edo *Eluna*) ere bai Iruña-Veleian (Tresponden, zehazkiago), Iluna (kolorea) gisa uler daitekeen emakume-izena. Berriz itzuliko gara gero hilarri honetara. Luis Nuñez Astrainek[17] beste hauek ere aipatzen ditu: *Attia* Ollavarre-Olabarrin (Iruña-Oka) eta *Aituneo* jainko izena, Araian.

Ez da gutxiestekoa, beraz, Arabako lurretan agertutako testigantzen kopurua. Nolanahi ere, agiri idatziak urriak direnean, hizkuntza mintzatua eta toponimia bihurtzen dira hizkuntzaren historia ezagutzeko iturri emankorrenak.

4.2.- Euskalkiak

Debagoieneko biztanleok beti sentitu izan dugu euskalki-muga batean bizi garela. Administrazioz gipuzkoarrak izan arren, gure dialektoa bizkaiera da, edo mendebalekoa, nahiago bada. Ez dirudi kasualitatea gure harana, Arabarekin eta Bizkaia gehienarekin batera, Kalagorriko Elizbarrutikoa izatea gotzaindegi berriak sortu arte. Kostako Mutriku eta Deba kenduta, "kasualitatez" gipuzkeraz egiten duten herriak biak, Iruñeko elizbarrutikoak zirenak. Elizak beti jakin izan du egoerara egokitzen.

Euskalki-isoglosa inportanteenak iparraldetik hegoaldera doaz, garai bateko tribu-mugari itsatsita, eta ez ekialdetik

17.- Luis Nuñez Astrain: *El euskera arcaico. Extensión y parentescos*. Ed. Txalaparta. Tafalla 2003. Beste liburu honetan ere bai: Jabi Otsoa de Alda & Estibalitz Breñas Glz de Zarate. *Arabako Euskal Hotsak – Antecedentes del Euskera en Alava*. Geu. Gasteiz 2002.



mendebaldera, baskoien balizko inbasioa gertatu izan balitz espero zitekeen bezala. Gertatzen da, esate baterako, bizkaieraz egiten duen Antzuolaren eta gipuzkeraz egiten duen Urretxu mugakidearen artean dagoen hizkuntza-distantzia handiagoa dela Antzuolaren eta ia 40 kmra dagoen Markina bizkaieradunaren artekoa baino. Hizkuntzalari batek baino gehiagok defendatu du bi euskalki baino ez dituela euskarak: bizkaiera eta beste guztiak. Gehiegikeria bat den arren, badu bere zera. Beste euskalkien artean *continuum* bat nabaritzen da, gipuzkeraren eta bizkaieraren artean eten handia dagoen bitartean. Beno, jo dezagun hiru direla, Zuberotarrarekin ere antzeko zerbait gertatzen baita.

Hizkuntza-osagai nagusiak komunak diren arren dialekto guztietan, badira berba batzuk mugarri lana egiten dutenak[18]. Begira diezaiegun asteko egunei: bizkaieraz (eta

baita Arabako mendebaldeko euskaran ere, Iruña-Veleiako karistiarrek egingo zuketen euskalkian) zazpi izenetatik hiru latinetik edo hebreeratik datoz: *martitzena, zapatua* eta *domeka*, beste euskalki guztietan denak euskal jatorrikoak diren bitartean (*asteartea, larunbata, igandea*, beste zenbait aldaerarekin batera). *Martitzena* jainko pagano batetik etortzeak eta *zapatua* eta *domeka* judu-kristauak izateak ematen du adierazten duela zonalde hau goiz samar erromatartu eta kristautu zela (nahiz eta partzialki, ziurrenik, denboran zein espazioan[19]), latinezko maileguek ordezkatu baitzituzten asteko egunen gisako oinarrizko hitzak. Eta hau karistiar-autrigoi lurraldean bakarrik, ez gainetikoan.

Latinetik datorkeen *berba egin* esaten da bizkaieraz, barduliar eta baskoi ohiek eta abar *hitz egin* edo *mintzatu* esaten duten bitartean. Horrela adibide asko bilatuko genituzke iritzi hau oinarritzeko, eta hori ezberdintasun sakonak agertzen dituen aditz laguntzailearen uretan sartu gabe. Erdi aroan euskaldunduak balira lurralde hauek, ez genieke inola esplikaziorik aurkituko aipaturiko fenomenoei.

4.3.- Toponimia

Barduliarrak, karistiarrak etab. indoeuroparrak izan balira eta baskoiak (nafarrak?) beren lurrak okupatu izan balituzte, lurralde horietako euskal toponimia oso nafar kutsukoa izan-

18.- Euskalkien esplikazio klasikoa, hots, antzinako tribu-antolaketaren ondorio direla, ez dago nire ustez kontraesanean erdi aroko mende ilunetan, populazioaren eta milizien lekualdatzeak zirela medio, dialektoen halako gerturatze bat egon zela defendatzen duen tesiarekin.

19.- Ia ez dago aztarna kristaurik Gipuzkoan eta Bizkaian X-XI. mendeak arte.

go litzateke, eta ez da horrela. Gipuzkoa, Bizkaia edo Arabako toponimian ez dago balizko berrizendatzearen arrastorik.

Nabarmendu beharra dago, bestalde, Bizkaiko une batzuetan, Enkarterrietako Valmaseda, Karrantza eta Lanestosa aldean batez ere, eta Arabako hego-ekialdean, Gaubean bereziki, euskal toponimoak ugari diren arren[20], gehiago direla latinoak eta zelta itxurakoak. Honek esan nahiko luke, latinizazio goiztiarraz gain, gune hauek nahiko "zeltatuak" zeudela erromatarrak heldu zirenean. Aztarna asko dago autrigoiak, hizkuntzari eta etniari dagokionean, herri mistoa zirela pentsarazten dutenak.

Gero *Iruña* toponimoa dago, aho-hizkuntzatik eta azken mila urteko agirietatik heldu zaigun lekuaren izen bakarra. Historia gaietan interesatzen ziren banaka batzuek baino ez zuten ezagutzen zuten *Veleia* duela gutxi arte. Pentsa liteke *Iruña* zela Brontze Aroaz gero leku horretan zegoen jatorrizko hiriaren izena. Etimologiari dagokionez, *iri* + *une* + *-a* (artikulua) izan da askotan eman zaion azalpena. Baina beste bat ere izan dezake: ez ote dago hor *–ona* atzizkia, aurrerago, artikuluaz aritzerakoan eta *Garona* hizpide harturik aztertzen duguna? Begira erdal kideari: Pompelona/Pamplona. *Pompeius* lehen osagaia, hiria birsortu bide zuen jeneralaren izena. Bigarrena? *il(i)ona* ez ote, *Hiriona*, hain zuzen? *Iriona-Iriuna-Iruiña* izan liteke bere eboluzioa, bokal-trukeak lehendabizi eta palatalizazioa gero. Gogora dezagun Julio Zesarrek *Garumna* idazten duela ("Garuña" ahoskatuko zen?), *Amunna* agertzen dela San Miguel del Pedroson (759), eta *Garoña* dela gaur zentral nuklearra dagoen lekuaren izena. Eta *ona* eta *(h)una*, biak esaten direla iparraldean.

20.- Besteak beste, Jesus Maria de Sasiak, *Toponimia euskérica en las Encartaciones de Vizcaya*, Bilbao 1966, eta Alfonso Irigoienek, *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Bilbao 1986, aztertu dute Enkarterrietako toponimia.

Deigarria, bestalde, penintsulako hiru hiri eusko-erromatar nagusiak euskal izen bera izatea: Iruña-Pompaelo, Irun-Oiasso, Iruña-Veleia. Hiru hauek kenduta, ia ez dago beste Iruñarik gaur egungo toponimian, Irunberri/Lumbier edo horrelakoren bat tartean sartu ezean behintzat. Erromatarren garaian hainbat *iliberris*[21]*, elinberris* edo *ilunberris* bilatzen ditugu Iberiar penintsulan, Akitanian edo Rosello-n sakabanatuta. Iberieraz ere *ili* esaten zitzaion hiriari.

4.4.- Azken iruzkina

Oso gai eztabaidatua da eta badira euskal filologo eta historialarien artean ere euskalduntze berantiarra defendatzen dutenak. Pentsatzen dut azkenean euskal ostrakak benetakoak direla frogatzen bada pisua galduko lukeela iritzi horrek, nahiz eta beti argudia daitekeen hirian kokatutako komunitate baskoi baten emaitzak direla.

Bestalde, gogoratu beharra dago euskara XVIII. mendearen bukaeran edo XIX.aren[22] hasieran galdu zela eskualde horretan, eta gaur egungo hizkuntza-muga Iruña-Veleiatik 20 bat kilometrora dagoela, Urbina-Elosu-Legutio lerroan.

21.- Izatez *Iliberri*, baina latinezko deklinabideak derrigortzen du nominatiboan -s gehitzera. Berdina da Calagorri(s)en kasua ere (Ik. I. atala).

22.- 2009ko martxoko Geu aldizkarian Kike Fdz de Pinedo filologoaren artikulu interesgarri bat irakur daiteke euskararen galerari buruz eskualdean. Besteak beste, Prestameroren agiri bat aipatzen du, Hendrike Knörrek Humboldt-en paperen artean aurkitu zuena. 1801ekoa da eta zera dio: “Hermandad de Mártioda: se habla bascuenze, 20 vezinos”; “H. de Iruña (Trespuentes, Villodas e Iruña): bascuenze y romanze, 66 vezinos”. Garbi dago, beraz, XIX. mendearen hasieran euskaraz egiten zela artean Iruña inguruan, nahiz eta azken hatsetan egongo zen.

5

Gorrochategui eta Lakarra irakasleen txostenei egindako oharrak eta kritikak

5.1.- Testuingurua

Arkeologian adituak ez garenok ere sarritan entzun dugu diziplina honetan testuinguruak duen garrantzia azpimarratzen (testuinguru geografikoa, historikoa, estratigrafikoa, etab.).

Baina Batzordeko adituen txostenetan ez da ia testuinguruaren aipamenik aurkitzen. Filologoek, adibidez, ez dituzte kontuan hartu testuak ulertzeko funtsezkoak liratekeen alderdiak: balizko egileen adina (gazteak, helduak, irakasleak, ikasleak...), zer helbururekin egin zituzten (eskola edo dotrina ikasteko, oroitzeko, komunikatzeko...), non (eskolan, katekesian, etxean...), etab. Jakina, zertarako burua nekatu, hasieratik dena faltsua dela hain seguru egonda.

Ez dugu erreferentzia askorik Iruña-Veleiako idatzi eta irudiak bere sortze-giroan kokatu ahal izateko, baina uste izatekoa da testuinguru "ofizialetik" urrun jaio zirela, ezin direla pergamino, papiro edo harrizko lapidetako latinarekin eta ikonografiarekin konparatu, eta antzak bilatzekotan Pompeia edo Vindolandako grafitoei edo gisakoei begiratu beharko zaiela. Latinezko testuen kasuan, garbi dago latin herrikoia edo "vulgarra" dela ostraketan agertzen dena, eta jokaleku horretan gauzatu behar direla azterketak.

Latinaren kasuan kontuz ibili beharra badago, are gehiago euskararenean, konparazio-elementuak mila aldiz urriagoak baitira: hitz solteen zerrenda ez oso luze bat, toponimoak eta pertsona- eta jainko-izenak, hain zuzen, latinez idatzitako testu eta lapidetan sakabanatuak.

5.2.- *Contra facta non valent argumenta*

Filologoen txostenetan behin eta berriz esaten da hitz hau edo egitura hori ezinezkoa zela garai hartan, oso argudio eztabaidagarriak erabiliz. Irudimen-ariketa bat egingo dugu zenbait baieztapen borobilen erlatibotasuna agerian uzteko.

Euskarazko lehen esalditzat hartzen dira *Glosas Emilianenses* (X. m.) delakoetan, latinezko kodize baten ertzetan idatzita dauden biak. *Guec ajutu ezdugu* da horietako bat. Zer gertatuko litzateke Batzordekoen betaurrekoekin aztertuko balitz? Faltsutzat joko litzatekeela, ziurrenik.

Guec: mundu guztiak daki *guk* dela zuzena, eta *-ek* izen arrunten pluralgilea dela, ez izenorde pertsonalena; *guec* Lazarraga eta Mikoletarengan dago ia bakarrik dokumentatuta, eta jakina da azkeneko honek ez zuela euskara ondo menderatzen; eta Zigoitiko (Araba) dialekto-hizkera modernoan baino ez da jaso, eskualdean euskara azken hatsetan zegoenean, eta gaur egun hiztun txarrek soilik erabiltzen dute *zuek*-iko analogiaz.

Ajutu: *J* bat X. mendeko euskaran, artean sabaikari frikaririk ez zuenean? Gainera, XV. mendean inprenta sortu zen arte ez zen J-rik erabiltzen. Eta nondik dator berba hau? Latinezko *adiutare*-tik? (“lagundu”). Ez dago euskaraz dokumentatuta. Eta arraroa da *laguntza* edo *laguntasun* hitzak

egonda berba hori aukeratzea. Gainera, ezezkoa esaldia izanda *aiuturik* beharko luke, partitiboan.

Ezdugu: Z bat batuan bezala X. mendean, erromatar garaiko epigrafe zaharretan *S* bakarrik dokumentatzen denean? *Dugu* ekialdeko euskalkietako da eta Donemiliaga, geografiari dagokionez, Arabaren eraginpean egongo zen, asko jota Gipuzkoarenean, eta beraz *dogu* edo *degu* espero zitekeen, ez *dugu*. Horzkari oklusibo ozena gortu egiten da txistukarien atzean (*eztugu*, alegia), baina *ezdugu* irakurtzen da glosan.

Eta "sakontzen" jarrai genezake horrela. Baina gaurgaurkoz inork ez du zalantzan jarri esaldiaren benetakotasuna, eta ezta haren ondoan dagoenarena ere, *jzioqui dugu*, bestea bezain harrigarria. "Contra facta non valent argumenta" dio latinezko esaera zahar batek.

5.3.- Artikulua

Zenbait euskal izenek ageri duten artikulua da Gorrochategui eta Lakarrarentzat faltsutasun-frogarik nabarmenena: "La posibilidad de que algo así se diera en vascuence es nula" (Lakarra, 13. o.).

Artikulua eraman zezaketen hitzen artean, zalantzazkoak eta *a* berezkodunak alde batera utzita, ondorengoak agertzen dira gabe: *aros, [g]ison, gori, ilar, isar, lagun, leio, santu, su, ur, urdin* eta *urte*; eta artikuluarekin *araina, be(l)t(z)a, er(r)ia, lura, ogia, polita* eta *sua.*

San Millango Erreja (1025)

Gorrochategik eta Lakarrak diote artikulua berandu sortu zela euskaran, VII.-VIII. mendeen inguruan, hizkuntza erro-

mantze eta germaniarretan bezalatsu (eta ez grezieraz bezala, dio Gorrochateguik, zeinetan zaharra den). Eta hau frogatzeko *La Reja de San Millan*[23] izenaz ezagutzen den dokumentuan oinarritzen da Lakarra, beste gauza batzuen artean. Jatorrian artikulua *ha(r)* erakuslea dela segurutzat jota, *-ha* bukaera asko aurkitzen du Arabako herrien zerrenda luzea dakarren agirian. Artikulutzat jotzen ditu, eta horretatik artikuluaren berritasuna ondorioztatzen, garai horretan oraindik jatorrizko aspirazioa galdu gabe zuelako.

"Abundantes terminaciones *-hV* o, más precisamente, *-ha*, que alternaban con otras formas en *-a* (la conocida y única forma del artículo determinado) y unas pocas en *-hea* (pleonástica de ambas." (Lakarra, 13. o.). "Alomorfo único (-a) en el artículo, el cual en realidad no consiguió eliminar el más arcaico *-ha* en el s. XI y precisamente en las cercanías de Veleia" (Lakarra, 25. o.).

Mitxelenaren *Textos Arcaicos Vascos* (1964) liburuan kontsultatu dugu zerrenda, eta *-ha*-z amaituriko izen mordoa agertzen da, baina, gezurra badirudi ere, bat bera ere ezin da artikulutzat hartu, ugaritasun edo leku atzizkiak baitira, *-ola, -tza, -ga, -be* : *Adurzaha* (Adurtza), *Hamezaha* (Ametzaga), *Arroiaha* (Arroiabe), *Harriolha* (Arriola), *Hascarzaha* (Azkartza), *Barolha* (Baroja) *Hillarrazaha* (Ilarratza), etab. Balizko *-hea* pleonastikotik, berriz, *Elhorzahea* aurki daiteke bakarrik, gaur egungo *Leorza,* ziurrenik. Eta artikulu nabarmena daramatenetatik bat bera ere ez da *-ha*-z amaitzen: *Hazpurua, Carraluzea, Ermua, Larrea, Olharrea, Ubarundia, Zuhiabarrutia,* etab.

23.- Kukullako Donemiliaga (San Millán de la Cogolla, Errioxa).

Liriako Edalontzia (K.a. IV. m.)

Baiona-Bordeleko Unibertsitateko Hector Iglesias Filologian Doktoreak lan interesgarri bat[24] argitaratu zuen Liriako Ontziko inskripzioaren interpretazioari buruz. Bide batez, artikuluaren antzinatasunaren auziari heltzen dio eta Lakarrari erantzuten. Merezi du irakurtzea.

GUDUA DEISDEA (edo *kutua teistea*): sasoi batean hitz hauek ziren askorentzat euskarazko zaharrenak. Alfabeto iberiarrean idatzita, horixe irakurtzen zuten hizkuntza horretan adituek gerra-irudi baten azpian, euskararen bidez interpretatuta "gudurako deia" ulertzen zelarik. 90eko hamarkadan, Jürgen Untermann filologo alemanak, garaiko autoritate nagusiak, KUTUR.OISTOR-era aldatu zuen irakurketa, horrela euskararen bidezko interpretazioa baztertuta geratzen zelarik, eta bi hizkuntzen arteko ustezko senitasunaren aldeko teoriak oso kaltetuta.

Iglesiasek berriz heldu zion gaiari, eta Untermannen zuzenketari okerra iritzirik, ontzat eman zuen irakurketa klasikoa (hipotesi berri bat proposatuz, hori bai). Kontua da Lakarrak kritikatu egiten diola interpretazio zaharrera itzuli izana, Iruña-Veleiako ostrakekin darabilen argudio berbera astinduz: antzinatean ez zela artikulurik existitzen, eta *gudua deisdea*-n bi daudela baten faltaz, eta Iglesiasen hipotesi berrian (GUDU AT EIZTEA: "guda at uztea", "guda-lekutik urruntzea") bat gutxienez.

Ez dut iritzi sendorik gizaldietan hainbeste eztabaidatu den euskararen eta iberieraren arteko harremanaren gaiaz, bai-

---

24.- Hector Iglesias, 2007, "Observation concernant les récentes critiques et omissions de Joseba Lakarra à propos des recherches d'Hector Iglesias sur la problématique " basco-ibérique" suivies d'une hypothèse inédite concernant a l'inscription de Liria". Artxiker 2007. [Reed. ARSE Boletín anual arqueológico saguntino, n° 42].

na ez zait iruditzen hain zentzugabea euskararen bidez egiten den testuaren interpretazio zaharra, ez eta berria ere. Dena dela, galderek airean jarraitzen dute: euskara ote da? Iberiera da, baina euskararekin bat dator kasualitate hutsez? Askok uste baino hurbilekoagoak dira iberiera eta euskara?

IBARRA Plasenzuela-ko (Cáceres)
lapida erromatar batean

Iglesiasek artikuluaren antzinatasunaren aldeko argudioak ematerakoan, XX. mende hasieran Extremadurako herri horretan agertu zen hilarri bateko inskripzioa aztertzen du.

> D(is) • M(anibus) • s(acrum) • / L(ucius) • Iulius • Lasci/vi (scil. filius) • Ibarra • an(norum) • / XXXIII • h(ic) • s(itus) • s(epultus) • e(st) / [s(it)] • t(ibi) • t(erra) • l(evis) • pater • / f(ilio) • f(aciendum) • c(uravit) / [- - - Las?]civi / - - - - - -
>
> "Dedicado a los dioses Manes, a L(ucius) Iulius [hijo de] Lasciuus Ibarra, de 33 años, está sepultado en este lugar, que la tierra te sea leve. Su padre se encargó de erigir [este monumento] a su hijo."

Ez du ulertzen zergatik gaur egungo euskal filologoek ez duten aipatu ere egiten, eta gogorazten du Alfonso Irigoienek "dont l'autorité et la compétence n'étaient en rien inférieures à celles de Lakarra", duela hogei urte baino gehiago jarri zuela zalantzan artikuluaren berritasunaren teoria, eta euskaltzain bizkaitarraren aipu bat ekartzen digu: "Si realmente está relacionado con el vasco *ibar*, nos llevaría a la cuestión de la antigüedad del artículo *-a* en lengua vasca."[25]

25.- Alfonso Irigoyen, 1985, *Antroponimia y toponimia medievales*. Bilbo. (86. o.).

1972an inskripzioa aztertu zuen Maria Lourdes Albertos adituak ondorengo hipotesia luzatzen du: "Nuestro individuo aparece plenamente romanizado: Lucius Iulius Ibarra, hijo de Lasciuus, ciudadano romano sin duda, si atendemos que lleva los *tria nomina,* y con absoluta seguridad por su *cognomen* indígena, de ascendencia vascona o al menos de una región de habla vasca"[26]. Aipuak jarraitu egiten du eta dio pertsona hori arrazoi familiar edo militarrak zirela medio biziko zela lurralde hartan.

ILLUNA eta TICHIA Iruña-Veleiako auzo batean

Helasse aipatzen du Gorrochateguik esanez "cuya H inicial es precisamente el único rasgo de evidencia de vasquidad en la zona" (13. o.), baina ahaztu egiten zaio ILLUNA (edo *eluna*) hitza aipatzea, nahiz eta hari buruz hitz egiten duen hainbat lanetan.[27] Hitz hori Iruña-Veleia ondoan

26.- María Lourdes Albertos, 1972, "Los nombres eúscaros en las inscripciones Hispanorromanas y un Ibarra entre los Vettones". *Arqueología Alavesa 5*.

27.- Hemen, adibidez: *Estudio sobre la Onomástica indígena de Aquitania.* Bilbao 1984, EHU/UPV; edo "The Basque Language and its neighbours in Antiquity". 1995; edo "Antzinateko euskararen nondik norakoak". Euskaltzaindia 2001. http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/70511.pdf.

dagoen Tresponden aurkitu zen XIX. mendean, etxe bateko ateburuan ipinita zegoen hilarri batean. Galduta dago orain. Aita Fidel Fitak aztertu eta transkribatu zuen bere garaian. Dirudienez, hiru lehen letrak erditik moztuta zeuden eta ILL edo IIL irakur zitekeen. Gorrochateguiren ustez, *Iluna* (kolorea) bezala interpreta daitekeen emakume-izen bat izango zen. Hala balitz, artikulu garbi baten aurrean geundeke, hitzaren erroa *ilun* baita. Ez dago argazkirik, baina hona hemen Fitaren kalkoa eta aipua.

"La inscripción 2936, que existe en Trespuentes, en el quicio de la puerta de entrada a la casa de D. Juan López. Léese claramente con toda sus letras y con su forma arcaica:

RHODANVS
ATLI·F·SERVOS
AN·L
TICHIA·VXOR
*ill*VNA·SOCRA
I·E

Rhodanus Atili f(ilius) servos an(norum) L Tychia uxor [Ill?] una socra. I(c) e(st).

Aquí yace Ródano, siervo, hijo de Atilio, de 50 años de edad. Pusiéronle esta memoria su mujer Tiquia y su suegra Illuna.

Padre de Ródano fué probablemente Vinio Atilio, cuya lápida sepulcral se nos ha descubierto. Fácil se hace suponer que la raíz de *Tichia* sea τύχη (fortuna). Desgraciadamente están cortadas por la mitad inferior las tres primeras letras del nombre que encabeza la última línea, pudiéndose leer IIL ó ILL, y resultando el nombre *Eluna*, ó mejor *Iluna,* cuyo radical aparece con frecuencia en inscripciones de la región

pirenaica: *Iluni deo, Herculi Ilunno Andose, Uriaxe Ilunnosi filia, Astoilunno deo."*[28]

Susmoa nuen TICHIA *Tikia* izan zitekeela (Txikia), pertsona izen bat. Hau da, hildakoaren emaztea *Illuna* eta honen ama *Tikia*. Iglesiasek, Fitak bezala, uste du, ostera, izen greziar bat dela, *Eutychia*-ren kidea.[29] Arrazoia dute ia seguru.

-ona bukaturiko toponimoak

Julio Zesarrek K.a. 50. urte inguruan idatziriko *De Bello Gallico* liburuan lau aldiz[30] agertzen da *Garumna* (Garona ibaia) toponimoa. Garonaren etimologia "garo (ibai) ona" izan daiteke, eta beraz artikulua geneukake hor ere. Bittor Kapanagaren *Erro eta Gara* liburua (1978) aintzakotzat hartu gabeko harribitxi bat da nire ustez. *Gar* erroaren antzinako esanahietariko bat "ura" dela dio otxandiarrak. *Garbi, garden, garaztatu, garo, negar, garnu...* jartzen ditu adibide. Toponimian ere arrasto ugari bila genezake: Pirinio iparraldeko ibaiak, esaterako: *gave* de Oloron, *gave* de Pau... (Biarno eta Bigorrako ibai askoren izena), Garona, eta abar; edo eta hegoaldean Ega, Arga... Eta agian zenbait leku-izen: Gares, Bergara, Igara eta abar. Eta Euskal herritik oso urruti ere badira Gara izeneko ibai eta lakuak. Argazkikoa, adibidez.

28.- Fidel Fita, 1883**,** "Lápidas romanas de Iruña y León". *Boletín de la Real Academia de la Historia* [Publicaciones periódicas]. 3. alea, 385 o.

29.- Iglesias, 21. o.

30.- Hiru aipamen lehen atalean datoz: 1) *Gallos ab Aquitanis Garumna flumen (...) dividit:* "Garona ibaiak banatzen ditu Galiarrak eta Akitaniarrak". 2) *Eorum una pars, quam Gallos obtinere dictum est, (...) continetur Garumna flumine*: "Horietako parte batek, lehen esan dugun Galiarrenak, Garona ibaiarekin egiten du muga". 3) *Aquitania a Garumna flumine ad Pyrenaeos montes et eam partem Oceani quae est ad Hispaniam pertinet; spectat inter occasum solis et septentriones:* "Akitania, iparraldean eta mendebaldean Garona ibaia duena, Pirinio mendietaraino eta Hispanian dagoen ozeanoaren parte hartaraino hedatzen da".

Gara river, Devon (England)

Garai hartako toponimian ugari dira *-ona* bukaturiko herri-izenak, nahiz eta deformatuta agertu latinezko deklinabideagatik: *Turiasona* (gaurko Tarazona), *Alavona* (hiri baskoia, Zaragozatik hurbil dagoen Alagón) edo *Pompelona* (Pamplona) bera, nominatiboan *Pompaelo* gisa agertzen zaiguna. Eta urrutixeago Carcasona, Tarracona, Barcinona edo Narbona. San Millango Errejan Iscona, Eztarrona, Irosona eta Bergilgona. Deigarria da zenbat leku-izen egon den eta dagoen *-ona* bukaerarekin Euskal Herrian zein kanpoan. Jatorri "ligurea" aurkitu izan dio zenbait adituk osagai honi. Baliteke horrela izatea, balitekeen moduan gure aro aurretxora arte Proventzan eta Italiako Iparraldean egiten zen hizkuntza hura eta euskara senide hurbilak izatea. Baina ez ote litzateke zuzenagoa pentsatzea euskarazko "ona" dela, besterik gabe? Baiona, Larraona edo Uriona-n dagoen osagai berbera?

31.- Aranna 828an dago dokumentatua, baina bada lehenagoko agiri bat (759), San Miguel de Pedroso-ko (Belorado ondoan, Burgos) lekaimetxearen sorrera akta, non hainbat euskal emakume-izen agertzen den: Amunna, Monnia, Scemena, Umma, Munnoza, Sancia, Anderazo, Anderquina, Gometiza, Urraca... *Amunna* "ama ona"tik badator, hor ere artikulua izango genuke.

Beste arrasto batzuk

Goi Erdi Aroko agiri goiztiarrenak artikuluan amaituriko toponimoz eta antroponimoz beteta daude: Aranna, Larrehederra, Galvarra, Balza, Belasco Ahardia, Lope Salduna, Sansa Leuna..., nahiz eta dokumentazio zaharrena ez doan IX. mendea baino askoz atzerago.[31] Bestalde, toponimian badira latin jatorri garbiko hainbat izen artikuluarekin, Ermua, (*eremus*-etik, "basamortua, bakartia"; horrela agertzen da Errejan), edo Forua (*forum*-etik, azoka), adibidez, eta zentzuzkoa dirudi pentsatzeak artikuluaren jabe direla hasieratik.

Zenbait iruzkin euskal artikuluaz

Euskal artikulua edo determinazioa (-a) eta erromantzeetako artikulua (*el, la,* gazteleraz) parekatzea ez da zuzena. Jose Luis Iturrioz Leza-k[32] badu lan[33] argigarri bat honetaz. Adibide askorekin azaltzen du erdaraz artikulurik ez den testuinguru askotan erabiltzen dela *-a.* Banaka batzuk aipatzearren: *Mi padre es médico*/ nire aita medikua da. *En Islandia hay fuentes termales*/ Islandian iturri termalak daude. *Hubo una sequía terrible*/ idorte izugarria egin zuen. *Trabajan en equipo*/ ekipoan lan egiten dute.

Honi gehitu behar euskal "artikuluak" jokatzen dituen funtzio sintaktikoak, besteak ez dituenak. Adibidez, erlatiboa nominalizatzeko: *urak dakarrena*; *esan duzuna*; edo eta partizipioa: *Afrikan izana da*; *aspaldi ikusia nuen.*

32.- Euskal jatorriko hizkuntzalari errioxar hau Linguistika Orokorreko irakasle izan zen EHUn (1983-85). Gero Mejikora emigratu zuen, Guadalajarako Unibertsitatera. Hainbat hizkuntza indigenaren azterketak egin ditu.

33.- "La función de *-a* y de *-ta* a la luz de dimensión de la individuación". Euskera XXX, 1985.

5.4.- Fonetika eta grafia

Aspirazioa (<h>)

Hatxerik ez omen da agertzen eta hori faltsutasun froga garbia da filologoen iritziz. Baina abiapuntuak huts egiten du. Badira gutxienez bi hatxe ostraka euskaldunetan: HAIE[?] (15924) eta NAHI (21658).

Esan daiteke frogatuta dagoela euskarak aspirazioa zuela erromatarren garaian, hatxea nonahi agertzen baita Akitaniako eta Nafarroako lapidetan (baita Arabako *Helasse*-n ere). Eta itxura guztien arabera aspirazioak jarraitu egin zuen, Araban bederen, Goi Erdi Arora arte, horren lekuko Errejako (1025) eta beste agiri batzuetako hatxeak.

Edozein modutan, ahoskatzeak ez du esan nahi aspirazioa idatziz adierazteko beharra sentitzen zutenik, batez ere kontuan izanda euskal idazkera ez zela batere arautua egongo eta jendearen trebakuntza eskasa. Jo dezagun aspirazioaren egoera Iparraldeko gaur egungoaren antzekoa zela. Lurralde horretako zenbait irakasleri galdetu diegu ea alfabetatu gabeek euskaraz idazten hasten direnean hatxeak bere lekuan jartzen dituzten, eta ezetz erantzun digute, normalean ez dituztela jartzen.

Gainera kontuan izan behar da aspirazioa aspaldi desagertua zela latinaren ahoskeratik eta *h*-aren erabilera konbentzio baten ondorioa zela, gaur egungo hizkuntza askotan gertatzen den bezala.

DENOS ZURE NAIA (13368 b): pieza honek joko handia eman die bi filologoei. “Denok zure nahia” bezala ulertu dute, eta ezintasun ugari aurkitu dizkiote: *denok* modernoa eta ekialdekoa da, eta hasierako *d* eta plural hurbileko *-o* artikulua ezinezkoak ziren garai hartan. Naia-ri, berriz, *h* falta zaio eta artikulua du sobera; *naniha*, *nahia* edo *nahiha*

behar omen zukeen. Baina DENOS irakurtzen da argi eta garbi. Eta pertsona-izen zelta bat izan daiteke[34]. Eta NAIA, berriz, "nahia" "borondatea" izan liteke, baina aNAIA ere bai. Senitasun-izen gehienak hasierako bokalik gabe agertzen baitira: ATA-AMA / NIIBA-RIIBA / SIIBA- SABA / MONA. (13393). Bada beste ostraka bat ere non NAIAk anaia esan nahi duela dirudien: III NIIV NAIA NIIVRII. (13394 a).

Naia-rekin jarraituz, gogoratu bizkaieraz *neba* (bi aldiz agertzen da ostraketan) esaten diola neskak "anaiari", eta *loba* erabiltzen dela beste euskalkietako *iloba*ren lekuan.

Ildo honetan merezi du aipatzea Cantar del Mío Cid obran (XII. edo XIII. m.) badela Minaya Álvar Fáñez izeneko pertsonaia inportante bat, Cid-en lehengusua eta konfiantzazko gizona. *Minaya* deitzen zaio besterik gabe askotan. Aditu gehienek uste dute "mi anaia"tik datorrela, nire anaia, alegia. Ez da ahaztu behar garai horretan artean euskaraz egiten zela Burgos iparraldeko eta Errioxa Goieneko eskualde batzuetan.

755] *Firmes son los moros, aun no se van del campo.*
Cabalgo Minaya, el espada en la mano,
Por estas fuerças fuertemiente lidiando,
A los que alcança valos delibrando.

Garai hartako biztanleen hizketaz zalantzak badaude, are handiagoak ahoskeraz, ez baitugu, noski, orduko grabaziorik. Grafian eta abar oinarrituz ondorio batzuk atera daitezke, baina oso lur labaina da, eta espezialistak ere ez dira askotan ados jartzen. *Anquises* hitzaren grafiaz eta ahoskeraz sortutako polemika gogoratzea besterik ez dago.

34.- Iglesias, 62. o.

T = TS eta TZ

Ostraketan < t > erabili da -ts- eta -tz- soinuak transkribatzeko. AMET, ENTU eta BETA aurkitzen ditugu, *amets*, *entzun* eta *beltza* ulertzen ditugunak.

"La inverosimilitud de tales grafías para el Bajo Imperio (y, quizás para cualquier otra época de la Historia de la Humanidad) es absoluta: jamás una < T > podría equivaler a una < ts > y < tz > vascas modernas." (Lakarra, 9. o.).

Baieztapen borobilegia iruditzen zait, batez ere kontuan izanda soinu horiek transkribatzeko egon den zailtasuna eta bilatu diren soluzioen ugaritasuna. Nahiz eta Lakarrak behin eta berriz azpimarratu gertaera horren ezintasuna, berak esaten du latin berantiarrean *tristitza* edo *tristitzia* ahoskatzen zela *tristitia* idazten zena. Gauza bera gertatzen zen *positio, solutio, iustitia* bezalakoekin ere. Hau da, *i* baten aurrean bai, baina beste testuinguruetan "sekula ere ez"?

Baina ez da egia soinu horiek ez direla < t > bidez transkribatu "en ninguno de los idiomas a este lado de los Urales (y también posiblemente más allá)", Lakarrak dioen bezala. Urrun joan gabe, hemen bertan. Hector Iglesiasek bere lanean Akitaniako lapidetako[35] BIHOTVS, BIHOTAR eta BIHOTARRIS aipatzen ditu, non "bihotz" hitzaren -tz- T letraren bidez transkribatzen den. Lehena BIHOXUS eta BIHOSSUS formez ere agertzen dela diosku. Adibide honek garbi adierazten ditu inguruko hizkuntzetan ez ziren soinu txistukari afrikatuak transkribitzeko garaian orduko euskaldunek zituzten zalantzak.

Eta honaino helduta, beste galdera erretoriko bat, *guec ajutu ezdugu*ren kontura hasieran egin dugunaren antzekoa: zer gertatuko litzateke gaur aurkituko balitz HERAVSCO-

35.- Iglesias, 98-101 o.

RRITSEHE jainko-izena jartzen duen lapida, Zuberoako Santa Maidalena baselizan aspaldi agertu zena? Modernotzat hartuko genuke haren TS ikusgarria, eta zalantzan jarriko genuke antzinatasuna?

S eta Z

< s >z ageri dira ondorengo berbak: *bisi, esquero, esta, [g]ison, isar, saba, seba, santu, serana, sua, sutan, suti.* Eta < z >z : *izan, zure, zeure, zuene, zutan* eta *zuti(k?)*.

< s >ri buruz zera dio Lakarrak: "era la única que podía cumplir con el cometido de representar toda suerte de sibilantes sordas y, concretamente, la apical (< s >) y la dorsal (actual < z >)." (8. o.). Gorrochategui ere bat dator Lakarrarekin, zeren eta hizki hori "era reservada en todo el Imperio a unas pocas voces griegas (u orientales llegadas al latín a través del griego) en las que equivalía de manera sistemática a sibilantes sonoras: *Zeus*, etc." (8. o.).

Aurrez ere esan dut oso arriskutsua dela hain aspaldikoak diren eta hain gaizki ezagutzen ditugun gauzez hain baieztapen borobilak egitea. Oso litekeena da < zu > eta bere eratorriak, beste hainbat hitz bezala, beste txistukarien gisa ez ahoskatzea[36] eta hura transkribatzeko grezieratik hartutako zeinu grafiko bat erabiltzea, guztiz ezaguna zena, bestalde, kultura erromatarrean. Ez da ahaztu behar agertzen dela hizki hori aztarnategian aurkitu den abezedario oso bakarrean. (15542). Beste biek ertzak (Z-ri dagokion lekua) hautsita dituzte.

36.- Iglesiasen iritziz (87. o.), / tz / soinua du < z >k ostraketan: **tzeure**, **itzan**, etab. "L'erreur de Gorrochategui s'explique manifestement par le fait qu'il croit, à tort cependant, que dans ces inscriptions le < z > "que aparece en **zure, izan**" sert à noter à l'epoque une fricative alors qu'en réalité il doit noter une affriquée: **tzeure > < ZEURE>, itzan > < IZAN >**.

Bestalde, hainbeste aldiz aipatutako *jzioqui dugu* eta *guec ajutu ezdugu*-n ere ageri da < z > , eta zer esanik ez Errejako herri-zerrendan: Hazua, Harhazua, Mizkina, Narbaiza, Hazpurua, Mendoza, Eztarrona, Zavalla, Zuhia, Zuffia, eta nahi beste.

K eta **QV** (qu)

K letra *eskon* (neu Corne eskon), *laike* eta *zutik*-en[37] aurkitzen dugu, eta QU[38], berriz, *esquero*-n

"El ESQUERO (con < QU >, no con < Q > !!) y ESKONDU (con < K >, insólito en este contexto en latín) viene a mostrar que al autor veleyense se le ha escapado en un texto del s. III-IV grafías castellano-vascas (la 1ª) unos 1000 o 1500 años posteriores y, aun peor, grafías vascas meridionales posteriores a 1850 ó 1900." (Lakarra, 9. o.).

< qu > letra 1000 edo 1500 urte geroagokoa omen da euskaran. Ez al da ba agertzen (orain arteko) euskarazko lehen esaldiaren lehen hitzean, X. mendeko *jzioqui dugu* famatuan?, eta /ki/ soinuaz, itxura guztien arabera. Eta gainera, nola transkriba zitzaketen bestela /ke/ /ki/ soinuak? < k > ren bidez, agian? Honek ez al gintuen ba 1850 edo 1900era ekarriko?

< k >ri buruz esan bakarrik letra hori ez asko baina erabiltzen zela latinez, batez ere grezierazko eta beste hizkuntza batzuetako hitzak transkribatzeko, eta ageri dela abezedarioa dakarten hiru ostraketan. Horregatik ez zaigu batere harrigarria egiten *eskon* hitza transkribatzeko erabili izana.

Gogoratu 1025eko Errejako herri-izen ugari agertzen dela *k*-z idatzita: Kirku, Mizkina, Helkeguren, Kinea, Guzkiano, Okerruri, Kerrianu...

37.- Irakurketa zalantzazkoa da: zvtik/r?

38.- Ez daukagu inskripzioaren argazkirik.



Quintas Arg., I/V III. Milurtea Proiektua

Alfabetoa eta zenbakiak dituen pieza

5.5.- Lexikoa

ARAINA: "Nuestra forma *arraina* es pues una variedad moderna y dialectal", ondorioztatzen du Gorrochateguik (17. o.) 16365 zenbakia duen ostraka aztertu eta hainbat desegokitasun bilatu ondoren, artikuluaz aparte. *Deum vocant Urcia (...), carnem aragui, piscem* ***araign,*** *domum echea, dominum domus iaona...*, idazten du Aymeric Picaud-ek 1132ko *Codex Calixtinus*-ean. Bere lehen agerraldian Iruñako ostrakan bezalaxe azaltzen zaigu hitza. Beraz, "variedad moderna" ezta inondik ere. Dialektala beharbada bai, hitz zahar guztiak bezalaxe, denak bizi izan baitira dialektoen baitan, nahiz eta badakigun *arrain* dela baturako hautatu zen forma.

ARRAPA: "ARRAPATU es antes germánico que románico y, por tanto, escasamente probable en la Veleia del s. III". (Lakarra, 13. o.). Gorrochategui ere iritzi berekoa da; esaten du Corominasek *hrapon*-etik[39] datorrela dioela. Eta beste arazo bat: hasierako *a* proteikoa, *Roma*-ri falta zaionean.

Kontuan izanda latinez *rapere* aditza arrunta dela (partizipioa *raptum*), eta hainbat hizkuntza erromanikotan existitzen zela hitza (*arrapar* espainieraz, katalanez eta okzitanieraz, *arrappare* italieraz) zentzu berdintsuarekin ("norbaiti kendu", "indarrez hartu"), nahiko garbi dagoela uste dugu latinezko aditz horretatik eta horren aldaeraren batetik igaro zela euskarara[40].

Roma hitzaren *a* proteiko ezari dagokionez, ez da batere harrigarria inperioaren hiriburu-izena latinez egiten zuten bezala idaztea. Gaur egun ere Euskal Herriko leku askotan *Romara joango gara* esaten da, *Rusia* eta *Rumania* bezalaxe.

AROS(A) (arrosa): Gorrochateguirentzat, *berde* uler daitekeen BER-ekin[41] batera, zera dira: "prestamos evidentes del español: *arosa* de una cronología muy moderna y *berde* más antigua". (18. o.).

Rosa-rosae, lehenengo deklinaziokoa, izan zen latineko klasean ikasi genuen aurrenengo gauza. Orduan, zergatik harritu euskarara *ar(r)os* forman pasatu baldin bazen erromatarren garaian (edo *arosa*, ertza apurtuta baitu zeramikak), bere a proteiko eta guzti. Logikoena dirudi. Honi erantzun dakioke lorea eta kolorea nahasten ditugula, baina kasu

---

39.- *Ehun* (eta ez *arrapa*) hitzari buruz ari den arren, Mitxelenak zalantzan ipintzen du germaniar hizkuntzen ekarpenaren pisua: "La influencia germánica, gótica sobre todo, en el léxico de los romances hispánicos o galos, estudiada con detalle, es en resumidas cuentas muy pequeña, aparte de aquellos elementos (como *guerra*, etc.) que desde muy pronto se incorporaron al latín occidental. No resulta, pues, fácil de aceptar que los vascones, cuya actitud rebelde ante la dominación es bien conocida, tomaran de estos germanos la palabra equivalente a "cien" que no habían tomado del latín". *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Edit. Auñamendi, 1964. [Berarg., SHLV, 45. o., Joseba Lakarraren edizioa].

40.- Iglesiasek sakon aztertzen du gaia (41-44 o.).

41.- 13397a.

horretan ere *roseus, -a, -um* izango genuke, nondik lasai asko etor daitekeen *arrosa*.

LAGUN: Lakarraren aburuz, "el LAGUN de OSO_MARCUS (15921) no es aún hoy 'amigo' más que en dialecto vizcaíno, pero no en el resto, donde es únicamente 'compañero" (21. o.). Argudiatzen jarraitzen du esanez *adiskide* dela hitz komuna esanahi horretan, eta *lagun* baino zaharragoa ziurrenik euskalki horretan ere.

Batetik, aski da kontsulta txiki bat egitea euskalki ezberdinetako "lagunei" edo "adiskideei" konturatzeko gaur egun *lagun* "amigo/ami-e" dela ia leku guztietan. Bestetik, zera irakurtzen dugu Orotariko Euskal Hiztegian *lagun* hitzaren azpian: "Se recoge la acepción 'amigo' con las siguientes ref. dialectales: (V, G, AN-sept-olza, L-sar-arcang, BN-arb-ad-baig)". Hau da, bizkaiera, gipuzkera, goinafarrera, lapurtera eta behenafarrera.[42]

Gauza bat da *adiskide* izatea hitzik egokiena eta tradizio handienekoa zentzu horretan, eta beste bat goikoa bezalakoak esatea. Argudiaketa ere harrigarria egiten zaigu, *lagun*-ek "adiskide" esan nahi badu bizkaieraz, eta jakinda Iruña-Veleiako karistiarren euskalkia hori izan zitekeela, zer du arraro *lagun* batek ostraka batean?

POLITA: "Se trata de un préstamo tomado en vasco de romances septentrionales (occitano, gascón *poulit*" (Gorrochategui, 19 o.). Filologo biek tinta asko isurtzen dute hitzaren ezintasuna frogatu nahiz: hitzak ez omen zuen orduan ostrakan dagokion "bonito" zentzua, "pulido" baizik; erromatarren garaian pasatzera **boritu* (hasierako /b/, bokal

42.- Gure "lagun" batek Axularren Gero goitik behera arakatu du, eta Villasanteren gaztelerazko itzulpenean 14 *lagun* aurkitu ditu "amigo" hitzarekin itzulita.

arteko /r/, maskulinoa) beharko zukeen, eta inoiz ere ez *polita*.

Esan dezagun lehenik, gure hiztegien arabera, *politus, -a, -um*-ek "dotorea", "ederra" ere esan nahi zuela: "*Polita domus:* habitación adornada con elegancia (Varron); *cubiculum politissimum*: alcoba muy elegante." (Plinio)[43]

Eztabaida daiteke noiz eta zein hizkuntzaren bidez sartu zen euskarara hitz hori gaurko esanahiarekin,[44] baina auzia ez da hori, garai horretako euskaran agertzeko ezintasuna baizik. Gauza jakina da *politus, -a, um* hitz arrunta zela latinez. Iruña-Veleia-ko gazte elebidun batek bere amari *domus nostra polita est* esaten bazion, eta honek, entzun edo ulertu ez ziolako, *zer esan duzu?* galdetu, arraroa iruditu litzaiguke gure *etxea polita da* erantzungo balio, latineko hitz bera erabiliz? Gaur egun ere normaltasun osoz esaten ditugu honelako esaldiak: *–Qué te ha parecido la película? –Impresionante. Inpresionantea iruditu zait.*

URDIN eta GORI: Lakarra mihipekorik gabe ari da bi hitz hauen kontura: "Que ni *gorri* ha sido históricamente "rojo" ni que, desde luego, *urdin* es ni ha sido históricamente "azul" están fuera de discusión. (...). Aún hoy (*gorri*) significa bastantes otras cosas como "desnudo", "pelado", etc., y la onomástica medieval y moderna está llena de *gorris* "rubios" o "pelirrojos" (...). La cuestión de *urdin* es más clamorosa aún: ningún hablante nativo desconoce todavía que *urdin* no equivale a azul –aparte de qué pintan en Veleia las

43.- *Diccionario Sopena Latino-Español*. Barcelona 1985.

44.- Arabako Lazarragaren lanean (1567 ingurua) behin agertzen da: *Arzai polita, ik jakingo dok eze guek goazela Dueroko riberara.* [literalki: *arçai polita, yc jaquingo doceçe guec goaçela Dueroco riberara*]. Gaztelera zaharrean *polida cosa* bezalako espresioak ohikoak ziren. Italieraz *pulito*k "garbia", "txukuna" esan nahi du.

estrellas azules[45] de Rubén Darío y otros modernistas?– sino, más bien, una serie de tonalidades que incluye gamas (pero no el conjunto) de azules, verdes, marrones, grises y blancos. (...). Es difícil, más bien imposible, que *gorri* y *urdin* fueran nombres de colores y, en concreto, de rojo y azul en el s. III ni en ningún otro". (21.o.).

Iruditzen zait hau berez komentatzen dela. Nork esan du ostraketako *gori* eta *urdin* hitzak kolore gorriari eta urdinari dagozkiela soil-soilik? *Veleia(n) gori* irakurtzen dugu behin baino gehiagotan; egia esan, mila zalantza izan ditzakegu esanahia asmatzeko orduan, baina ez dut uste kolore gorriko Veleia bati buruz ari denik[46]. *Urdin* hitzak, berriz, gauza jakina da kolore gama zabala hartzen duela, azula barne.

5.6.- Aditz jokatuak

Ondorengoak agertzen dira: TU (*du, dut...* zentzuan), NA (*naiz*), ESTA (*ez da*), erlatibozko DAN(a?), SERANA eta aginterako BADI/BETI. Badirudi LAIKE ez dela aditza.

Zera dio Lakarrak: "la morfología verbal es extremadamente pobre, por decir algo", (15. o.). Dena dela, ez da dozenara helduko aditz laguntzailea eraman dezaketen esaldiak, oso egitura xumea eta eliptikoa duten esaldiak baitira. *Neu corne eskon.// XI urte tu.// Neure ama Roman ilta,* dira horietako batzuk.

"*XI urte tu"* esaldian eta beste batzuetan agertzen den TU formari buruz ez zait batere harrigarria egiten. Ezta garai hartan *du*, *dau*, *du* edo askoz lehenagorako zenbaitek proposa-

45.- Iglesias 44. o. eta ondorengoetan luze ari da honetaz.

46.- Epigrafe honetaz ari da: VRDIN / X / ISAR (15147).

tzen duen **dadu* bezalako formak izan balira ere ohikoak. Aditz jokatuak, laguntzaileak bereziki, mila modutara esan ohi dira eta ez da gaur ere harrigarria kontrakzioz *Lagunak ikusitu* bezalako esaldiak entzutea.

TA (*da*)[47] laguntzaileari buruz ere antzeko zerbait esan daiteke. DAN[A?] aurki daiteke 13374b-n, SAMU[EL] VELEI[AN] [P]ATHE[R] DAN[A], beste TA guztiekin kontraesanean dagoena Gorrochateguiren ustez. Baina zergatik? Garai ezberdineko ostrakak izan daitezke, edo pertsona ezberdinenak, edo pertsona berak modu ezberdinean idatz dezake hitz bera. Honek begi-bistakoa dirudi baina gogoratu beharra dago, nonbait.

Zera dio Gorrochateguik ESTAri buruz: "la forma negativa *esta* (que suena exactamente igual que en la actualidad) muestra también la negación como en época histórica: ahora bien, teniendo en cuenta que en el vasco del s. XVI la negación de las formas indicativas es *çe,* habría que suponer una forma anterior de la negación como *eze." (18. o.).

Zera irakurtzen dugu OEHn *ez* hitzaren azpian: "De uso general en todas las épocas y dialectos. *Ze* aparece en textos vizcainos antiguos, **siempre con imperativo o subjuntivo**". Beraz, betidanik erabilia eta ez "negación de formas indicativas" bezala. Gogora dezagun *ez* agertzen dela orain arte euskaraz dokumentaturiko bigarren esaldi zaharrenean, *guec ajutu ezdugu* lehen ere aipatuan.

Zera dio Lakarrak IIGIN BADI ZVRII-ko BADI inperatiboaz: "Formas como *badi* de **edin* son imposibles como imperativos, por mucho que estén documentadas tardíamente (s. XIX) como contracciones del eventual." (16. o.).

47.- Iglesiasek ILTA *hilda* partizipioa dela uste du (111. o.).

e-a alternantzia oso ohikoa da euskaraz: *berri/barri, beltz/baltz...,* eta **edin*-en laguntzaileetan ere ematen da: *dadin/dedin*, etab. Horregatik ez zaigu hain bitxia egiten *bedi*-ren aldaera datekeen *badi* bat aurkitzea. *Bedi* etengabe agertzen da euskaraz argitaratutako lehen Aitagurean (Gure Aita-n, hobeto esanda), 1571eko Leizarragarenean:

Gure Aita ceruetan aicena,
Santifica bedi hire icena
Ethor bedi hire Resumá,
Eguin bedi hire vorondatea[48]

5.7.- Izenordeak eta posesiboak

Ondorengo izenorde eta posesiboak aurkitzen ditugu, eta horrenbeste aldiz: *neu* (12), *neure* (10), *nere* (1), *geure* (4), *zure* (2), *zeure* (1), *zutan* (5), *zuene* (1). Ez da erraza bi filologoek bilatzen dizkieten arazoak laburtzea. Ahaleginduko naiz gehiegi ez luzatzen azalpen zein iruzkinetan.

NEU, GEU: Lakarrak dio ezinezkoak zirela garai hartan eta izatekotan ere *neur* edo *geur* espero behar zela. Ulertzekoa da bere logika berreraikitzaileari jarraituta horrelako ondorioetara heltzea, baina ziur dakiguna da bi hitz horiek oso aspalditik ageri direla dokumentatuta: *Geu*: "Propio de la tradición vizcaína y de uso prácticamente general en este dialecto" (OEH). *Neu*: "Propio de la tradición vizcaína y de uso prácticamente general en este dialecto desde el s. XVII". (OEH).

GEURE: "Documentado ya en Betolaza; es de uso general entre los vizcaínos. (...). Es de uso anafórico (es decir, con

48.- Joanes Leizarraga, 1571, *Jesus Chist Gure launaren Testamendu Berria*. Rotxela.

el antecedente en caso ergativo, absoluto o dativo dentro de la misma oración), por los autores alto-navarros y septentrionales, **pero los guipuzcoanos y vizcaínos, ya desde los primeros textos, lo usan sin estas restriciones**". (OEH). Lakarrak ez dio arazorik bilatzen, baina bai Gorrochateguik: "Otra característica de estas formas, común y general a todos los dialectos vascos al inicio de la tradición literaria, es su empleo reflexivo, es decir, se emplea cuando hay una concordancia de su referente." eta Lazarragaren adibide batekin ilustratzen du: "*Gure onrrea jarriric/ geure açean guk darabilgu".* (15. o.). Ikus dezakegunez, Gorrochateguiren jarduna kontraesanean dago hiztegi orokorrak dionarekin.

NEUREri buruz antzeko zerbait esan daiteke: "General entre los vizcaínos desde los primeros textos". (OEH). Gorrochateguik, ostera, honako hau idazten du: "Es llamativo, en conclusión, que en ningún ostracón se documente la forma de pronombre posesivo de primera persona más antigua, que sin duda alguna es *ene* (nº 13412 muestra la secuencia *zuene* donde la segmentación *zu ene* no está asegurada), mientras que tenemos en su lugar formas modernas surgidas ya en época totalmente literaria a partir del s. XVI en adelante." (15. o.).

ZURE: "Por lo que toca a los pronombres sólo tenemos ZU, el cual en principio (cf. *ni, hi, gu)* sólo pudo significar "vosotros". En todos los casos, en veleyense *zu* significa "tu" (algo que no conseguiría en unos 1600 años), ni siquiera "usted", para lo cual sólo le faltaba un milenio." (Lakarra, 15. o.).

Baina OEHn ondorengoa irakurtzen dugu: "Aunque existe consenso entre los gramáticos sobre su carácter originariamente plural, **ya desde los primeros textos sólo se documenta *zu* con valor singular**."

Zantzu askoren arabera, jatorrian *zu*-k zentzu plurala izango zuen. Litekeena da erromatarren garaian aldaketa hastea, oso hierarkizatua zegoen gizarte haren baitan (patrizioak, erromatar hiritarrak, militarrak, libertoak, esklaboak...), non trataera errespetuzkoak eta klasistak nagusituko ziren. Horregatik ez da batere harrigarria *egin badi zure* (borondatea?) (13364), jainkoaz jarduterakoan, IV. mende aldera.

Nonbait ez dago oso garbi idatzietako ZEURE bakarraren auzia, Lakarrak apunte hau egiten baitu: : "Parece que hay un ZEURE de vosotros"[49], baina berarentzat zera besterik ez da: "uno de los 'estilemas' utilizados por el falsificador para hacer más verosímil el conjunto." (14. o.).

ZUTAN: "Locativo plural animado ZVTAN (*Geure ata zutan,* repetidas veces), frente al vasco occidental *zugan* (-> *zuengan*), con empleo de sufijo *-ga*. Es un hecho dialectal, posterior a la unidad del vasco común, que en su variante *zutan* se documenta especialmente en la zona septentrional." (Gorrochategui, 14. o.).

Geure *ata zutan lau* aldiz agertzen da. *Geure ata sutan serana santu,* dio alde batean 17050 piezak, eta bestaldean horrela jarraitzen du: *isan beti sure isena etor*. *Aitagurea*ren hasiera dela esan daiteke zalantza handirik gabe. *In caelis/zeruetan*-en ordaina da hemen *zutan* edo *sutan*. Zergatik ote? Zaila da jakitea. Aitagureaz jarduterakoan aurreratu dugu hipotesi bat.

49.- Gorago aipatu dugun 13397 piezaz ari dela dirudi.

5.8.- Ergatiboa

Ergatibo eza da atentzioa eman duen beste gauzetariko bat. Hasteko, komeni da jakitea pare bat esaldi direla ergatiboa izan zezaketenak: *Neu XII urte tu* (15920), eta *Neure ata arraina arrapa* (16365b).

Gorrochateguik ondorengoa dio: "Evidentemente no sabemos si el vasco del s. III d.C. poseía en el nombre el caso ergativo como el que ya se documenta desde las primeras glosas emilianenses. (Muy probablemente esperaríamos un morfema con un aspecto muy parecido a +-GA). Pero estas piezas muestran unas formas tan actuales en sus posesivos, pronombres personales, participios, etc., que es lógico pensar que la lengua también tuviera ergativo." (16. o.).

Arazoak azalpen errazekoa dirudi. Ergatiboa existituko zen, noski, baina "idazleek" oso ohiko akats bat egin zuten, etxe-etxekoa zaiguna gaur egun ere. Ostraka askoren egileak ikasle gazteak izan zirela dirudi, eta gauza jakina da zein erraz lurruntzen den ergatiboa, batez ere gazteetan eta diglosia egoeretan. Aski da gaur egun nola erabiltzen den ikustea, baita euskaraz eskolatutako pertsonen artean ere.

5.9.- Arkaismoak eta hapaxak

"El léxico veleyense es reducido y escogido, apto sin duda para pasar un primer test de autenticidad no muy exigente. A este respecto, es insólita la bajísima proporción de hapax existente." (Lakarra, 20. o.). Gero esaten du ugari izaten direla hapaxak (lehenengo aldiz dokumentatzen diren hitzak) edozein testu zaharretan. Gorrochateguik ere gauza bera dio: "Aunque parezca que los hallazgos son revolucionarios, lo son sólo en

modo aparente. En el fondo no hay ningún dato realmente novedoso, que sirva para avanzar en el conocimiento de parcelas desconocidas hasta ahora, tanto desde el punto de la lengua como de la historia." (Gorrochategui, 30. o.).

Nire iritziz, hemen esaten dena kontraesan nabarmenean dago bi txostenen espirituarekin; izan ere inskripzioetako edukien "nobedadeak" eraman ditu faltsuak direla aldarrikatzera. Jar gaitezen ustezko faltsutzailearen larruan. Sinetsiak izateko, ziria sartzeko egiten dira faltsuketak. Ez zuen lan handirik egin behar dokumentatzen, Akitaniako eta Nafarroako inskripzioetara jotzea aski. Harbelex, Iluno, Bihostar... horrelakoetan inspiratu, eta < h > eta euskal kutsuko izen propio ugari sartu. Baina ez da horrelakorik I/Vko ostraketan. Ez da euskal pertsona-izen bakar bat ere (Corne, Marcus, Mario, Mirto, Samuel, Set...); eta bi < h > bakarrik ageri dira. Eta lexiko aldetik, berriz, ia ez dago antzik, *gorri* edo *beltz* koloreak soilik datoz bat.

Zera irakurtzen dugu Interneten anonimo baten eskutik. Nire iritziz ondo laburtzen du bi filologoen pentsaera: "Agertu diren gauza guztiek gure balizko iragan horren ikuspegiarekin bat egiten dute % 100ean!! hori ezinezkoa da!! punto!. Hori da iraganaren karikatura bat, gaur egun eraikia."[50] Eta, ostera, bi irakasleen gertuko jendeari entzun zaio esaten testuak benetakoak balira betiko baztertu beharko litzatekeela Mitxelenaren fonetika historikoari buruzko liburua. Ez dakit nola ezkon daitezkeen iritzi hauek.

Batzordekideei zein ingurukoei sarri entzun zaien argudioa: errazegi ulertzen direla testuak, Blanca Urgelek batua ematen dutela esan zuen hitzaldi batean. Hizkuntzak asko aldatzen omen dira denborarekin, hor dugu latinetik datozen

---

50.- PatxiH, sustatu.com. 2009-10-20.

erromantzeen adibidea. Ez dago ukatzerik izaki bizi guztiak, hizkuntzak barne, aldatu egiten direla. Hori garbi dago. Baina ez al dago mantsoxeago dabilenik? Zera dio Juan Uriagerekak: "No soy experto en filología, pero desde la perspectiva puramente lingüística habría razones suficientes por las cuales la lengua eusquérica, o concretamente la variante del sur, pudo no haber cambiado mucho. Cuestiones que van desde un aislamiento relativo de la comunidad de hablantes hasta el hecho, poco estudiado hasta ahora, de que las lenguas en contacto se ceden estructuras en gran parte en función de lo transferibles que son los datos generados por sus opciones diversas. El vasco podría haber sido demasiado diferente a sus vecinos indoeuropeos como para que se diera un verdadero trasvase estructural."[51]

Gai eztabaidatua da, nolanahi ere. Zaila da jakitea zergatik hizkuntza batzuk azkar eta beste batzuk poliki aldatzen diren. Zenbait adituk dio hizkuntza batek aldaketa sakonak nozitu ohi dituela kanpotiko hiztun berri asko kolpera bereganatzen duenean, eta baita administrazio-hizkuntza bihurtzen denean ere. Euskarari ez zaio ez bata eta ez bestea gertatu bere historia ezagutzen dugunetik. Beraz, esan liteke euskarak txartel guztiak dituela aldaketa moteleko hizkuntza izateko.

Dena dela, euskarazko berrogeita hamar ostraken argazkiak mila bider aztertuta gero, aitortu behar dut oraindik horien % 80rekin zalantzak ditudala. Mota guztietakoak. Batean ezin igarri hainbat hitzen edo esaldiren esanahia, bestean ezin antzeman aurrean dudan hitza euskaraz ala beste hizkuntza batean dagoen, hurrengoan ezin ezer irakurri, letrak higatuta daudelako...

51.- "El axioma del cambio lingüistíco". Correo 2006-XI-23. Juan Ajuariagereka Maryland-eko (EEBB) Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Katedratikoa da. Ikerketako Euskadi Saria jaso zuen 2001ean.

Egia da gauza asko ondo ulertzen dela, baina hau normaltzat jo behar da, oso oinarrizko hiztegia baita eta ez oso luzea, hirurogeita hamar[52] bat hitz ezberdin, asko jota. Senitasun-izenak, koloreak, aditz oso erabiliak (*ian, edan, egin...),* izaki arruntak (*ur, sua, isar...*), eta erlijio kristauarekin lotutako hitzak eta esaldiak, *Pater Noster*-arekin bereziki; eta ez askoz gehiago.

Edozein modutan, onartu beharko da hitz edo sintagma ulergaitz dezente topatzen dugula; nik neuk behintzat ez ditut harrapatzen ondorengoak: *audia, elosi, gi, giatu la, giu, laiki* edo *laike, sale, ousta, osou, pyra, vola, sutan, ursi, van, zuene, Veleian gori* eta abar, eta hori kontatu gabe mila buelta eman ondoren baztertu ditugunak euskarazkoak ez zirelakoan, *baho, cori, nanaia* edo *nanata, flori* edo *lore,* eta beste batzuk.

Ikusi gura izan ala ez, arkaismo dezente topatzen da formaren aldetik. Hain ugaria den *ata* horietako bat. Lakarrak "es probablemente demasiado bonito para ser cierto" (22. o.) dio honi buruz, filologoei ezusteko handirik eman ez dien seinale, izan ere badugu *Attaconis* bat Akitanian, beste arrasto batzuekin batera, eta ez ziren gutxi sumatzen zutenak *ata* edo *atta* zela *aita*-ren aurreko forma. Beste bat, hasierako bokalik eza senitasun-izen gehienetan, bat datorrena gaur egungo bizkaierako *neba* eta *loba* formekin; ez da ahaztu behar bizkaiera dela euskalki arkaizanteena. Beste bat *-n* falta *entzun* eta *edan* (*entu* eta *eda*) bezalako aditzetan. *Zutan* eta *sutan* ditugu *zeruetan*-en lekuan, edo *-e* genitibo arkaikoa *atare* hitzean, amaierako *-n*-rik gabe. Eta beharbada *elosi* "ero-

52.-Izen propioak alde batera utzita, 170 bat euskal hitz kontatu ditugu, errepikatuak asko. Horietatik 84 ezberdinak dira formari dagokionean, baina berdintzat joz gero erro berekoak, *zure, zeure*, *zuen...* gisakoak, 70 hitz ezberdin geratzen zaizkigu.

si”ren ordainez. Hori aditz laguntzailea kontuan hartu gabe, *na, ta, tu, badi* eta abarrek harriduratxoa sortu baitute.

5.10.- Ondorioak

Uste dugu argudio sendoekin indargabetu direla Gorrochategui eta Lakarrak euskarazko ostraka askori egotzitako faltsutasun salaketak. Goian esandakoa laburtzen saiatuko gara:

Artikulua: Batzordeko kideek artikuluaren antzinatasun eza frogatzeko erabili duten argumentazioa oso ahula da, benetakoak ez diren datuetan oinarritua, gainera, Donemiliagako Errejako herri-zerrendaren kasuan. Uste dut hilarrietako *Ibarra* eta *Illuna* izen artikuludunak eta toponimiak eta antroponimiak eskaintzen dituen aztarnak nahiko zantzu sendoak direla erromatarren garaian artikulua bazela pentsatzeko. Gainera, ezin daitezke parekatu erromantzetako artikulua eta euskarazko determinazioa, honek besteak ez dituen funtzio sintaktiko ugari dituelako.

Aspirazioa: Ez da egia ez dela hatxerik agertzen, *haie*+ (15924) eta *nahi* (21658) baititugu. Hiru edo lau hitz dira bakarrik gaur hatxez idazten direnak eta ez daramatenak. Litekeena da, nahiz eta ahoskatu, idazteko beharrik ez sentitzea edo gaitasunik ez izatea, gaur egun Iparraldean alfabetatu gabeko euskaldunekin gertatzen den bezala. Kontuan izan behar da latinak aspaldi galdua zuela aspirazioa. Nabarmendu behar da bi filologoak *naia* hitzean (*nahia*, borondatea, euren ustez) oinarritu direla beren argudioak ehotzeko, hitz hori (*a)naia* izan litekeenean.

Grafia: Nahiko normala iruditzen zait < T > erabiltzea /ts/ edo /tz/ transkribatzeko (*amet* vs *amets*, *entu* vs *entzun)*,

letra hori erabiltzen zutelako *-i*-ren aurretik soinu hori adierazteko: *positio*, *solutio* (*positzio*, *solutzio*); ez zuten konponbide hoberik aurkituko, ziur asko. < K > pare bat eta < Z > banaka batzuk agertzen direla eta, kontuan izan behar da letra horiek existitzen zirela latinezko alfabetoan, nahiz eta asko erabili ez. Alfabetoa duten ostraketan ere badatoz. "Komei" dagokienez, ez dira gaur egungoak bezalakoak, handiak, zuzenak eta bertikalak baitira asko, ez dago gaurkoen bezalako oker eta behekorik, nahiz eta badiren txikiagoak, oblikuo samarrak eta okerdura txiki bat dutenak. Hitzak edo sintagmak banatzeko erabiltzen zuten zeinu grafikoa da, nire ustez, euskarazko testuetan batez ere, latinezkoetan ez baita ia agertzen. Euskaraz idazteko ohitura falta erakuts dezake horrek, eta hitz bat bukatu eta bestea non hasten den adierazteko premia. "Parentesiei" dagokienez, bakarra aurkitu dugu grezieraz idatzitako hitz bat biltzen. Grafian adituek diotenez, zeinu hori erabiltzen zen garai hartan.

Lexikoa: ez dago inolako "labankadarik" alor honetan. Ez dago erromatar garaiaz geroztiko mailegu bakar bat ere, ez germaniarrik, ez arabiarrik, ez gaskoirik, ez gaztelaniatikorik, ez bestelakorik (*arrapa* eta *polita*-ren kasuak azalduta geratu dira). Ez dago neologismorik, ez larramenditarrik, ez aranatarrik, ez gaur egungorik. Hau oso zaila izango zen ustezko faltsutzailea euskaldun alfabetatu eta jakituna izanik ere, eta ia ezinezkoa euskaldun txarra izanda, bi filologoek iradokitzen duten bezala.

Aditz jokatua: Ez dugu ezinezkorik ezer bilatzen *tu* (du), *na* (naiz), *ta* (da) edo *badi* (bedi) aditzetan. Ez daude gaurko formetatik hain urruti eta gogoratu behar da, bestalde, aditz jokatuak mila eratara esaten direla hizkera ezberdinetan.

Erakusleak eta posesiboak: *neu, neure*, *geure* eta abar dokumentatuta daude idatzizko lehen agerraldietatik, eta beraz, ez dago inolako arrazoirik erromatarren garaian ez zirela erabiltzen esateko. *Zutan*-i dagokionez, batzordeko filologoek ezinezkoa dela diote, *zugan* ulertzen dute eta forma hori bizidunentzat omen da soilik. Nire ustez, *zeruetan*, "in caelis"-en[53] euskal ordainaren aurrean gaude, *geure ata zutan* esaldian agertzen delako beti, eta Aitagurearen hasiera izan daitekeelako. 17050-ean horrela dator, adibidez: *Geure ata sutan serana santu isan beti sure isena.* Ez dugu ahaztu behar Aitagurearen berbaroa entzuten dela ostraka askotan.

Ergatiboa: Ergatiboa eraman zezaketen bi edo hiru hitzek ez eramateak ez du ezer frogatzen, nire ustez. Ziurrenik ergatiboa erabiliko zen, baina izan liteke esaldi horiek idatzi zituztenak euskaraz nola-hala egitea, ederki asko baitakigu gaur egun ere ergatiboarekin zer gertatzen den. Esango nuke, gainera, ergatiboaren falta faltsutasunaren alde baino benetakotasunaren alde mintzatzen dela gehiago, ez baita ulergarria lexikoa hain ondo aukeratzen duen eta genitibo arkaikoa eta adituek baino ezagutzen ez dituzten beste hainbat gauza dakizkien faltsutzaile batek ergatiboa "irentsi" izana.

Bada beste alderdi bat oso kontuan hartzekoa, **ildoen gaineko kare-geruza.** Alor honek ez du berez zerikusirik filologia azterketa batekin, baina eragin zuzena du honetan. Ikus ditzagun, adibidez, ondorengo piezak: 16366, TA / VIIL[IIIA]N GORI, edo 15920, NIIV XII / VRT[E] TV, III / [R]IIBA TV, NIIV / CII[+++?]. Kortxete artean idatzitako

53.- Aitagurea aztertzerakoan *zutan/sutan*-en beste interpretazio posible bat aipatu dugu.

letrak kare-geruza batez estalita daude guztiz edo partez, baina hala ere igar daitezke testuinguruagatik. Nahikoa litzateke gaineko geruza hori kontuz-kontuz kentzea, azpian ustezko letra horiek badauden ala ez konprobatzeko. Eta baleude, zerbaiten frogagarri izango lirateke zalantzarik gabe. Komeni da jakitea pieza asko eta asko geruza lodi batez estalita heldu zirela garbitegira, eta eskuila erabiliz kendu zitzaiela ahal zen guztia, uretan beratzen izan ondoren askotan. Lan egiteko ohiko era omen da. Horregatik, letren ildoak kare-geruzaren gainetik eginda daudela diotenek ez dute jakintza handirik erakusten lanbide honetaz.

Esandako guztiagatik, pentsatzen dut ostraketako euskal testuak posible direla erromatarren garairako, eta Lakarra eta Gorrochategui irakasleek faltsutasuna frogatzeko erabili dituzten argudioek ez dutela oinarririk.

5.11.- Lakarraren azken kodaz eta ustezko faltsutzaileez

Lakarrak oso ekarpen interesgarria egiten du errudunak bilatzeko ahaleginean. Asko zehazten du faltsifikazioaren data (2004 hasiera) zein faltsutzailearen soslaia. Nahiz eta ergatiboaz (ergatiborik ezaz) jarduterakoan iruzkin ironiko hau egin, "Resultaría más verosímil que esas frases fueran debidas no a vascos inergativos del III sino a pseudo-euskaldunberris o aspirantes a euskaldunberri de fines del XX o comienzos del XXI que no estuvieran muy atentos al tratar el tema en clase" (18. o.), bere azken kodan abisatzen du faltsutzaileek derrigor ezagutu behar zutela Luis Nuñez Astrainen *El euskera arcaico* liburua, 2003aren bukaeran agertu zena, non argitaratu ziren lehen aldiz protoeuskararen berreraikuntzan egindako azken aurrerapenak. (29. o.)

Nik ere neuretxoa ekarri nahi nioke iruzurgilearen bilaketari, eta Batzordekideen txostenetan oinarrituta, honako erretratu-robota proposatzen dut, ikertzaileei baliagarri izango zaielakoan.

Indibiduo honek (edo hauek) ez daki euskaraz ergatiboa dagoenik, baina badu *-n-*z amaitzen ez den genitibo arkaikoaren berri, eta *atare* idazten du. Ez daki angelu altuko Mak geroagokoak direla, baina badaki hainbat eskuren kaligrafia dotore imitatzen. Kola arrunta erabiltzen du pusketak itsasteko, baina perfekziora hurbiltzen da piezak artifizialki zahartzeko orduan. Santujale hutsa da eta ez da aspertzen gurutzeak zirriborratzen, baina haragiaren tentaldiari amore eman eta marrazki pornografikoak egiten ditu. Jainko Ata gurtzen du, baina haren seme Jesukristo Madalenaren eskutxotik helduta marrazten du Azken Afarian. Ez daki Descartes XVII. mendean bizi izan zela, baina zehatz-mehatz ezagutzen du Eneasen genealogia.

Bistan da, latina zekien aingerutxoak, nahiz eta ez jakin Vergilius dela nominatiboa eta ez Virgilio. Enfin. Pentsa daiteke aztarren hauekin eta gure aurrekoak emandakoekin ez dela gaitza izango gaizkilea topatzea.

5.12.- Gibel-solasa

Berriro ere serio berba eginez, atentzioa ematen du filologoen txostenetan, batez ere Lakarrarenean, erreferentzia arkeologikorik ezak: ostraka aurkitutako sektorea, leku edo barruti zehatza, proposatzen den datazioa, testuinguruaren tematika, etab. Bi pieza konparatzen direnean, adibidez, ez da kontuan hartzen elkarren ondoan agertu diren ala 500 metroko eta bi mendeko distantziara. Igartzen da dena fal-

tsua izatearen ziurtasunetik abiatzen direla eta ez dutela huskeriekin denborarik galdu nahi. Era berean, antz ematen da aditu bakoitzak bere espezialitateko piezak aztertu dituela soilik, eta "susmagarrienetan" zentratu direla, besteak alde batera utzita.

Ez du harridura txikiago sortzen jakiteak batzordeak iraun zuen ia urtebetean batzordekideak ez zirela behin ere hurbildu aztarnategira arkeologoekin, langile boluntarioekin, garbiketa-arduradunekin eta abar hitz egitera, edo eta ez zietela informaziorik eskatu piezak azken unean tratatu zituzten museoko errestaurazio-zerbitzuko kideei.

Harridura handituz doa ondorioetan irakurtzen denean aski litzatekeela pieza bakar baten faltsutasuna frogatzea (ez da gure kasua, euren ustez denak direlako) denak faltsutzat jo behar izateko (Gorrochategui 30. o.). Aspaldi erantzun zion norbaitek galdetuz ea 50 euroko 100 diru-paperekin bankura bazoaz eta makinak bat apartatzen badizu faltsua delako, ea denak paperontzian bukatzen duten. Eta harridura goien gradura heltzen da Lakarrari irakurtzen diogunean (7. o.) aski dela diziplina bakar bateko adituek pieza baten faltsutasuna "frogatzea" beste diziplina batzuen benetakotasun abalak deuseztatuta gera daitezen. Beste berba batzuekin esanda, euskal filologoek, esate baterako, inskripzio baten faltsutasuna frogatuko balute, bost axola beste diziplinek esaten dutena. Ia batek ez daki zer pentsatu halako baieztapenen aurrean, batez ere dakigunean artikuluaren presentzia, hatxearen ustezko falta eta antzeko argudioak erabili direla faltsutasuna aldarrikatzeko. Batek baino gehiagok erantzun du hurrengoa gaiak eragin dituen eztabaidetan: "orduan zer gertatzen da *Beba CocaCola* ipintzen duen pieza bat agertuko balitz?" Ba gertatzen da pieza hori faltsua dela, baina horretarako ez dela behar txosten filologikorik eta arkeologikorik. Baina kontua

da Iruña-Veleian ez dela ez inskripzio hori, ez eta erromatarren garaian ezinezkoa zatekeen besterik agertu.

Nire ustez, historia, filologia edo epigrafía bezalako humanitate-zientziek laguntza handia eskain diezaiokete arkeologiari gai askotan, baina ezin dira erabakigarriak izan, gauza oso nabarmenekin izan ezean. *Ordenagailu* edo *lehendakari* bezalako neologismoak agertu izan balira ez legoke zalantzarik, baina ez gaude kasu horretan, esan dugun bezala. Azken hitza arkeologiak du bere metodoekin, eta horien artean estratigrafia da nagusi, eta praxi arkeologiko egokia. Datazio-metodo fisiko-kimikoekin lagunduta nahi bada, karbono 14a, termoluminizentzia, patinen analisiak, eta abar. Eta zentzu honetan, Batzordeak kontsultatu duen nazioarteko aditu famatuenak, Perring doktoreak, esan du aztarnategian gauzatu den praktika arkeologikoa Europako estandarren oso gainetik egon dela.

Jo dezagun norbaitek irakurri duela liburu hau eta guztiz konbentzituta geratu dela piezen benetakotasunaz. Baina bihar poliziak faltsutzailearen lantegia aurkitzen badu eta honek pieza guztien egilea dela deklaratzen, liburu hau eta hari beretik idatzitako milaka orrialdeak hutsaren hurrengo lirateke. Beste hainbeste gertatuko litzateke beste aldeko txosten "demoledore" guztiekin etzidamu aztarnategian induskatuko balitz "argia eta takigrafoekin" (sinestezina da nola ez duten dagoeneko egin) eta susmopean dauden piezen antzekoak agertuko balira ukitu gabeko geruzetan. Hasieran genion bezala, *Contra facta non valent argumenta.*

Testuinguru honetan, eta hanka sartzeko arriskua onartuta, nahaste-borraste honen jatorriari zein bilakaerari buruzko iritzia ematen ausartuko naiz. Baina aurrez garbi utzi nahi dut ez dudala zalantzan jartzen Gorrochategui eta Lakarra irakasleek gai filologikoez duten ezagutza sakona. Gai-

nera pentsatzen dut konbentzimenduak eraginda jokatu dutela, pentsatzen zutelako testu horiek ezinezkoak zirela eurek antzinako euskarari buruz duten jakintzaren argira.

Hau esanda, euskarazko testuen aurkezpen egunaren inguruan kokatuko nuke korapiloaren jatorria, 2006ko ekainaren 15aren inguruan. Lakarrak bere txostenean dio urte horretako ekainaren 21ean aztarnategia bisitatu zuela talde baten barruan. Zera irakurtzen dugu: "Al llegar al final, y ante la cara de estupefacción de cierto colega, rogué a don Eliseo que volviera un momento a la pieza (a lo que accedió generosamente), y me confirmara la lectura[54] anteriormente citada, lo cual hizo también amablemente. Dadas las gracias, nos alejamos del lugar." (4. o.). Horrela amaitzen du aurrerago: "Creo no exagerar diciendo que, al menos para mí, como filólogo vasco, Veleia –por lo que a la filología vasca se refiere– ya antes de finalizar junio de 2006 había dejado de ser un problema científico para convertirse en otro de muy diferente índole: policial y judicial, por un lado, historiográfico (...) por otro". (4. o.).

Historia apur bat egin dezagun: ekainaren 15ean Gorrochateguik, Knörr eta Gilekin batera, euskarazko ostrakak aurkeztu zituen prentsa aurrean. Hona hemen haren hitzak orduko audio[55] batetik jasota: "Geure ata zutan, Geure ata zutan. Bien, me parece que recoge, a mí me parece, es una interpretación personal que habrá que ver, que recoge el saludo entre los cristianos, 'Nuestro Padre -es decir Dios- en vosotros', 'esté en vosotros', 'sea con vosotros'. (...). Y nuestro objetivo principal era hoy precisamente asegurar a esa comu-

54.-IAN/ TA EDAN/ DENOC, Lakarraren irakurketaren arabera; IAN/ TA/ EDAN/ DENOS, gure ustez (13367).

55.- Radio Euskadiren 2008-XI-20ko audioa, 2006ko ekainaren 15eko prentsaurrekoan esandakoak jasotzen dituena.

nidad científica que es verdad, que no es un fraude, que han aparecido unas leyendas escritas en alfabeto latino sobre material cerámico básicamente, aunque también hay vidrio y hay huesos, con leyendas en vasco antiguo. A falta de una precisión en la cronología, esto siempre hay que tenerlo aquí en la cabeza, podemos fechar el material como en la antigüedad tardía. Es decir, vale decir en principio desde el tercero hasta el sexto."

Baina hurrengo egunetan iritziz aldatu zuen, hil horren 19an gutuna entregatu baitzion Amelia Baldeon Arkeologia Museoko Zuzendariari bere zalantza sakonak jakinaraziz. Beraz, nahiz eta Lakarrak esan 21eko bisitan jabetu zela faltsutasunaz, pentsatzekoa da aurretik ezagutzen zituela testuak Gorrochategi lankideak erakutsita, eta honen iritzi-aldaketan zerikusi handia izan zutela Lakarraren usteek, bera baita euskara zaharrean aditua.

Gogoratu behar da aurkezpen eguna igaro arte Lurmenekoek laguntza eskaturiko adituetatik inork (Gorrochategui, Knörr, Santos Yanguas, etab.) ez zuela auzitan jarri piezen benetakotasuna, eta Gorrochateguik berak ere, nahiz eta handik lau egunera gutun hori entregatu, beranduago ere ez zituela gauzak guztiz argi. Horrela bukatzen baitu Correori 2006ko azaroaren 19an eskainitako elkarrizketa: "Yo aún no estoy seguro de que eso sea auténtico. Pero, ojo, de la misma manera que reclamo que no se puede decir ahora que todo va a misa, por la recíproca no podemos decir que esto es falso. No creo que esto se vaya a dilatar, parece que de aquí al verano ya estará el informe definitivo."

Beraz, irudipena dut aurkezpenaren hurrengo egunetan EHUn lankide diren Gorrochateguik eta Lakarrak sakon aztertu zutela gaia eta Lakarraren konbentzimendu goiztiarra gailendu zitzaiela Gorrochateguiren zalantzei.

2008ko urtarrilean Lorena Lopez de Lacalle Kultura Diputatu berriak 13 kidez osatutako Batzorde Zientifiko Laguntzaile bat osatzen du. Lakarra ere tartean da, lehenagotik arkeologoen aholkulari papera jokatzen zuten Gorrochategui eta Knörrekin batera. Batzordearen partaideen artean bederatzi EHUko irakasleak dira, hiru AFAko funtzionarioak, eta Eliseo Gil.

Biziki interesgarria da batzordearen azkenaurreko bilerako akta (2008-VI-26). Bertan irakur dezakegunez, Gorrochateguik eta Lakarrak inskripzioak faltsuak direla esaten dute inolako zalantzarik gabe. Aktaren arabera, zera esan zuen Gorrochateguik: "no existe ningún atisbo de duda en considerar que los grafitos de carácter excepcional del Equipo de Iruña-Veleia (para los que el calificativo técnico de "ostraca" iría mejor) escritos en cualquiera de las lenguas (es decir, tanto en euskera como en latín) son falsos". Lakarrak gauza bera dio beste hitz batzuekin. Nolanahi ere, harrigarria da ikustea bilerako beste batzordekideetarik inork (Gil-ez gain, Nuñez eta Quirós arkeologoak, Madariaga kimikoa, Cipres epigrafista eta Legarda teknika nuklearretan aditua zeuden) ez zuela berba erdi esan ostraken benetakotasunaz edo faltsutasunaz.

Hala ere pentsatzekoa da garai horretarako balantza oso makurtuta egongo zela alde batera, eta arkeologoak, latinistak eta epigrafistak konbentzitu egin zirela Gorrochateguik eta Lakarrak erakusten zizkieten faltsutasun-froga "eztabaidaezinekin".

Santos Yanguas epigrafista eta 2008ko maiatzean zendutako Henrike Knörr gogoratua izan ziren domino-efektu horren eraginez eroritako azken fitxak, nahiz eta azkena neurri batean bakarrik. Ez da zaila imajinatzea nolako presioak izango zituen (akademikoak, noski) euskaltzain gas-

teiztarrak bere azken orduetan. 2008-VI-26ko bileraren aktan irakur daitekeenez, batzordekide batek esan zuen Knörr-ek igorritako mezu elektroniko[56] bat zuela, non garbi adierazten zuen testuak ezin zitezkeela Antzinatekoak izan. 2009ko martxoaren 6an Berria egunkariak mezu osoa argitaratu arte ez genuen jakin ahal izan Henrikek materialen data atzeratzea proposatu zuela, bere egunean mundu guztiak ulertu zuenean Knörrek modernoak zirela esan zuela, faltsuak, azken batean.

2008ko azaroaren 19a helduko zen, eta harekin batera batzordekide inportanteenen txosten "birrintzaileak". Eta ondoren Arabako Foru Aldundiak Lurmen SL enpresari indusketa-baimena kentzea, eta berehalako kereila zaparrada, gaurko egoerara ekarri gaituena.

Eta bukatzen joateko, esango nuke inskripzioetan agertzen den zenbait hizkuntza-elementu euskal filologoen[57] berreraikitze hipotesiekin bat ez etortzea izan zela gatazkaren metxa piztu zuena. Artikuluaren presentzia, esate baterako, teoria oso errotua zapuztera zetorren.

56.- Knörren mezutik pasarte hauek atera ditugu: "*Para decirlo claramente, desde el punto de vista de la historia de la lengua vasca, es totalmente imposible pensar que son del siglo III dC".* (...) *A la espera siempre de lo que dirán los científicos y los estratigrafistas, es preciso acudir a la historia. Y la historia nos dice que hubo un obispado en Alava, al menos desde mediados del siglo IX."* Honetatik ondorioztatu izan da Knörrek adierazi zuela VIII-IX mendekoak izango zirela, baina hori ere zalantzan jar daiteke bere mezuaren beste pasarte hau irakurrita: *"Cabe suponer cierta continuidad de Iruña-Veleia hasta esa época 'armentiense', con cierta comunidad de clérigos, quizá acompañados de milites, lo que explicaría que Iruña no aparezca citado en el cartulario de San Millán. Ciertamente el establecimiento de la Orden militar de San Juan es posterior. Y esa continuidad explicaría asimismo las palabras vascas con su aspecto "moderno", tales como las que hemos citado y çorduniai, que sin duda alguna es 'debitoribus', tal como propuse en nuestra reunión de trabajo."* Beraz, III. mendea baino berandukoagoak bai, baina ematen du irekita uzten duela kronologia.

57.- Joseba Lakarrak lan asko egin du azken urteetan protoeuskara berreraikitzen.

Honi zenbaiten apaltasun falta (berba leunenak erabilita) batuko zitzaion, aitortu nahi ez izana gaiaz jakin daitekeen guztia jakin arren, gauza gutxi dakigula hain garai urrunean Iruña-Veleia tankerako hiri batean egiten zen hizketaz eta idazketa informalaz.

"Filologiaren armak"[58] oso lagungarriak izan daitezke honelako kasu batean, baina min handia egin dezakete behar bezala erabiltzen ez badira.

Eta behin honaino helduta, ezin diot lan hau Koldo Mitxelenaren zita profetiko batez bukatzeko tentaldiari eutsi, non dirudien arriskua jakinarazten ari zaiela bere dizipulu kutunenei.

"Además del valor mayor que hay que atribuir a los hechos probados contrapuestos a las hipótesis reconstructivas, hay que tener presente la riqueza inagotable de lo histórico, reflejo de la multiforme realidad, que no tiene comparación con los esquemas brutalmente simplificados de la reconstrucción.

Toda reconstrucción, aunque trata de recobrar, –y lo consigue al menos en los casos más favorables– aspectos de una realidad desaparecida, posee siempre características que nacen y se deducen del método del que nos hemos valido para llegar a ella. Y, como éste contiene –implícito o explícito– un postulado de simplicidad, los resultados saldrán deformados a consecuencia de la torsión esquematizadora a la que se han visto sometidos los datos: entre dos estados de lengua, más antiguo y más reciente, la reconstrucción busca siempre, por definición, el camino más corto posible, sin

58.- "Las Armas de la Filosofia", Joaquín Gorrochateguik EHUko Gasteizko Fakultatean 2007ko urriaren 12an eman zuen hitzaldiaren titulua. Txosten definitiboari erantsi zion testu honek Filologiaren eginkizunaz hausnartzen du eta garbi ematen dira aditzera geroago ezagutuko ziren ondorioak.

tener en cuenta las vueltas y revueltas del camino real que no está en su mano restaurar. Sería pues insensato que, si nos es dado seguir ese camino en todo o en parte de su vacilante recorrido, gracias a los datos históricos, nos empeñáramos en marchar a lo largo de la línea trazada con regla y tiralíneas en los mapas de la reconstrucción."[59]

59.- Luis Michelena, 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Edit. Auñamendi. [Birarg., 1988, SHLV, 24. o., Joseba Lakarraren edizioa].

6

Benetakotasunaren aldeko txostenak

Gogoratu beharra dago erabakia hartu zen eguna baino lehen ere aurkikuntzak zalantzan jartzen ez zituen hainbat txosten zegoela. 2009ko urriaren 28an Idoia Filloyk eta Eliseo Gilek benetakotasunaren aldeko 13 txosten aurkeztu zituzten Gasteizen emandako prentsaurrekoan, horietako asko berriak. Kontsultatu nahi dituenak www.veleia.com gunean aurki ditzake. Labur-labur aipatuko ditugu.

1.- Edward Cecil Harris Doktorea; arkeologoa, Bermuda Maritime Museum-eko Zuzendaria. *Valoración arqueológica de Iruña-Veleia*. Txosten honek garrantzi berezia du, Harrisen arkeologia-metodo ospetsua delako arkeologia modernoaren eredu arkeologikoa. Aztarnategian egindako aplikazioa guztiz zuzena izan dela azpimarratu du.

2.- Carmen Fernandez Ochoa Doktorea, Arkeologiako Irakasle Katedratikoa eta Angel Morillo Cerdán Doktorea, arkeologoa eta Arkeologiako Irakasle titularra. *Dictamen científico sobre el método arqueológico (Iruña-Veleia)*

3.- Emilio Illarregi, arkeologoa eta Arkeologia Irakaslea. *Dictamen científico sobre el método arqueológico (Iruña-Veleia)*.

4.- Eliseo Gil Zubillaga, arkeologoa eta historialaria. *Acerca de la metodología arqueológica empleada en las intervenciones desarrolladas en Iruña-Veleia y otras circunstancias (en respuesta a los informes emitidos por el Área*

de Arqueología del EHU-UPV para la Diputación Foral de Álava).

5.- Antonio Rodriguez Colmenero Doktorea; arkeologoa eta epigrafista, Antzinateko Historiako Katedratikoa Santiago de Compostelako Unibertsitatean. *Iruña-Veleia. Sobre algunos grafitos singulares aparecidos en las excavaciones arqueológicas de la ciudad romana. Un parecer.* Izen handiko ikertzailea, epigrafia aldetik aztertu ditu piezak eta ontzat jo ditu.

6.- Ulrike Fritz Doktorea; hizkuntzalaria eta egiptologoa, Tübingen-go Unibertsitatea (Alemania). *Informe sobre los ostraka con jeroglíficos egipcios y nombres egipcios escritos en latín de Iuña-Veleia*. Egiptologian prestigio handiko departamentua duen unibertsitateko irakasle honek hieroglifikoak eta izen egiptoarrak (Nefertiti, Ramses, Hermopolis...) aztertu ditu eta ez die ezinezkotasunik ikusi.

7.- Idoia Filloy Nieva, arkeologoa eta historialaria. *Informe sobre los motivos iconográficos presentes en los denominados grafitos de carácter excepcional del conjunto arqueológico de Iruña-Veleia.* Julio Nuñez eta beste batzordekide batzuen txostenetako "ezintasun ikonografikoak" gezurtatu ditu banan-banan.

8.- Idoia Filloy Nieva, arkeologoa eta historialaria. *Informe sobre los textos en latín de los grafitos de carácter excepcional de Iruña-Veleia.* Latin herritarraren argira begiratuta, aurre egiten die batzordekideen ustezko ezintasunei.

9.- Koenraad Van den Driessche Doktorea. *El problema de la falsedad/autenticidad de los ostracones de Iruña-Veleia: evidencias físicas.* Beasainen bizi den geologo belgikarrak (Bruselako Unibertsitate Libreko irakaslea izandakoa da) alderdi fisikotik aztertu ditu piezak eta zantzu ugari aurkitu du benetakotasunaren alde.

10.- Mikel Albisu Lasa Doktorea, geologoa. *Análisis visual de 15 piezas arqueológicas a través de imágenes fotográficas procedentes del yacimiento de "Iruña-Veleia" de Trespuentes (Alava).*

11.- Joaquín Baxarías Tibau Doktorea, mediku paleopatologoa, Associació catalano-balear de paleopatología eta Fundació académica de ciences médiques i de la salut de Catalunya y Balears-eko kidea. *Informe preliminar de los restos óseos con inscripciones antrópicas procedentes de las excavaciones de Iruña-Veleia.* Hezurrean egindako inskripzioak aztertu ditu (40 bat daude) eta benetakoak direla iritzi die.

12.- Hector Iglesias, euskal filologo Doktorea. Baiona-Bordeleko Unibertsitatekoa eta CNRSko ikertzailea. *Les inscriptions de Veleia-Iruña*. Gorrochategui, Lakarra eta Velazquezen txosten filologikoak sakon aztertzen eta gogor kritikatzen ditu eta benetako direla irizten die epigrafeei.

13.- Juan Martín Elexpuru, Euskal Filologian Doktorea. *Comentarios y objeciones a los informes de los profesores Gorrochategui y Lakarra sobre los grafitos en euskera de Iruña-Veleia.*

6.1.- Koenraad Van Den Driessche geologoaren ikuspuntua

Ezinezkoa zaigu txosten guztien laburpena egitea, baina gainbegiradatxo bat botako diogu lan erabakigarri honi: *El problema de la falsedad/autenticidad de los ostracones de Iruña-Veleia: evidencias físicas*, Koenraad Van den Driessche, Geologian Doktorearena. Beasainen bizi den geokimiko belgikarrak alderdi fisikotik aztertu ditu ostrakak (argazkiak, jakina denez), eta zantzu ugari aurkitu du

benetakotasunaren alde. Zertzelada batzuk bakarrik erakutsiko ditugu, sakondu nahi duenak Internetera jo dezake.

Kostraz estalitako grafitoak

Gogoan izan behar da pieza askok garbiketa zehatza jaso duela. Gehienak karegeruza batez irteten dira lurretik. Beharra ikusten denean gau osoa eukitzen dira uretan beratzen, eta hurrengo egunean zepillo batez garbitzen dira arraskan. Horregatik museoetako apaletan ikusten ditugun grafitoak garbi-garbiak egoten dira ia beti, kostra arrastorik gabe

Baina prozesu horretatik igarota egon arren, I/Vko grafito askok kostra dute ildoetan. Kostrak estalitako grafitoak ere ez dira gutxi. Komeniko litzateke kostra hori kendu eta azpian grafitorik agertzen den ikustea. Balitz, benetakotasun zantzua litzateke.

Adreilua egosi aurretik egindako grafitoak

Hainbat ostraka daude, euskarazkoak batik bat. Oso material gogorra da, hormigoia bezalakoa. Hala ere ildo sakon, zuzen eta leunak eta ertz borobilduak agertzen dituzte. Hau buz-

tin bigunean eginda dauden seinalea da. Aditu batek ikusteaz batera erabakiko luke pieza bat "ante coctionem" egindakoak den ala ez. Balitz, benetakotasun froga garbia litzateke.

Sute bat jasandako itxura dutenak

Zenbait piezak kedarra arrastoak dituzte ildoetan eta sutea jasan duten itxurak. Honek sua gertatu aurretik grafitoak eginak zeudela adieraziko luke.

Landare-zuztarren markak

Zenbait grafitok landare-zuztarren markak dituzte. Gauza jakina da landare-sustraiek zeramikak zein hezurrak markatu eta hurrupatu ditzaketela, hezetasunaren eta mineralen gose direnean. Honek esan nahiko luke grafitoak lurpean zeudela sustraiek markatu zituztenean.

Hezurrean egindako irudiak

Animalia hil eta urte batzuetara (30-40) hezurrak ia guztiz galtzen du kolagenoa eta ia ezinezkoa da gainean grabatzea, ezpaldu egiten delako. Ramon Baxarias osteopatologo kataluniarrak aztertu ditu hezurrean egindako berrogei bat ostrakaren argazkiak eta zaharrak iruditu zaizkio. Bestalde, gauza jakina da hezurrak datatu egin daitezkeela Karbono 14ren bidez.

7

Kalte humanoez

Askotan ahaztu egiten bazaigu ere, auzi honetan biktima zuzenak daude, Lurmen enpresako kideak, alegia. Horretaz dihardu Maritxu Goikoetxearen iritzi artikuluak, *Noticias de Alava*, *Berria* eta *Gara*n argitaratu zenak irailaren bukaeran.

Iruña-Veleia: amesgaizto baten historia

Iruña-Veleiako auziak bere alderdi zientifikoa du, batetik, eta pertsonala, bestetik. Ez naiz pertsona egokiena gai zientifikoaz jarduteko, nahiz eta nahikoa informazio dudan esateko gaur-gaurkoz ez dagoela frogatuta grafitoen faltsutasuna eta litekeena dela benetakoak izatea.

Auziaren alderdi humanora mugatuko naiz. Ez da denbora asko bi kaltetu nagusiak ezagutzen ditudala, Eliseo Gil eta Idoia Filloy aztarnategiko zuzendari ohiak. Ia beti ostraka eztabaidatuez mintzatu izan gara, gutxitan kalte pertsonalez, baina iritzi publikoak eurekin egin den izugarrikeria ezagutu behar duela pentsaturik, gauzak nola gertatu ziren kontatzeko eskatu nien.

Horrela laburtzen du Eliseo Gilek 2008ko azaroaren 19an gertaturikoa:

"Bezperan, beste lankideekin batera (35 lagun denera, egiturak sendotzen ari zirenak eta arkeologia tailerrekoak barne), ohi bezala irten ginen Lurmenek Iruña-Veleian

dituen instalazioetatik. Hilabete igaro arte ezin izango nintzen berriz barrura sartu, egoera oso bestelakoan eta desatseginean.

Batzordearen bilera 10:30ak aldera hasi zen eta 14:00etan bukatu. Nire bizitzako gertaerarik negargarrienetakoa, zalantzarik gabe. Beste batzordekideak hasi ziren hizketan eta ni azkenerako geratu nintzen. Gauza asko esan ziren eta batzuek harri eta zur utzi ninduten. Une hartan ez nuen ez gaitasunik eta ez ezagutzarik filologoen eta epigrafisten argudioei erantzuteko, eta Madariaga irakaslearen azalpena ulertu ere ez nuen egin, baina oso garbi nuen Nuñez eta Quiros irakasleen baieztapenek ez zutela inolako oinarririk, eta Iruña-Veleian guk egindako lana zikintzeko zerabilten estrategia ezin desleialagoa zela; izan ere, neuk luzatutako txosten didaktiko batean oinarritzen ziren soilik. Galdetu nien ea nola esan zitzaketen horrelakoak lanen azken memoria, edo gutxienez nik une hartantxe nekarren txostena ezagutu gabe.

Baina gauzak ez ziren hor bukatu. Nire buruak ez zuen sinetsi nahi epaiketa bat jasaten ari nintzela. Diputatu andereak galdetu zidan ea zer nuen erantzuteko. Neure aztoramenduan "uste dut ez dela adierazpenak egiteko momentua" edo horrelako zerbait esatera mugatu nintzen, abokatu bat behar nuela pentsatuz, hildakoa leporatuko zidaten susmoa hartu bainuen. Bukatzeko, esan zidan bere bulegoan zeukan *zerbitzu juridikoen idatzi bat* (sic) jaso behar nuela eta handik pasatzeko Batzar Nagusietako agerpena baino lehen. Telefonoz deitu zidaten eta haren bulegoan agertu nintzen 15:45 aldera. 444/08 Foruagindua zen idatzia, eta nire sententzia zekarren de facto, indusketa-baimena *kautelarki* eteten eta aztarnategira sartzea debekatzen baitzidaten.

Halabeharrez, Diputazioko Jauretxetik irten nintzenean lagun-talde bat aurkitu nuen kalean aurrez aurre: Lakarra, Gorrochategui, Nuñez, Madariaga eta Santos irakasleak ziren eta BNetako egoitzara zihoazen, non hainbat lore botako zidaten, hedabideek berehala handitu eta edertuko zituztenak. Ondorioak berehala igarri ziren; egun bereko ilunabarrean seguritate enpresa batek kateak jarri zituen Iruña-Veleiako sarreran eta zaintza etengabea ezarri zuen; neurri garestia kutxa publikoarentzat, eta alferrikoa eta teatrala."

Hilabete igaro beharko zen beren gauzak jasotzera aztarnategira sartu ahal izateko. Horrela kontatzen du Idoia Filloyk goiz hartan gertatutakoa.

"Abenduaren 19a egun surrealista ahaztezin bat izango da niretzat beti. Iruñako atean bildu ginen Lurmeneko langileak, eta diputazioko jende mordo bat, miñoiak eta teknikoak. Andere funtzionario bat hasi zen aginduak ematen eta gure instalazioetara zein sar zitekeen eta zein ez esaten. Azalpenak eskatu genizkion eta erantzun zakarra eta autoritarioa jaso genuen kalearen erdian. Azkenean, denok sartu ahal izan ginen, enpresaren dokumentazioa eta gauza pertsonal ugari baikenuen barruan. Ate bat zabalik eta bortxatutako itxurarekin aurkitzea izan zen lehenengo ezustekoa; gure generadorea erabilita eta erregai-bidoiak urez beteta ikustea, bigarrena.

Gure gauzen biltze-lana ez sinistekoa izan zen. Prozesu guztia fotografiatu eta filmatu zuten gure bulegoen barruan zein kanpoan, inolako baimenik gabe. Armairuak ireki zituzten, jaso genuen guztia arakatu zuten eta ez ziguten ordenadoreak ateratzen utzi. Handik egun batzuetara jaso ahal izan genituen, beren edukia grabatuta eta gero, inolako epaile-agindurik gabe. Gainera, jabetu ginen

Diputazioak kontrataturiko seguritate enpresak gure bulegoak okupatzen eta kanpamentu gisa erabiltzen zituela."

2008ko abenduaren 5ean, Arabako Foru Aldundiak fiskalaren esku utzi zuen kasuaren inguruko dokumentazioa, balizko delitua iker zezan. Handik hilabete batzuetara, ikusita fiskalak ez zuela delitua salatzeko itxurarik, Diputazioak aurrea hartzea erabaki eta kereila ipini zuen Lurmen SLko Eliseo Gil eta Oscar Escribanoren eta beren laguntzaile Ruben Cerdanen aurka, iruzurra eta ondarearen kontrako kalteak egotziz.

Ildo beretik, maiatzean Euskotren enpresa publikoak eta ETS bere filialak kereila bana jarri zuten Eliseo Gil eta Idoia Filloyren aurka, iruzurra eta irudiari kalteak egotziz. Eliseori bi milioi euro eskatzen zaizkio eta Idoiari bat, epaileek ezar ditzaketen kartzela-zigorrez gain.

Ez da ahaztu behar, gainera, aztarnategia ixteak eta indusketa-baimena kentzeak Lurmen SL enpresaren ixtea ekarri zuela, eta bertan enplegu egonkorra zuten hamar pertsonak langabezian geratu zirela ezustean, egun batetik bestera.

Baina ondorio ekonomiko eta penalez gain, beren izen ona eta ohore profesionala suntsituta ikustea izan da gogorrena arkeologoentzat. Egun batetik bestera, Eliseo Gil eta Idoia Filloy arkeologo eredugarri eta saritu izatetik profesional negargarri eta iruzurgile arrunt izatera igaro ziren. Eta faltsutzearen susmagarri nagusi, gainera.

Oraindik frogatu gabe dagoenean grafito bakar bat ere faltsua dela, Eliseo eta Idoia bezalako pertsonak gaizkile arrunten tratua jasan beharra lotsagarria da guztiz. Administrazioaren jokabidea, kasu honetan Arabako Foru Aldundiarena, sumingarria izan da. Alde ederra dago Gug-

genheim kasuari eman zaion trataerarekin, nahiz eta han milioiak desagertu.

Espero dut luze gabe jakingo dela egia eta bakoitza bere lekuan utziko duela.

Maritxu Goikoetxea (Gasteizko udaleko zinegotzi ohia)

8

Herritar Plataformaren Manifestua

2009ko udazkenean herritar plataforma bat sortu zen Gasteizen eta honako agiri hau plazaratu zuen urriaren 7ko prentsaurrekoan.

Iruña-Veleiako auzia argitzearen aldeko manifestua

Arabako Foru Aldundiak, 2008ko udazkenean hartutako erabaki baten bidez, ofizialki faltsutzat jo zituen 2005 eta 2006ko jardunaldietan Iruña-Veleiako aztarnategian aurkitutako "ezohiko grafitoak" (400 inguru), eta indusketa-baimena kentzea erabaki zuen Lurmen S.L. enpresari. Handik gutxira, zigor-espedientea irekiz, auzibidean jarri zituen enpresa horretako hainbat kide eta kolaboratzaile.

Behean sinatzen dugun pertsonok pentsatzen dugu ez dagoela behar bezala frogatuta grafitoen faltsutasuna, eta benetakoak izatea ere litekeena dela iritzirik, ondorengoa eskatzen diegu auzian erabakimena dutenei:

- piezek hasierako egoeran jarraitzen dutela konproba dezatela.
- grafitoen analisi eta ikerketa zientifiko berriak egitea agin dezatela.
- parteekin zerikusirik ez duten arkeologo entzutetsuek indusketa kontrolatuak egin ditzatela aurrez seinalatutako lekuetan.

Era berean, Arabako Foru Aldundiari eskatzen diogu birpentsa ditzala hartutako erabaki txit larriak eta erretira dezala bere kereila, aurkikuntzen benetakotasuna edo faltsutasuna erabakiko duten frogak egin arte bederen.

Manifestu hau sinatu nahi izanez gero, helbide honetan egin dezakezu:

www.sos-veleia.org

Iruña-Veleiari buruzko informazioa

http://www.sos-irunaveleia.org
(era guztietako informazioa)

http://www.veleia.com
(lekuari buruzko informazioa, argazkiak eta txostenak)

http://goiena.net/blogak/elexpuru
(berriak eta eztabaida)

http://www.alava.net/publicar/Veleia
(txostenak eta ostraken argazkiak)

http://angul0scuro.blogspot.com
(eztabaida foroa)

http://ostraka.mundua.com
(berriak, argazkiak eta txostenak)

http://foroterraeantiqvae.ning.com
(berriak eta eztabaida)

http://iesusioshemarian.wordpress.com
(berriak eta eztabaida)

Noizbehinka:

http://sustatu.com

http://zuzeu.com
http://www.blogari.net/filoblogia

GEU hilabetekaria, 2009ko martxoa
(euskal ostraken argazkiak eta transkrizioak)

Aurkibidea

Aitzin solasa 9

1. Iruña-Veleiaren historia eta historiak 11
- 1.1 Erromatarren konkistaz 11
- 1.2 Tribu edo etniak 13
- 1.3 *Iruña-Veleia* izenaz 14
- 1.4 Lekua. 18
- 1.5 Hiria 19
- 1.6 Aztarnategia 21
- 1.7 "Ezohiko grafitoen" aurkikuntza 23
- 1.8 Materialak 24
- 1.9 Adituen Batzordea 26
- 1.10 Arabako Foru Aldundiak faltsutzat jotzen ditu aurkikuntzak eta itxi egiten du aztarnategia. . . .28
- 1.11 Txostenak eta argazkiak argitaratzen dira 29
- 1.12 Eztabaida berpizten da 31
- 1.13 Auzia epaitegietan 33
- 1.14 Foru Aldundiak EHUri ematen dio aztarnategia 35
- 1.15 Lurmen kanporatu eta aztarnategia itxi zeneko urteurrena (2009-XI-19) 36
- 1.16 Eliseo Gil omen da Faltsutzailea! 37

2. Euskarazko ostrakak 39
- 2.1 Zenbat eta non 39
- 2.2 Argazkiak eta transkripzioak 40
- 2.3 Edukiak. 57
- 2.4 Testuetako lexikoa 73

3. Aitagurearen oihartzunak 81

4. Beranduko baskonizazioaz 87
4.1 Euskal hitzak inskripzio erromatarretan 91
4.2 Euskalkiak 93
4.3 Toponimia 95
4.4 Azken iruzkina. 97

5. Lakarra eta Gorrochateguiren txostenei erantzuna 99
5.1 Testuingurua 99
5.2 *Contra facta non valent argumenta* 100
5.3 Artikulua 101
San Millango Erreja (1025). 101
Liriako Edalontzia (K.a. IV. m.) 103
Ibarra Plasenzuela-ko (Cáceres)
lapida erromatar batean (K.o. II. m.?) 104
Illuna eta *Tichia* Iruña-Veleiako auzo batean . . .105
-*ona* bukaturiko toponimoak 107
Beste arrasto batzuk 109
Zenbait iruzkin euskal artikuluaz 109
5.4 Fonetika eta grafia. 110
Aspirazioa (<h>) 110
T = TS eta TZ 112
S eta Z 113
K eta QV (qu) 114
5.5 Lexikoa 115
Arapa, arosa, lagun, polita, urdin, gori 115
5.6 Aditz jokatuak 119
5.7 Izenordeak eta posesiboak 121
neu, geu, geure, zure, zeu, zure, zutan 121
5.8 Ergatiboa 124
5.9 Arkaismoak eta hapaxak 124
5.10 Ondorioak 128

5.11 Lakarraren azken kodaz eta ustezko faltsutzaileez . .131
5.12 Gibel-solasa 132

6. Benetakotasunaren aldeko txostenak 141
Koenraad Van Den Driessche geologoaren ikuspuntua. . .143

7. Kalte humanoez 147
Iruña-Veleia: amesgaizto baten historia. 147

8. Iruña-Veleiako auzia argitzearen aldeko manifestua . . .153

JARRAITU GAIA WEBGUNE BERRIAN

Iruña-Veleiari buruzko informazioa zabala:

txostenak, argazkiak, ostraka bakoitza

bere testuinguru estratigrafikoan, transkripzio

guztiak, iritzi-artikuluak, eztabaida-foroa

eta askoz gehiago

www.sos-irunaveleia.org



Liburu hau,
Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak
RGM moldiztegian inprimatu da,
90 gr.ko paperean
2009ko azaroan.

Aurkeztu dizugun liburuaren edukia, itxura edo inprimaketari buruzko iritzirik izatekotan, bidal iezaiguzu; zinez eskertuko dizugu.

ARABERA kultur taldea
1526. Postakutxa
01080 GASTEIZ
Araba
araberagasteiz@gmail.com